



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA  
*DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION*

**HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA:**  
**GRAMATIKA-ARIKETAK**

1.361:371.3

2  
Euskara Zerbitzua  
Glotodidaktika-lanak







## GLOTODIDAKTIKA-LANAK 2



© **Prestatzailea:** J.A. Mujika  
**Ohar egile eta laguntzaileak:** N. Gardner  
I. Olaziregi

**Azala:** Jesus Iturriza

© **Argitalpen Zerbitzu Nagusia.** Eusko Jaurlaritza  
**I.S.B.N.:** 84-7542-226-8  
**Legezko Gordailua:** VI-19-86  
**Lehenengo Argitaraldia:** 1982ko Martxoan  
**Bigarren Argitaraldia:** 1986ko Martxoan  
**Inprimatzailea:** Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria-Gasteiz.

**HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA**  
*GRAMATIKA-ARIKETAK*

**Gasteiz 1986**





*Drill-en hotsa gainbehera datorrenean argitaratzen al duzue haiei buruzko liburuka? Ez ote hori sasoiz kanpoko fruitua eskaintzea?*

*Hizkuntzen irakaskuntzan, beste hainbat arlotan bezala, ez da egoki beti muturretik muturrera ibiltzea, gaur ilusio kabiezinak piztuz etzi beste ilusio berriagoen aurrean arras itzaltzeko. Atzo arrunt ona zena, bihar ezin txarragoa izango ote?*

*Aurrera egin behar dugu bai, baina orain arteko on guztia gordez, ur zikinarekin batera umea ere joan ez dakigun bainera zulotik. Lehen dena gramatika-ariketa zen, jo eta ke aspertzeraino. Eta hori ez da egoki. Baina bere lekua badute gaur ere saio horiek, bestelako saio berriei bidea itxi gabe noski.*

*Horretan saiatu gara. Gaurko ikuspegi ñabartuagotik horrelako ariketek, bes-teen ondoan, nolako balioa duten aurkezten saiatu gara, 10 urtetik gorako ikasleei euskara irakasten dieten irakasleen zerbitzuan batez ere, beraiek ere horrelako eta bestelako materiala sortzeari ekin diezaioten, beti bestek egindakoaren menpean ibili gabe. Beraiei eskaina.*



# AURKIBIDEA

	<u>Orrialdea</u>
1. ATALA: OHAR NAGUSIAK .....	9
I. AURKEZPENA .....	11
II. GRAMATIKA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN .....	14
II.1. Gramatikaren ezagupen formala eta ezagupen operatiboa .....	14
II.2. Gramatika ikasteko bideak: induktiboa, deduktiboa eta bion artekoa .....	16
II.3. Praktikaren garrantzia .....	18
II.4. Gramatika-ariketak: urrats, ez xede .....	19
II.5. Ahozko aribideak eta idatziak .....	20
III. AHOZKO GRAMATIKA-ARIKETAK: SAILKAPENA .....	23
IV. APLIKAZIO OHAR ZENBAIT .....	26
IV.1. Gradazio didaktikoa .....	26
IV.2. Ariketaren «puntuak»: bakarra eta garbia .....	27
IV.3. Perpausak ahalik normalenak eta kontestuan .....	27
IV.4. Kontrasteak eta oposizioak bereziki landu .....	29
IV.5. Ikasleak zertan ari den «ulertu» egin behar du .....	30
IV.6. Ohar laburrak .....	30
2. ATALA: AHOZKO ARIKETAK .....	35
I. ERREPIKAKETA .....	37
I.1. Ariketaren deskribapena .....	37
I.2. Adibideak .....	37
I.3. Ariketa honen xedeak .....	39
I.4. Aplikazio oharrak .....	39
I.5. Euskararako aplikazioak .....	40
II. ORDEZPENA .....	42
II.1. Ariketaren deskribapena .....	42
II.2. Ordezpen bakuna: adibideak .....	42
II.3. Ariketa honen xedea .....	43
II.4. Aplikazio oharrak .....	43

II.5. Euskararako aplikazioak .....	45
II.6. Ordezpen motak .....	47
III. TRANSFORMAKETA .....	50
III.1. Ariketaren deskribapena .....	50
III.2. Adibideak .....	50
III.3. Ariketa honen xedeak .....	51
III.4. Aplikazio oharrak .....	52
III.5. Transformaketa bereziak:	53
Txertakuntza	
Birformulakuntza	
III.6. Euskararako aplikazioak .....	56
IV. HEDAPEN ARIKETA .....	58
V. BURUTZE ARIKETAK .....	60
V.1. Ariketaren deskribapena .....	60
V.2. Adibideak .....	60
V.3. Aplikazio oharrak .....	61
V.4. Euskararako aplikazioak .....	62
V.5. Burutze ariketa bereziak .....	62
VI. GALDE-ERANTZUN ARIKETAK .....	64
VI.1. Ariketaren deskribapena .....	64
VI.2. Aplikazio oharrak .....	65
VI.3. Ariketaren xedea .....	66
VI.4. Mota bereziak .....	66
VII. ITZULPEN ARIKETA .....	68
VII.1. Ariketaren deskribapena .....	68
VII.2. Adibideak .....	69
3. ATALA: ELKARRIZKETA LABURRA .....	71
ELKARRIZKETA LABURRA .....	73
4. ATALA: ARIKETA IDATZIAK .....	79
I. IDATZIZKO ARIKETA MOTAK .....	81
II. EZAGUPEN ARIKETAK .....	82
II.1. Aukera anitzeko ariketak .....	82
II.2. Hutsuneak bete .....	84
Perpausak	
Testu jarraitua	
Burutze ariketa	
II.3. Atal jokoa .....	87
II.4. Irudiak eta perpausak lotu .....	88
III. ADIERAZPEN ARIKETAK .....	89
III.1. Perpausak osatu .....	89
III.2. Elkarrizketak osatu .....	90
III.3. Transformaketa .....	90
III.4. Esakuneen aldaketa .....	91
BIBLIOGRAFIA .....	93

# **1. ATALA: OHAR NAGUSIAK**



# I. AURKEZPENA

Hizkuntza bizen irakaskuntzan ari den irakaslearen helburua, xede-hizkuntza kanpoko nahiz bigarrena izan<sup>1</sup>, ikaslearengan komunikazio trebetasun batzuk sortaraztea da:

- hizkuntza berriko hiztunekin solasean has dadinean, ahalik zuzenen eta gero eta neurri handiagoan haiek esandakoa jasotzeko trebetasuna (**entzunaren ulermena**).
- hizkuntza berrikoei bere esanbeharrak ahalik egokien eta gero eta neurri handiagoan adierazteko trebetasuna (**mintzamena**).
- hizkuntza berrikoek idatziz eman dutena –egunkariak, gutunak, literatura...– ahalik zuzenen jasotzeko trebetasuna (**irakurriaren ulermena**).
- hizkuntza berrikoei bere esanbeharrak idatziz gero eta neurri handiagoan adierazteko trebetasuna (**idazmena**).

Lau trebetasun nagusi hauek ez dira ez neurri eta ez aldi berean lantzen. Ikasle bakoitzaren helburua batera edo bestera emanago izan daiteke. Gehienetan, ordea, eta areago gure kasuan, hizkuntz irakaskuntzaren helburua ahozko bi trebetasunekin lotuago dago idatzizkoekin baino, kasu berezi zenbaitetan salbu.

Helburua nolakoa, jakina, hartara daramaten bideek eta teknikek ere halakoak izan behar dute.

Irakasleak gehienetan bere lanaren helburua zehatz mugatu ondoan hartarako egokia izango den metodo edo testuaren bila jotzen du. Eta bat aukeratutakoan hari jarraitzen zaio.

Edozein metodo aukeratzeko duela ere, hura egoki erabiltzeko gai izan beharko du ordea. Eta metodoari besterik gabe jarraitzea, gainera, ez du aski izango. Teknika eta ariketa diferenteak erabili beharko ditu ikasgelako lanari ekiten dionean, metodoak eskainitakoak batzuk –eta hauek egoki eta taxuz aplikatu ahal izateko gaitu egin beharko du– eta berak prestatutakoak besteak.

1. **Kanpoko hizkuntza** ikaslearen inguruan mintzatzen ez den hizkuntzari deitzen zaio; gurtzat, adibidez, ingelesa kanpoko hizkuntza da.

**Bigarren hizkuntza**, berriz, elebitasun egoeran ama-hizkuntzaz gainera ikaslearen inguruan mintzatzen denari esaten zaio; Tolosako haur erdaldun batentzat euskara bigarren hizkuntza litzateke.

**Xede-hizkuntza** azkenik, kanpoko nahiz bigarrena izan, ikaslea ikasten ari den hizkuntza berriari esaten diogu.

Ariketa mota bakoitzak, ordea, bere xede eta erabil eremu bereziak ditu, ikaste prozesuan bere kokagunea du, edozein ariketak ez bait du edozertarako balio. Hau hastapenetan da erabilgarri eta hura aurreratuekin; batek ikaspuntuak aurkezteko balio du batez ere, bigarrenak ikaspuntu horiek lantzeko eta hirugarrenak komunikazio librean txertatzeko; halako hark lexikoa ikasteko eta honako honek gramatika sakontzeko...

Klasea prestatzerakoan, beraz, ondo jakin behar da zein ariketa mota, noiz, nola, zertarako eta zein baldintzatan erabili.

**Entzun ariketa**, esate baterako, izenak berak aski garbi adierazten duenez, hizkuntza berriarekiko entzumena lantzeko erabiltzen da. Lehen urratsetan hizkuntza berriaren fonemak, azentua, doinuera etab. ikasteko balio du batez ere; aurreragoko mailetan, berriz, zati luzeagoak entzun eta –benetako solasetan gertatuko zaion bezala– ikaslea, ulerturikoan oinarrituz ulertu gabeai nolabait antz emanaz, zatien mezu jenerala jasotzen ohitzen joan dadin balio dezake.

**Buruz-ikaste ariketak**, berriz, ikaspuntu bakoitza testuinguru batean txertaturik aurkezteko balio du; orobat ikasleak hizketan abiatu orduko behar izango dituen formulak eta esaera eginak arras bereganatuak izan ditzan, aurkezten zaion eta ondoren sakonago landuko duen ikaspuntua hasieratik beretik ahalik eta barneen bere baitara dezan, hizkuntza berriko perpausak «esaten» ohitu dadin...

**Gramatika ariketak**, bere aldetik, ikaspuntu gramatikalak landu, sakondu eta ustiatzeko balio du, morfemak, adizkiak, egiturak, joskera arauak etab. Erabiliaren erabiliaz ikasleari gero eta ezagunagoak egin dakizkion, erabilgarriagoak, hizkuntza berriaren «sistema» emeki emeki bere baitara dezan, sistema horri dagozkion perpausak ulertu eta sortzeko gai bilaka dadin...

**Elkar hizketak edo solas laburrak** ikaspuntuak kontestualizaturik aurkezteko balio dezake edota bestelako ariketa guztien ondoan benetako komunikazio gaitasuna lortzen joateko. Hau izaten da, izan, hizkuntza mintzatuak ikasterakoan azken helburua: ariketa guztiak azken finean honetara datoz, azken helmuga horretera garamatzaten bideko urrats baizik ez bait dira. Batzuk –entzun ariketa esate baterako– azken helburutik urrun samar gertatzen badira ere, elkar hizketa hurbil-hurbilean aurkitzen da. Orobat esan daiteke berez komunikazioari begira burutzen diren hainbat hizkuntz jokori buruz ere: informazio eskeko jokoak, asmakilo gisakoak, paperak egiteari dagozkionak, teatro laburrak, ipuin kontaketak eta beste hainbat.

**Irakurketak**, garbi da, bere helburu zehatza du: mota desberdinetako testu idatziak ulertzen trebatzea, alegia. Zeharka, ordea, beste helbururik ere izan dezake: lexikoa aberastea, ahoz ikasitakoak sendotu eta finkatzea...

**Ariketa idatziak**, azkenik, gramatika-lexikoen zerbitzuan erabil daitezke edota, zuzen eta zehatzago, idazmenaren zerbitzuan, hala nola diktaketa eta idazlanak...

Zerrenda oso eta betea egin behar bagenu, beste hainbat eta hainbat ariketa mota aipatu beharko genuke goikoen ondoan eta bakoitzak metodologia desberdinetan duen garrantziaz zerbait esan. Ez da hori, ordea, txosten honen helburua. Hizkuntzen irakaskuntza garatzen eta dibertsifikatzen ari den neurrian, gainera, teknika eta sistema berriak ari dira etengabe sortzen hurbilketa berrien eta tresneria modernoaren inguruan.

Irakasle adituak ariketa motak –denak ez bada, bai bederen nagusiak– ezagutu beharko lituzke, testuetan aurkitzen duen materialetik zer, nola eta



noiz erabili jakin dezan, ikaspuntu eta trebetasun bakoitzaren inguruan eta zerbitzuan ariketa berriak behin eta berriz prestatzeko gai izan dadin eta, hitz batean, ikasgelako lanak eta ekintzak pertsonalkiago zuzendu ahal ditzan.

Txosten honetan, besteak bestetarako utziz, gramatika ariketak aurkeztuko dira, hots, ikaspuntu gramatikalak (izena eta deklinabidea, adizkiak, perpaus morfemak, joskera legeak...) zuzenean eta era trinkoz lantzeko zenbait sistema azalduko da eta banan-banan aztertuko, bakoitzaren baliagarritasuna eztabaidatuz eta, ahal den neurrian, euskararen irakaskuntzarako egokituz.

Gramatika ariketa hauek oso erabiliak izan dira azken hamarkadotan hizkuntza klaseetan, joera audiolingualari jarraitu izan zaionean batipat. Zenbaitetan, hain zuzen, klasearen ardatza edo, bederen, ekintza nagusietariko bat izaten ziren. Azken urteotan, egia da, gramatika ariketa hauen beharrari buruz eta beraien erabilgarritasunari buruz zalantzak sortzen hasiak dira. Izan ere, perpausari eta ahozkoari arreta berezia eskaintzen dietenez hitzari eta idatziari garrantzi handiegia ematen zieten joera tradizionalak baino egokiagoak agertu badira ere, maingu gerta daitezke testuari eta kontestu komunikatiboari gutxiegi begiratzen bait diete. Eta badirudi, gainera, ariketa estrukturalok ez dutela, besterik gabe, gaitasun komunikatiboa garatzen<sup>2</sup>.

Halere, irakasleak gertutik ezagutu behar dituela uste dugu, itxura guztien arabera –eta askoren ustetan arrazoi osoz– oraindik urte luzetan erabilgarri izango bait dira, ez behar bada beti eta noiznahi burutu beharreko klaseko ekintza nagusi bezala, baina bai zenbaitetan beste lanen zerbitzuan erabil daitezkeen laguntza egoki bezala. Gaur nagusi dagoen joera eklektikoak <sup>3</sup>, azkenik, bide emango du gramatika-ariketa hauek garatu eta hesi estuegietatik askatuz ariketa komunikatiboetara zabaltzeko, guk txosten honen azken aldera egingo dugun bezala.

2. Ikus, esate baterako, PARKINSON DE SAZ 222-224 orr. eta han, 222 or., P. Christoffersen-en aipamena: «Separados de un contexto cultural, de un significado situacional, los ejercicios tienden a convertirse en áridos y no muy útiles».

3. Ikus aipatu liburuan, 229 or. : «El buen profesor, generalmente, es ecléctico, y escoge de cada método lo que más útil le resulta en la práctica».

## II. GRAMATIKA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN

Bigarren hizkuntzaren ikasleari «gramatika» irakatsi behar ote zaioneko arazoa aipatu orduko sekulako eztabaida luze eta gogorrak sortzen dira irakasle, metodogile eta hizkuntz pedagogoen artean. Zenbaitek gramatikaren irakaskuntza noraezekoa –«hizkuntz irakaskuntzaren bihotza eta muina»<sup>4</sup>– dela badio ere, besteen ustez gramatikak ez du inolako lekurik hizkuntza klaseetan.

Eztabaida, gainera, arras desbidera daiteke –eta askotan zoritxarrez aski desbideratua gertatzen da– kontzeptuak ez badira aurretik zahazki mugatzen. Zer da, izan ere, gramatika? Eta, batez ere, zer da bigarren hizkuntzaren gramatika irakastea? Arauak formulatzea? Analisi formalak egitea? Ez ote, alderantziz, ari-keta eraginkorrak egitea?

### II. 1. GRAMATIKAREN EZAGUPEN FORMALA ETA EZAGUPEN OPERATIBOA

«Gramatika» hitza (eta orobat «gramatika ariketak») entzun orduko, jende askori bere eskolako urteak datozkio gogora, hots, ama-hizkuntza aztertzen eta formalki deskribitzen igaro zituen ordu luzeak. Etxean ikasi eta txikitatik normalki erabiltzen zuten hizkuntzaren analisiarekin lotzen dute gramatika. Gogoan dituzte oraindik gramatika klaseak: irakasleak perpaus bat idazten zuen arbelean eta gero zatitan banatzen zuen, zati bakoitzari izen teknikoa ematen ziolarik: hau «sujetoa» da, hura «predikatua», hemen «izena» duzue, hor «juntagailua»... Gero beste perpaus bat idatzi eta biak konparatzen zituen: goikoan izena singularrean dago, behekoan pluralean («ikusitako pluraleko morfema AK»); goikoan aditza orainaldian dago, behekoan iraganean (eta paradigmak idazten zituen)... Eta horrela ikasleek, emeki-emeki, betidanik zekiten eta txikitandik bereganatu zuten hizkuntzaren sistema, salbuespenak barne, espresuki eta formalki aztertzen zuten.

Horri, **gramatikaren ezagupen formala** esan geniezaioke.

Bigarren hizkuntzaren ikasleari irakasten zaion gramatika, berriz, oso bestelakoa da: ikaslearen interes nagusia ez bait da hizkuntza analizatzea, erabiltzen ikastea baino; zenbait ereduz baliaturik ematen zaizkion elementuak egitura eta patroik jakinetan sartu nahi ditu, sistema baten barnean kokatu: elementuen sintesia axola zaio, beraz, ez analisisa. Aditza ikasten denean, adibidez, forma errazenetik abiatzen da –demagun «orainaldiko laguntzaile erabilienak»–, gero konplejuagoetara pasatzeko –«orainaldi burutua, ez burutua, geroaldia...»–; bate-

4. Finochiaro-Bonomo, 84. or.

tik forma horiek erabiltzen ikasi behar du, praktika eginaz, eta bestetik forma horiek sistema barruan zer leku betetzen duten, zer «funtzio» duten ikusi. Haurrak ere, ez dezagun ahantz, ama hizkuntzaren gramatika era operatiboan bereganatzen du. Aldeak alde, bide batetik edo bestetik, bigarren hizkuntzaren ikasleak ere gramatikaren horrelako bereganatzera iritsi behar du.

Horri **gramatikaren ezagupen operatiboa** esan diezaiokegu.

Agerikoa denez, bi ikuspegiok aski diferenteak dira eta zerbaitean bat bada toz ere, egiteko konkretu gehienetan ez dute antz handiegirik: gramatika formalki sistema bereganatuaren elementuak formalki, terminologia berezia eta guzti, analizatzen ditu; eraginkor edo operatiboan, berriz, erabil praktika da nagusi eta banakako elementu ugarien sistemaratzea, terminologia berezia erabili edo ez zeregin honekiko baliagarritasunak erabakitzen duelarik.

Gramatika formalaren bideak, berez, laguntza eskasa eta askotan kaltegarria eman diezaioke hizkuntza berrien ikasleari. Gramatika operatiboa, aldiz, behar-beharrezkoa du: egitura diferenteetatik abiatuz, poliki-poliki sistema bereganatzen joango da, gero perpausak «sortzeko» trebetasuna lortzen duelarik. «Sistema» bereganatu gabe, hizkuntz elementu kontaezinen itsaso zabalean galduko litzatake, zer non kokatu ez dakiela eta, beraz, perpaus berriak sortzeko gai ez dela. Gramatikaren irakaskuntza operatiboak elementu horiek sisteman sartzen laguntzen dio, patroi eta egitura ereduaren barnean kokatzen; eta gero, ondorioz, patroi horien arabera perpaus berriak ulertzeko eta sortzeko gauza izango da.

Honako hauek dira, beraz, bide eraginkorraren bi alderdiak:

a) graduaturik ikasitako forma gramatikal bakoitzak sistemaren barnean duten lekuaz eta funtzioaz konturatzen joan;

b) forma horiek behin eta berriz praktikatu, beraien ezagupena baitaratu arte, funtzionalki erabilgarri bilaka daitezkeen arte.

Ikasleari berari, askotan, ez zaio irudituko gramatika ikasten ari denik, ikasten dituen fenomenoak izentatzeko terminologia ere falta egingo zaio behar bada, baina fenomenoak bera ulertu egingo du eta berau erabiltzen trebatu. Demagun ikasleak ez duela «konpletibo» hitza ezagutzen; gramatika era operatiboan ikasterakoan ez du nahitaez deitura hori ikasi beharrik; konturatuko da halere, zalantzarik gabe, -eLA morfema, besteak beste, perpaus bat zeharka aipatzen denean erabiltzen dela.

Hizkuntza klasean deskribapen formala zenbateraino erabili behar den, egoera konkretuak aginduko du (ikaslearen prestakuntza eta adina, ikastaroen azkartasuna...), baina gogoan aduki behar da beti ere horrelakorik erabiltzen bada, «operatibitatearen» zerbitzu hutsean erabili behar dela, ez bestela.

Horrela ulerturik, gramatika beharrezkoa da hizkuntz irakaskuntzan: bai kurtsuen planifikazioan bai ikasgelako ekintzetan ere.

Hona zer zioen orain 40 urte irakasle amerikar batek:

«... ikasleak sistematikoki ikasi behar du gramatika. Izan ere, hizkuntzaren elementu ugariak ezingo ditu gogoan gorde, araez mugaturiko multzotan biltzen ez baditu... Adibide eta perpaus konkretu asko jakin arren galdua aurkituko da ikaslea arauak eta sistema bereganatu ez baditu, orain urte batzuk arauak baizik ezagutzen ez zituen ikaslea bezain galdua, hain zuzen»<sup>5</sup>.

Edota beste amerikar batzuk nola dioten:

«Hemen adierazitako 'gramatika klaseak' ohiturak garatzeko ariketez osatuak daude, ez hizkuntzari buruzko azalpenez»<sup>6</sup>.

Egungo irakasle batek, berriz, honela dio:

«Gramatika operatiboa ezin baztertuzkoa da hizkuntzen irakaskuntzan. Irakasle adituek ez dute horretan zalantzarik. Gramatika baztertu izan duten metodoak –Elkar-hizketa metodoa, Induktiboa, Naturala– benetan ahulak gertatu dira (...).

Ikasleak garbi ulertu behar du zer ikasten duen, hizkuntz ikasketan behar bezain sendo aurreratuko badu»<sup>7</sup>.

Ondo ulertu, ordea: hizkuntz klasean gramatika formala derrigorrezkoa ez dela diogunean, *ikaslea* gogoan harturik mintzo gara, azalpen formalak, ikasleentzat beharrezko ez direla esan nahi dugu. *Irakasleei, metodogileei eta programatzaileei* buruz ezin daiteke beste horrenbeste esan: hauek hizkuntzaren analisi formala xehetasunetaraino ezagutu behar dute, zer, noiz eta nola egokien irakatsi ondo erabakitzeko, egitura bakoitzak besteekin zer-nolako lotura duen argi eta garbi jakiteko, ikaspuntu bakoitzean nolako ariketak diren egokien antzemateko... Irakasleak, beraz, gramatika formala ere ezagutu behar du<sup>8</sup>, bere ekintzak zuzen gidatu ahal izateko. Hemen esaten ari garena besterik da: berak formalki dakiena ez diela ikasleei formalki azaldu beharrik.

## II. 2. GRAMATIKA IKASTEKO BIDEAK: INDUKTIBOA, DEDUKTIBOA ETA BION ARTEKOA

Hizkuntz irakaskuntzaren gainean idatziriko liburu eta artikulu askotan eztabaidatzen da gai hau: zer egin behar da ikasleak bigarren hizkuntzaren gramatika era eraginkorren beregana dezan? Nola jokatu behar da?

Bide induktiboz, hots, adibide eta eredu asko emanaz, ikasleak horietan oinarrituz dagokien arauaz edo formaz, jakinaren gainean edo bestela, ohartu eta jabetu daitezen, hau da, perpaus konkretuetatik generalizazio sendoetara pasa daitezen? Ala bide deduktiboz, hau da, araua edo forma alde aurretik azaldu eta ondoren berau argitzeko eta praktikatzeko adibide multzo handia eskainiz?

Demagun irakasleak «geroaldia» irakatsi nahi duela. Bide hau har dezake: ikasleei zer ikasiko duten adierazi, formalki («indikatioaren geroaldia ikasiko dugu») edo era arruntean («gero, bihar, pasako dena esaten ikasiko dugu»); ondoren, geroaldia nola egiten den azaldu («adizki nagusiari –ko, eta –n kontsonantearen ondoan –go, atzizkia erasten zaio»); gero, adibide batzuk eman («bihar etorriko naiz», «datorren astean Bilbora joango naiz», «bazkalondoan siesta egingo dut»); eta azkenean, praktikan murgilduz, ariketa asko egin bai ahoz bai idatziz.

Deduktiboa da bide hori: hizkuntz sistematik ikaspuntu bat ateratzen da eta hura, formalizaturik edo bestela, baina espresuki, argi eta garbi, azaltzen zaie ikasleei, ondoren praktika ugarian murgiltzeko.

Demagun, ordea, ikaspuntu hori azaltzeko irakasleak dialogotxo bat, irakurgaitxo bat, errepikaketa ariketaren bat edo antzeko zerbait prestatu duela; ariketa

6. Ikus FRIES & LADO, hitzaurrean.

7. Dixon, 19. Ohartu: egileak «garbi» dio, ez «formalki».

8. Eta ez xede-hizkuntzarena bakarrik. Ikasleen hizkuntzarena ere komenigarri da.

morfemaren aurrean alegia. Testuinguruak eraginik edo adibideen norabide nabarmen eta nahastezinak hartaturik ikaslea emeki-emeki konturatzen da –ko hori geroaldiaren marka dela, ikusten du halaber morfema hori nola erabiltzen den (adizki nagusiari –ko, eta –n kontsonanteaz amaitzen direnei –go, morfema erantsiz). Adibide guzti horien ondoan, irakasleak edo ikasleak berak adibideetan agertzen joan dena espresuki –baina ez derrigor «formalki»– adierazten du.

Induktiboa da bide hori: ereduetatik arauera daramana <sup>9</sup>.

Bide hauetan zein da aproposena? Zein erabili behar da eta nola? Ezin da, noski, erabateko erantzunik eman. Kasuan kasuko hautapena egin behar da.

Metodo zuzenetara jotzen dutenek, gramatika esplizitoaren beharrik ikusten ez dutenez, bide induktiboari indar handia ematen diote. Hurrek ere horrela ikasten omen dute amahizkuntza: gurasoek eta ingurukoek eginiko perpausak inongo ariketa gidatu eta mailakaturik gabe entzunik emeki-emeki hizkuntzaren sistema bereganatzen doaz.

Lehen hizkuntzaren bereganatzea eta bigarrenaren ikastea erabat antzekoak direnik ez da, ordea, probatu; zerbaitean antzekoak badira ere, badirudi alde batzuk ere badirela. Bidea beraz, hurraren kasuan ez bezala, bai induktiboa bai deduktiboa, bai bien arteko zerbait ere, izan daiteke.

Deduktiboa, oro har, motibaturik dauden helduentzat gerta daiteke egoki, gramatikaz aski jakin eta berau sistematikoki lehenbailehen ulertzeko irrika dute-entzat, beste hizkuntzak ezagutu eta konparaketa kontrastiboa egiteko gai direnentzat, ikastaro trinko eta azkarretan ikasitakoari hobeto eusteko puntu bakoitza sistema formal batean kokatu nahi dutenentzat...

Bide induktiboa, berriz, ikasle gazteagoentzat bereziki egokia izan daiteke eta ezinbestekoa haurrentzat, batez ere abstrakzio neurri handiegira iritsi ez direnentzat; aproposa gerta daiteke orobat bide praktikoak eta bilaketa saioak maite dituztenentzat, dakitenetan oinarrituz handik aurreragokoak asmatzeko direnentzat, hizkuntza berria bera erabiltzen duen komunitatean kokaturik ikasten ari direnentzat.

Irakasle askok, noski, ez dute bide bakarra beti ere estuki erabiltzen; anitz aldiz bien arteko zerbaitetara jotzen dute, ikasleak eta ikaskaiak nolakoak diren gogoan harturik. Gai gehienak, ikasleak motibatuzko, era induktiboan ematen badira ere, gai konplejuagoak deduktiboki irakasten dituzte.

Txosten honetan, gero eta garbiago ikusiko den bezala, joera eklektikoa hartuko dugu honen eta antzeko arazoaren aurrean eta beraiei erantzuna emateko erabili ohi diren teoria psikologiko eta linguistikoaren aurrean. Ezagutze prozesuari buruz, adibidez, eta gauzak zabal harturik, bide induktiboaren abantaila onartzen badugu ere –ikaslea areago motibatzen duelako; ikasitakoa barnetara eramateko erabilgarriago baita; ikasitakoa barnetara eramateko erabilgarriago baita; ikasitakoa barnetara eramateko erabilgarriago baita...–, ez dugu ordea ukatzen bide deduktiboa inoiz egokiago gerta daitekeenik.

Zerbaitetan, gainera, berdintsu izan daiteke bide bat nahiz bestea aukeratzeko: irakurgai batetik has gaitzke, adibide pilo batetik, hortik gero legea atera eta

9. Hirugarren kasua ere gerta daiteke: demagun testuak geroaldirako programatua duen ikaskaira iritsi ere baino lehen eta, esate baterako, **nerre, zure**, etab, lantzen ari delarik ikaslea futuroa erabili nahian aurkitzen dela («mañana iré a **tu** casa / bihar **zure** etxera joango naiz») esatea bururatu zaiolako). Eta geroaldia ezagutzen ez duenez, irakasleari galdegiten dio. Honek futuroaren sistema osoa azaldu gabe ere, momentuan behar duen neurrian azaltzen dio, hortik aurreragokoak gerorako utziz.

Hori ikasleen beharrak eskaturiko bide **deduktibo mugatua** izango litzateke.

bera behar bezain luze praktikatu. Edota hasieran berean eman dezakegu legea, gero praktika ugaria egin eta azkenik dena ariketa global batean bildu.

Ikusten denez, batean zein bestean praktika egitea da batez ere garrantziko.

### II. 3. PRAKTIKAREN GARRANTZIA

Gramatika forma eta egiturak ikasteari eskaintzen zaion lanaren alderdirik behinena praktikarena da zalantzarik gabe. Forma edo egitura bakoitza nola aurkeztu garrantziko gauza da, zalantzarik gabe; metamintzaira erabili ala ez ere ondo neurtzeko gorabehera izango da. Baina ikaspuntu bat lantzerakoan irakasleari guzti horien gaineratik axola zaiona beste hau da: puntu hori erabiltzerakoan ikaslea aski trebe izatera iritsi dadin behar adinako praktika egitea. Ariketak egin eta egin; praktika aski ugaria burutu: hori da inportanteena.

Eta praktika honetan, hain zuzen, lehen urratsetan batez ere, irakaslearen zeregina bazter ezina da: berak gidatu behar du praktika hori, berak neurtu behar du eta ezarritako xedera desbideratze kaltegarririk gabe zuzen eraman.

Hona zein argi mintzo den honi buruz R. J. Dixson irakaslea:

*«Hizkuntz irakasle adituek ondo dakitenez, aski erraza da, batera edo bestera, gramatika arauak irakastea. Arauok ezagutzea lanaren hasiera besterik ez da, ordea. Ezagutu ondoren egiten diren ariketak –«egiturak lantzea»– dira aldian aldiko araua ikasleen buruan baitaratzen dutenak eta ezagutze hari aplikazio praktikoa ematen diotenak»<sup>10</sup>.*

Eta honela darrai:

*«Hizkuntza berrian nahikoa aurreratu duenean, ikasitako gramatika arauak burutik joango zaizkio ikasleari. Forma praktikoeak, aldiz, bertan iraungo dute»<sup>11</sup>.*

Txosten honetan, gorago esan dugunez, gramatika ariketa zenbaiten deskribapena egingo dugu, beraien erabiltzeari, hots, gramatikaren praktika gidatu eta operatiboari garrantzi berezia ematen bait diogu. Ez gara, ordea, inongo teoria psikologiko jakin eta zehatzetan estuki oinarrituko. Hautapen pragmatiko baten arabera zera diogu soi-soilik: arau bat «ulertzeko» ez dela aski. Horrekin batera, praktika eginaz, arauari dagozkion perpausak ulertzeko, sortzeko, aldatzeko eta behar bezala aukeratzeko, «gaitasuna» sortu behar dela.

Praktika hori, hasieran, irakaslearen gidaritza estupean egingo da, ondoko kapituluetan agertzen diren ariketa mota diferenteak, edo antzekoak, aplikatuz. Gero, berriz, ariketa libreagoetara pasa beharko da, ikaslea libreki komunikatzen hasteko gai izan dadin neurrian, horretan ere, eta batez ere horretan, trebatu dadin<sup>12</sup>.

Honela M. Finochiaro-k eta M. Bonomo-k:

*«Gidaritza gertu eta estuaren uneari manipulatzeko-ariketen unea esaten zaio. Espresio libreari eskainitako uneari, berriz, komunikazio-ariketaren unea»<sup>13</sup>.*

10. Dixson, 26.

11. Dixson 26. Egileak zera esan nahi du hemen: gramatika arauak burutik desagertu arren hitzunen ohargabeko gaitasunean lekua jada egin dutela eta bertan kokatu direla.

12. Hasieratik komeni da, halere, lor daitekeen komunikazioa aplikatzea. Esate baterako, klase barneko komunikazioa, informazio arruntenera dagokiona. Ikasitako guztia komunikazio-praktikara berehala eraman behar da.

13. Finochiaro, 89.

Ondoko kapituluetan «manipulatze» uneari dagozkion ariketen deskribapena egingo dugu, irakaskuntzaren egitekoa horietan burutzen ez dela guztiz onartzen badugu ere.

## II. 4. GRAMATIKA ARIKETAK: URRATS, EZ XEDE

Gramatika formak, arauak eta egiturak ariketa berezien bidez azkarki praktikatzea gehienetan onuragarri dela baiezturik ere, garbi utzi dugu ariketa horiek kokagune berezia dutela. Ez dira hizkuntz ikastearen urrats bakarra, ezta derrigor lehen edo azken urrats ere. Zein da, bada, berez dagokien lekua?

Ez dira derrigor lehen urratsa. Gramatika puntu baten irakasketa edo, arruntago esanik, ikaskai baten irakasketa honelako ariketaren batetik abia badaiteke ere, gehienetan bestelako aurkezpena ematen zaio, gramatika ariketak bigarren urratserako utziz. «Egiturak lantzea», beraz, ikaskaiaren abiapuntu izan badaiteke ere, metodo gehienek geroxeagorako uztea hobesten dute.

Ez dira, ezta ere, azken urratsa. Ariketa hauek egindakoan, izan ere, saio libreagoetara pasa beharra dago, solas gero eta libreagoetara, ahozko nahiz idatzizko komunikazio ekintzetara.

Zenbait testutan bi egiteko hauek –gramatika ariketei dagokiena eta komunikazio jardunarena– elkarren aurkakoak bailiran agertzen badira ere, ikuspegi zabal baten arabera elkarren osagarritzat har daitezke eta, bestelakoak beste direlarik, honako eskema orokor eta lasai samarrean egoki kokatu:

	1. urratsa	2. urratsa	3. urratsa
1. ikaspuntua	<i>aurkezpena</i>	<i>egiturak lantzea...</i>	<i>komunikazio jarduna</i>
2. ikaspuntua	<i>aurkezpena</i>	<i>egiturak lantzea...</i>	<i>komunikazio jarduna</i>
3. ikaspuntua	<i>aurkezpena</i>	<i>egiturak lantzea...</i>	<i>komunikazio jarduna</i>

**KOMUNIKAZIO  
TREBETASUNA**

Ikaspuntuen edota ikaskaien aurkezpenari dagokionean, beti eta nonahi zalantzarik gabe hobesteko den biderik ez dagoela esan beharra dago argi eta garbi. Bide bakarra ez bait dago, ezta beti eta nonahi besteak baino egokiagoztat jo behar denik ere. Honako irakaslea ikaspuntua egoki jasotzen duen elkarrizketa labur batetik hasiko da: buruz ikaslaraziko die ikasleei, gero dramatiza dezaten; beste batek ipuintxo bat ekarriko du, gutun bat, egunkari zati bat, txiste moduko zerbait edo antzeko zatiren bat: hura irakur araziko die ikasleei edota berak kontatuko die; hirugarrenak ikaspuntua jasotzen duten perpaus batzuk aurkeztuko dizkie ikasleei, gero elkarrizketa labur batean txertatu ahal izateko; honek

ipuin edo alegia ezagunetatik abiatu nahiago izango du; beste hura zerbait antzetzuz hasiko da...

Hona berriro M. Finochiaro eta M. Bonomo irakasleen iritzia:

*«Nolako teknika aurkeztu behar dira ikaspuntuak? Horretan ikasleen adinak, beraien interes konkretuek, landu beharreko ikaspuntuaren nolakotasunak, kurtsoaren luze-sakonak eta programaren helburu nagusiek dute hitza. Aurkezpen bide bakoitzak bere alderdi on eta bere balioak ditu. Gaur egun irakasle asko eta asko elkarrizketa batetik abiatzearen aldeko agertzen da: ikasleek elkarrizketa bat entzun eta gero bertan ageri diren perpausak banan-banan esaten hasten dira buruz ikasi arte errepi-katzen dituztelarik. Elkarrizketa da, izan ere, haien ustetan, hiztunen hizketa normala gertuen jasotzen duena (...)*

*Zu, irakasle, aurkezte moduak aldatzearen aldekoa izango zara, behar bada. Hots, nolako gramatika forma irakatsi behar duzun –eta bidenabar nolako trebetasuna landu nahi zenukeen–, halako aurkezpen mota erabiltzearen aldekoa. Honako formaren hastapenean nahiago izango duzu elkarrizketa labur batetik abiatu; beste hartarako zeure gustora kontes-tualizaturiko egitura zuzenki aurkeztea hobetsiko duzu»(...).*<sup>14</sup>

Xedeari dagokionez, berriz, gauzak are garbiago daude: piano-joleak egiten dituen eskalak edota futbolariak egiten dituzten gimnasia saio eta korrikaldiak berezko xede ez diren bezala, hizkuntz ikasleak egiten dituen gramatika ariketak ez dira bere baitan burutzen; beste zerbaitetarako urrats dira, komunikazio trebetasunetara daraman bidetarte. Trebetasun horiek –ulertu, mintzatu, irakurri, idatzi– lortzen laguntzea dute helburu gramatika ariketek, piano-jolearen eskalek piezak jotzea eta ostikarien gimnasiak partiduak irabaztea bezala. Xede horretarako, jakina, egokiak eta neurri batean beharrezkoak izan daitezke aipatu ariketak; ez, ordea, nahiko. Komunikazioari begira bestelako ariketak asmatu dira –edota asmatzen ari dira, alderdi honen garapena urteotan gertatzen ari bait da– hala nola informazio eskeko ariketak, jokoak, solas gidatuak, ipuin kontakizunak...<sup>15</sup>.

Garbi gera bedi, beraz: txosten honetan deskribitu eta aztertuko ditugun ariketak ez dira ikaste prozesuan ez hastapen ez azken buru, prestatu eta luzatu behar den tarteko urrats inportante baizik. Urrats honen luze-sakonak zenbaterainokoa izan behar duen aldeaz aurretik mugatzea ezinezkoa da, noski:

*«Manipulatze-ariketak komunikazio saioak baino lehen burutu behar dira egia bada ere, ezin da manipulazio uneari zenbat denbora eskaini behar zaion besterik gabe erabaki. Ahalik lasterren, hori bai –lehen egunetik beretik– eraman behar ditugu ikasleak, galderen bidez, irudien bidez edo bestela, gurekin eta batez ere bere artean komunikatzen»<sup>16</sup>.*

Ahozko komunikaziotik landa, idatzizko trebetasunak ere landu behar badira, ariketa berezietan leku eman beharko zaie, hala nola irakurketa luze-zabalari –ikasi

14. Finochiaro, 71.

15. Hemen sartzen da gure artean Mintzapraktika, Mintzabide edo Mintzaketa izenez ezagutzen dena.

16. Finochiaro, 89.



tako gramatika eta hiztegia erabiliaren erabiliaz gero eta barneago sar daitezzen–, irakurketa zorrotzari –puntu bakoitza sakon aztertuz–, ariketa idatziei –hutsuneak bete, okerrak zuzendu, perpausa burutu, idazlanak...–, diktaketei etabarri.

## II. 5. AHOZKO ARIBIDEAK ETA IDATZIAK

Gramatika ariketak beste hainbat ariketa bezala berez ahoz nahiz idatziz burutu daitezke: perpaus aldaketak, esate baterako, ahoz nahiz idatziz egin daitezke, galde-erantzunak ahoz nahiz idatziz egin daitezke, itzulpenak ahoz nahiz idatziz egin daitezke... Garai bateko metodoetan idatzizko ariketak ziren nagusi; metodologia berriek, ordea, hizkuntza mintzatuari ematen diote lehentasun ukaezina eta joera horren ondorioz indartsu garatu dira azken hamarkadotan ahoz burutu beharreko ariketak. Ahozko komunikaziori dagokionez hain zuzen –eta hauxe da gaurko hizkuntz irakaskuntzaren helburu nagusia– ondorio askoz emankorragoak eskaintzen dituzte ahozko aribideek idatzizkoek baino.

Hizkuntzen irakaskuntzan, gorago aitortu dugun bezala, ariketa mota asko erabiltzen da hainbat helburu diferenteren zerbitzuan. Helburu bakoitzak agintzen du nolako ariketak, mintzatuak ala idatziak, diren baliagarriago. Entzunarèn ulermen eta jariakortasuna lantzeko ahozkoetara jo beharko dugu; ortografiarako idatzizkoetara...

Hemen, jakina, ez dagokigu ariketa mota guztiak aztertzea; txosten honetan, besteak besterako utziz, gramatikaren ezagupen eraginkorraren zerbitzuan buruturiko ariketak axola zaizkigu. Eta gramatikaren zerbitzuan ere bietariko aribideak, mintzatuak eta idatziak, erabil daitezke. Eta bakoitzak bere erabil legeak eta bere abantailak ditu:

- **ahozko ariketek**, trebetasun nagusiaren zerbitzuan egotez gainera, denbora laburrean perpaus asko egiteko aukera ona ematen dute. Ez hori bakarrik, ordea: okerrak, horrela nahi izanez gero, berehala zuzendu eta puntu ahulenei edo korapilotsuenei arreta berezia eskaintzeko bidea ematen dute.

Ariketa horietaz baliatzen den irakaslea errazago eta hobeto ohar daiteke noiz utzi alde batera jadanik ongi menperatua dagoen puntuari dagozkion ariketak eta noiz berritu eta azkartu oraindik kolokan dauden puntuei dagozkienak;

- **idatzizko ariketak**, ondo datoz ahoz landurikoa sendotzeko baita ikasitakoa hizkuntzaren sisteman jakinaren gainean ezartzeko ere.

Idatzizkoak, bestalde, diagnostiko gisa ere erabil daitezke: halako ikasleak zer ez duen ongi bereganatu antz emateko, zer neurritan bereganatu duen ikusteko eta araua beste kontestuetara zabaltzeko zenbateraino den trebe neurtzeko... Hitz batean, gramatika puntuen ulermenaren *test* gisa erabil daitezke ariketa idatziok. Lasaiago pentsatzeko astia ematen dutenez, gainera, alde batera gelditzen dira ariketa mintzatuen inguruan gertatzen diren nahasteak, zalantzak eta antzeko trabak.

Txosten honetan ahozko ariketei emango diegu lehentasuna, baina idatziei ere lekua egingo diegu, beren nolakotasun berezia gogoan harturik noski.

## LABUR BILDUZ

- 1.- \* Xede-hizkuntzaren gramatika irakatsi egin behar da; ez ordea formalki, era operatiboan baizik.
  - \* Deskribapen formalera, metamintzaira eta guzti, ezagupen operatiboaren zerbitzuan lagungarri gerta daitekeen neurrian baizik ez da jo behar. Hurrekin, esate baterako, guztiz desegoki gerta daiteke.
  - \* Gramatikaren ezagupen operatiboa gradualki egituraturik lortzen da ongien.
  - \* Irakasleek, metodogileek eta programatzaileek gramatikaren ezagupen formal estua behar dute, beren lana taxuz burutuko badute<sup>17</sup>.
- 2.- \* Gramatika ikateko bide egokiena gehienetan induktiboa bada ere –motibatze eta puntuak fijatze duen indar bereziaren ondorioz–, ez da bide bakarra. Ondoko praktikarako egokien den bidea aukeratu behar da, induktiboa, deduktiboa nahiz tartekoa izan.
  - \* Adina eta beste zenbait faktore ere gogoan hartu behar dira: hurrekin, esate baterako, bide induktibora jo behar da derrigor.
- 3.- \* Gramatikaren irakaskuntzan alderdirik bahinena praktikarena da. Ikas-puntuak ondo eta betean menperatu artean ariketak egiten jardun behar da.
- 4.- \* Hizkuntzen irakaskuntza, ordea, ez da inola ere gramatika ariketetara mugatzen, hauek bide erdiko urratsa baizik ez bait dira: puntu bakoitzerako bestelako aurkezpena proposa daiteke; ariketen ondotik, bestalde, eta hauxe da inportanteena, hizketa askatu eta kreatibora daraman bidea egin behar da, ariketa berezien bidez.
  - \* Gramatika ariketei lekua ukatu gabe ere, al bait lastarren eraman behar ditugu ikasleak komunikazio jokora.
- 5.- \* Hizkuntz irakaskuntzaren beste ariketa asko bezala, gramatika ariketak ere ahoz nahiz idatziz burutu daitezke. Ahozkoak onak dira praktika ugaria burutzeko eta orobat ulermena eta jariakortasuna lantzeko. Idatzizkoak, berriz, ahoz ikasia finkatzeko eta ezagupen testak burutzeko.

17. Ezagutu behar dituzte, orobat, forma linguistiko horiekin hiztunek betetzen dituzten funtzioak.

### III. AHOZKO GRAMATIKA-ARIKETAK: SAILKAPENA

Gramatikaren ezagupen operatiboa lortzeko helburuz hainbat eta hainbat ariketa mota erabil daiteke. Aukera zabala da. Gramatika formak eta egiturak berez ugariak direnez, beraiek lantzeko bideak ere asko dira eta aski diferenteak. Perpausak, esate baterako, errepikatu egin daitezke –eredu gisa harturik– edota aldatu, hitzen bat ordetuz nahiz gramatika legeren baten arabera **transformatuz**; **elkartu** ere egin daitezke bata besteari lotuz –koordinazioa– edo bata bestean txertatuz –subordinazioa–; **osatu**, **laburtu**, **bukatu** ere egin daitezke erdizka baizik emanak ez zirenak; **galde-erantzunetara** bildu daitezke; ama-hizkuntzatik xedehizkuntzara edota alderantziz **itzuli** daitezke; gramatika puntu jakin bati zuzenduriko **solas gidatuak** burutu daitezke...

Amets gaixtoa baizik ez litzateke, beraz, ariketa mota posible guzti-guztien aipamena eta deskribapena egin nahi izatea eta are gaiztoagoa mota guzti horiek sailkapen labur eta koherente batean kokatzen saiatzea. Komeni da, halere, ariketa mota erabilienak ezagutzea eta, besterik ezin bada ere, sailkatze pragmatiko baten arabera zein bere lekuan kokatzea.

Sailkapen diferenteak egin daitezke, noski, bat bakarra ere besteak baino derrigorrezkoagoa ez delarik. Edozein sailkapen, aukera jakin baten arabera eraiakia izango da. Irakasle honentzat, adibidez, **errepikatzeak** ez dirudi berez gramatika ariketen multzoan sar daitekeenik; beste honentzat, berriz, hor sartu behar da zalantzarik gabe eta oso erabilgarria da.<sup>18</sup>

Terminologian ere, agerikoa denez, alde handiak daude: batentzat **hazketa** dena, bestearentzat **ordezkaketa luzatua** da; harentzat **elkarketa dena**, **honentzat konbinaketa** da...

Txosten honetan, egin daitezkeen beste hainbat sailkapeni hobesteko berezko arrazoirik ez dugularik, baina gida gisa marko nagusi bat edukitzea egoki dela pentsatuz, zazpi ariketa mota nagusiz eta hainbat azpimotaz, osaturiko sailkapen pragmatiko hau proposatzen dugu, ahozkoari dagokionez:

18. N. Brooks-ek 12 ariketa mota aipatzen ditu; R. Lado-k 14 mota; Politzer-ek 7; W.M. Rivers eta M.S. Temperley irakasleek 6 mota nagusi aipatzen dituzte, azpimota ugariz hornituak, G. Delattre-ek 7; F. Requedat-ek 4; W.A. Bennett-ek 5; M. Finochiaro eta M. Bonomo irakasleek 13...

	Rivers-Temperley	G. Delattre	Réquédat	Lado	Finochiaro-Bonomo
1. ERREPIKAKETA	A. REPETITION OR PRESENTATION DRILLS	A. RÉPÉTITION	A. RÉPÉTITION <ul style="list-style-type: none"> <li>● Simple</li> <li>● Régressive</li> <li>● Avec addition</li> </ul>	A. LISTENING B. ORAL REPETITION	
2. ORDEZPENA 2.1. bakuna 2.2. anizkuna 2.3. komuntaduraduna 2.4. luzatua 2.5. murriztua	B. SUBSTITUTION DRILLS <ul style="list-style-type: none"> <li>● simple s.d.</li> <li>● double s.d.</li> <li>● correlative s.d.</li> <li>● multiple s.d.</li> <li>● (learning/testing)</li> </ul>	B. SUBSTITUTION <ul style="list-style-type: none"> <li>● simple</li> <li>● multipartite</li> <li>● par expansion ou réduction</li> <li>● corrélation</li> </ul>	B. SUBSTITUTION <b>Sans accord</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>● simple</li> <li>● a double entrée</li> <li>● a triple entrée</li> </ul> <b>Avec accord</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>● simple</li> <li>● a double entrée</li> </ul>	C. ORAL SUBSTITUTION <ul style="list-style-type: none"> <li>● simple s.</li> <li>● simple s. in variable position</li> <li>● s. that force a change</li> <li>● s. that must a changed</li> <li>● multiple s.</li> </ul>	A. SUBSTITUTION B. REPLACEMENT C. PROGRESSIVE REPLACEMENT D. REDUCTION
3. TRANSFORMAKETA 3.1. <b>Arruntak</b> 3.2. <b>Bereziak</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>● txertakuntza</li> <li>● birformulakuntza</li> </ul>	C. CONVERSIONS <ul style="list-style-type: none"> <li>● general conversions</li> <li>● combinations</li> <li>● restatement</li> </ul>	C. TRANSFORMATION	C. TRANSFORMATION <ul style="list-style-type: none"> <li>● Par addition</li> <li>● Par réduction</li> <li>● Les transpositions</li> </ul>	D. TRANSFORMATION E. CONVERSATION PRACTICE I. SYNTHESIS	C. TRANSFORMATION F. INTEGRATION G. RESTATEMENT K. DIRECTED PRACTICE
4. HEDAPEN ARIKETA (ik. 2.4.)	D. SENTENCE MODIFICATIONS <ul style="list-style-type: none"> <li>● Expansions</li> <li>● Deletions</li> </ul>	D. EXPANSION		H. ADDITION EXERCISE	D. EXPANSION
5. BURUTZE ARIKETAK	● Completions	G. COMPLETION		G. COMPLETION EXERCISE	
6. GALDE-ERANTZUN ARIKETA <ul style="list-style-type: none"> <li>● arrunta</li> <li>● erantzun eginak</li> </ul>	E. RESPONSE PRACTICE <ul style="list-style-type: none"> <li>● Question-answer practice</li> <li>● Answer-question practice</li> <li>● Rejoinders</li> </ul>	F. DIALOGUE DIRIGÉ <ul style="list-style-type: none"> <li>● Contradiction (3)</li> <li>● Injonction (3)</li> <li>● Question-reponse</li> </ul>	D. QUESTIONS <ul style="list-style-type: none"> <li>● Répéter le contenu de la question</li> <li>● Les réponses construites</li> <li>● Les réponses ouvertes</li> </ul>	F. QUESTION-ANSWER EXERCISE	M. QUESTION-ANSWER PRACTICE <ul style="list-style-type: none"> <li>● yes/no answer</li> <li>● choose one or the other</li> <li>● patterned response</li> <li>● question-word questions</li> <li>● echo response</li> <li>● free response</li> </ul>
7. ITZULPEN ARIKETA	F. TRANSLATION EXERCISES			J. COMPOSITION	L. TRANSLATION H. PAIRED SENTENCES

1. ERREPIKAKETA
2. ORDEZPENA
3. TRANSFORMAKETA
4. HEDAPEN ARIKETA
5. BURUTZE ARIKETAK
6. GALDE-ERANTZUN ARIKETA
7. ITZULPEN ARIKETA <sup>19</sup>

Ariketa-mota bakoitzaren deskribapena irakurri ondoan aski erraz izango zaio edonori han-hor-hemen, metodoetan eta metodologia saiakeretan, aurki ditza-keen bestela sailkaturiko eta izendaturiko ariketa-motak txosten honetan es-kaintzen direnekin erkatzea eta behar bezala lotzea.

19. Irakurleak non gabiltzan erosoago ikus dezan, egoki iruditu zaigu han-hemen jaso ditugun zenbait sailkapenen kuadro sinoptikoa egitea, geurea ardatz harturik. Ikus 24. or.

## IV. APLIKAZIO OHAR ZENBAIT

Ariketa mota bakoitza deskribitzen eta dagokiokoen erabilgarritasuna aztertzen hasi aurretik, guztientzat balio duten aplikazio ohar batzuk emango ditugu. Ohar hauek gogoan eduki beharko dira beti, bai ariketak aztertzerakoan, bai, batez ere, beraiek ikasgelan erabiltzerakoan.

### IV. 1. GRADAZIO DIDAKTIKOA

Bestelako hizkuntz ariketetan –gaien aurkezpenari eskainiriko elkarrizketa laburretan, ipuintxoetan, eta batez ere komunikazio joko libreagoetan– mailakatzea lazoago bada ere, gramatika-ariketen urratsak ondo neurtzea eta estu mailakatzea noraezekoa dugu. Mailakatu behar horrek, gainera, eta urratsez-urrats ibili beharrak alderdi askori heltzen dio:

–Hasteko, gramatika puntuak berak ondo programaturik eduki behar dira; puntu eta forma bakoitza noiz eta nolako segidan landu behar den ondo jakin behar da. Mailakatze hau gehienetan, metodoek edo programek berek eskaintzen dute. Irakasleak, halere, programa horretaz jabetu egin behar du; aurretik zer eman den gogoan eduki behar du, hartaz baliatu ahal izateko, eta orobat zenbat eta zein hitz ikasi dituen ikasleak. Testuak proposatzen duen mailakatzea aztertu behar du gainera, onartzekotan jakinaren gainean onartzeko eta aldatzekotan zergatik aldatzen duen ondo jakiteko; edota, behar bada, testuak lasaiegi eta jeneralegi proposatu duena zehazteko eta urratsez-urrats lantzeko.

–Ariketak ere programatu behar dira: ikaspuntu bakoitzerako zein ariketa erabili, zer neurritan eta zer-nolako segidan ondo neurtu behar da. Gehienetan errepikaketatik hasiko da, gero ordezenetara, txertaketara etabarretara igarotzeko. Puntu bakoitzak nolako ariketak eta nolako segida eskatzen duen zehaztea ez da beti erraza; dena den eta eritzi nagusi gisa, honako ideia hauek aipa daitezke.

a) Lehenbizi errepikatzea eta imitatzea datoz; gero, ordeztea eta aldatzea; ondoren, zerbait asmatzea eskatzen duten ariketak.

b) Lehenbizi ariketa errazak egin; gero konplejuagoak.

–Ariketa bakoitzaren barnean ere puntuz-puntu ibiltzea hobe da. Demagun, adibide gisa, inesibo singularra landu nahi dugula : morfonologiaren arabera hiru kasu gutxienez baditugu (**gela + AN = gelaN; etxe + AN = etxeAN; zuhaitz + AN = zuhaitzeAN**). Bai errepikaketan, bai ordezenetan bai bestelakoetan ere urratsez-urrats joatea komeni zaigu.

- lehenbizi kontsonantez, edo –au nahiz –eu diptongoez amaiturikoak landuko ditugu, esate baterako, beraiekin perpausak eginaz (**zuhaitzean, autobusean, trenean, gurpilean, ezkerrean, gainean, gauean...**).
- gero bokalez, edo –ai, –ei, –oi, diptongoez, amaiturikoak (**etxean, zinean, kalean, mendian, sukaldean, lehioan, zelaian, garaian...**).
- ondoren –a bokalez amaiturikoak (**gelan, eskolan, tabernan, dendan, goltsan, telebistan...**).
- azkenik denetarikoak nahasian eman daitezke, azken ariketa eta agian test gisa.

Mailakatu behar dira, beraz;  
 – gramatika puntuak  
 – ariketa motak puntu bakoitzerako  
 – ariketa bakoitzaren urratsak

#### IV. 2. ARIKETAREN «PUNTUA»: BAKARRA ETA GARBIA

Ariketa bakoitzaren lehen urratsetan behintzat ikasleak garbi eta erraz «uler-tu» behar du zer dagoen jokoan. Ez da komeni, beraz, hasieratik puntu anitz sartzea ariketa berean; ez nahasi esate baterako forma berri bat, lexiko berria eta egitura berria. Forma gramatikal berria landu nahi bada, adibidez, hobe da alde zurratik erabilitako lexiko ezaguna erabiltzea, ikaslearen arreta erabat gramatika forma berrira erakartzeko.

Iraganeko aditz formak (nintzen, zinen...) irakatsi nahi ditugula? Bil dezagun hartara arreta osoa: lexiko-egiturak ezagunak izan daitezela eta iraganeko forma hauetxek elementu berri bakarra.

-eLA konpletiboa irakatsi nahi dugula? Erabil ditzagun lehenik ikasitako aditzak. «Genekien» ez badugu oraindik irakatsi ez dezagun sartu -eLA lantzeko ariketan. Eta hobe ikasitako aditzekin ere pausoka joatea: **izan**-en presenteko formei erantsita lehenbizi eta beti aditz nagusi berarekin («badaki... -eLA», esate baterako). «Puntua» zein den garbi dago horrela. Gero joango gara ariketa konplejuagotzen, bai perpaus nagusiaren aditza aldatuz, bai perpausa luzeagotuz...

Ariketa bakoitzean, hasieran bederen, puntu bakarra landuko da eta hura izango da ariketaren puntu berri bakarra: gainerako guztia ezaguna izango da.

#### IV. 3. PERPAUSAK AHALIK NORMALENAK ETA KONTESTUAN

a) Gramatika-ariketa hauek berez horren mekanikoak izanik benetako elkar hizketen antz gutxisko dutenez, artifizialtasunean erorarazteko arrisku handia, izugarria, daukate. Ariketaren egitura ondo gordeta ere zentzurik gabeko perpausak, bitxiak, gramatikalak baina arraroak, funts gabek eta abar atera daitezke sarri askotan.

Demagun honako ordezen hau:

gazta	mahai gainean utziko dut			
telebista	»	»	»	»
?kotxea	»	»	»	»
*zola	»	»	»	»
?gazta	zeru gainean utziko dut			

Arrisku larri hori ahal den neurrian behintzat saihesteko, garbi eduki behar da arau nagusi hau: gramatika ariketetan egiten diren perpaus guztiek «normalak» izan behar dute, hots, benetako hizketa batean entzun daitezkeenak. Ez, beraz, perpaus okerrak ez eta zuzenak izan arren «arraro» egiten zaizkigunak ere.

Irakasleak saiatu behar du, zein eredu eta zein hitz akuilu ematen dituen ondo neurtuz, eskaintzen eta eskatzen dituen perpausak, esan bezala, normalak izan daitezen. Eta ikasleari aukera libreagoa ematen dioten ariketetan, honi ere zer dioen ulertuz «zentzuzko» perpausak egin ditzan eskatu behar zaio, inoiz xede-hizkuntzako hitzuneekin komunikatzeko beharko dituenetatik ahalik hurbilen.

b) Ez da egoki, bestetik, perpaus puskak edo zatiak lantzea («mendiko etxea», «mendiko jendea», «mendiko giroa»...; edo «gaur goizean», «gaur eguerdian», «gaur arratsean»...). Esakune osoak landu behar dira, esaldi nominalak badira ere, hitzunek erabiltzen dituzten gisan:

- **Bai**
- **Bai zera!**
- **Joango naiz bai**
- **Oraintxe noa**
- **Ez ni!**
- **Ez nau berehala harrapatuko**
- **Mendiko jendea atsegina da oso**
- **Gaur goizean asko ibili naiz**

Puskak lantzea («mendiko», «amaren», «naiz»...) erabat artifiziale da.

c) Artifizialtasunetik ahal den urrunen ibiltzeko, azkenik, ariketak nolabait kontestualizaturik ematea komeni da. Inondikan ere ez dira beraz, paradigma soilak landu behar («ni ibili naiz», «zu ibili zara»...; edo «etxea», «etxeak», «etxeari»...). Edozein forma lantzen dela ere gutxienez esakun osoetan txertatua eman behar da («mendian ibili naiz gaur», «mendian ibili zara gaur»...). Honi ere ordea, paradigma hutsen lantzea baino normalago eta egokiago izan arren, azkenazkenean paradigma kutsu nabaria dario alde guztietatik; artifiziale da, inork ez bait du horrela hitz egiten.

Hori dela eta, hobe da, ahal den neurrian behintzat, ez bait da beti erraza izango, ariketak interesgune baten inguruan ematea, lexikoari dagokionez, eta hizketa itxuraz jantzia. Goiko adibidea harturik honako ariketa molda daiteke:

- **Mikel mendian ibili da gaur**
- **Eta zu? Mendian ibili al zara zu ere?**
- **Ez, ni hondartzan ibili naiz**

Eta abar.

Adibide horretan, ikusten denez, aditzaren hiru pertsonak lantzen dira, baina paradigma kutsutik ahal den neurrian urrunduz. Helburua hori bait da: ariketa-gramatikalak berez eta ezin bestean daramaten artifiziale zamaz ahalik eta gehien arintzea.



Gramatika-ariketak aski mekaniko eta artifizialak dira. Horretaz ahalik eta gutxien kutsatzeko:

- perpaus «normalak» egin
- esakune osoak egin
- perpausak kontestuan txertaturik eman
- perpausari dagokion doinuera errespetatu.

#### IV. 4. KONTRASTEAK ETA OPOSIZIOAK BEREZIKI LANDU

Gramatikaren edozein puntu landu daiteke, berez, ondoren azalduko ditugun ariketak erabiliz. Batera edo bestera denak, edo gehientxuenak bederen, sar daitezke ariketa hauen moldeetan.

Puntu horiek, ordea, ezin dira bakarka landu. «Mendira joan naiz» hamar edo ehun aldiz errepikatzeak gutxi balio du, aurkezpen hutserako ez bada. Sistemaren barnean duten lekua garbiago azaltzeko puntu berean biltzen diren perpusen multzoa eman beharra dago (–ra morfemaz ari garelarik, **mendira, etxera, zine-ra, kalera** eta abar emanaz jasoko da formaren legea) edo, ia hobeto, zenbait oposizio nabarmendu (**joan naiz / joan zara; noa / joan naiz / joaten naiz / joango naiz...**). Garbiago agertuko da horrela forma edo egitura bakoitzaren lekua. Ikasleak, formalki edo ez, arauen generalizazio batzuetara iritsi behar du.

Gramatika ariketak prestatzerakoan, irakasleak helburu eta ikuspegi diferentek izan ditzake:

a) ariketa, hizkuntza barruko **oposizio** baten inguruan molda dezake (aditz burutua/ez burutua; singularra/plurala; erlatibo sustantibatua/ez sustantibatua; adbertsatiboa/kontzesiboa...). Oposizio hauen bidez ikaslea hizkuntzaren sistemaz operatiboki jabetzen joango da. Ariketa mota batzuk, noski, geroxeago ikusiko dugunez, erosoagoak dira horrelako oposizioak nabarmentzeko besteak baino.

b) ariketa, baitare, ama-hizkuntza eta xede-hizkuntzaren arteko kontraste baten inguruan molda dezake, hura azpimarratzeko hain zuzen:

Gaztelaniaz ez da aditzen objetoaren pluraltasuna markatzen, egin dezagun beraz dut/ditut oposizioa lantzen duen ariketa bat; gaztelaniak ez du ergatiborik, egin dezagun **Kepa/Kepak** oposizioa lantzen duen ariketa; erlatiboaren ordena gaztelaniarena ez bezalakoa da, egin dezagun beraz **erlatiboa + izena** egitura nabarmentzen duen ariketa; zati-zehargaldera gaztelaniaz ez da markatzen –«no sé donde vive»– eta euskaraz bai, egin dezagun beraz horrelako zehar-galderetan **-eN** morfena markatzeko –«**ez dakit non bizi den**»– ariketa berezia.

Ariketa gramatikalek beraz balio dute, besteak beste:

- arau bat dagokion perpaus multzo batez nabarmendu eta lantzeko.
- oposizio bat markatuz hizkuntz sistemaz ohartaraziz berau lantzeko.
- kontraste bat markatuz ama eta xede-hizkuntzen arteko aldeez ohartaraziz bigarrena egokiago lantzeko.

#### IV. 5. IKASLEAK ZERTAN ARI DEN «ULERTU» EGIN BEHAR DU

Gramatika ariketen helburua ezagupen eraginkorra lortzea bada, ikasleari ez zaio hainbeste axola ikasten ari den puntuaren inguru guztia zehatz-mehatz ikustea. Hobeto arituko da ikaslea, halere, egiten duena zertan datzan ohartzen bada.

Hasteko, noski, entzun eta esaten dituen perpausen esanahia ondo ulertu behar du. Ulertu gabeen errepikatze soila ez da formak ikasteko eta ohiturak sortzen joateko balio handiegikoa eta ikaslea, bestetik, aspertu eta alferrik nekatu egiten da horrela. Ondo neurtu behar da beraz, eta zehazki prestatu, ariketetan erabiliko den lexikoa. Gutxi balio du, esate baterako, honako ordezkaketa honek:

- hirira noa
- auzora noa
- jatetxera noa
- antzokira noa
- eta abar

ikasleak hiri, auzo, jatetxe eta antxoki ezagutzen ez baditu.

Bestetik ikasleak, formalizaturik nahiz gabe –hori adinaren gorabehera ere bada– zer egiten ari den ulertu egin behar du. Goiko kasuan esaterako «nora» esaten ari dela ikusi gabe nekeza egingo zaio gramatika morfema hori bereganatzen eta, beharrezko duenean, antzeko hitz eta situazioetara pasatzen (**etxera, dendara, mendira**, beraz **zina**, **gelara...**).

Zertan ari den ikusiz, bestalde, ikaslearen motibapen intrinsekoa indartu egiten dugu: zer ikasi duen garbi jakinik eta hartaz baliatzeko gai egiten ari dela ohartzuz, bidean aurrera egiteko gogoia biziagotu egingo zaio.

Gramatika puntuak hobeto bereganatu eta ohiturak sendoagotzeko:

- entzuten eta egiten dituen perpausen esanahia jaso egin behar du ikasleak.
- ariketaren «puntuak» zein den, batera edo bestera, ikusi egin behar du.

#### IV. 6. OHAR LABURRAK

**Prestatu beharra.** Ariketa hauek ezin dira normalean une batetik bestera asmatu eta egin. Zenbait gauza aldeztu aurretik zehaztu eta prestatu beharra dago, hala nola landu beharreko puntuak zein den, nola landu, erabiliko den lexikoa, perpausak, hitz akuiluak eta abar...

Gehienetan metodoek eskaintzen dituzten ariketen ondoan osagarri eman beharko ditu ikasleak gramatika ariketok, zenbait hutsune betetzeko, puntu ahulenak sendotzeko... Zerbaitetarako balio badute, ordea, ondo programatu, prestatu eta burutu egin behar dira. Totelka eta koherentziarik gabe arituz gero, hauek baino aribide hutsalagorik ezin da hizkuntzen irakaskuntzan asmatu.

**Bizitasuna.** Ariketa hauek zerbait baldin badute on eta aldeko, denbora laburrean praktika zabala egin daitekeela da batetik eta ikaslea akuiluari nahiko laster entzuten ohitzen dela bestetik. Horregatik bai irakasleak eta bai ikasleek ere arin eta bizi eraman behar dute ariketa. Irakasleak prestatu eman behar ditu, buruan edo agian hobeto idatzirik, eskainiko dituen ereduak, hitz akuiluak eta abar.

Ariketa hauek ez dira luzeegi egin behar. Eskatzen duten denbora labur hori bizi-bizi eta ikasleen arreta ernai irauaraziz burutu behar dira. Klasearen zati bat edo beste eskain dakieke honelako ariketei, gainerako denbora bestelako lanetan ematen delarik.

**Aldaketak.** Ariketa motaz behar adina eta behar bezain laster aldatzea da bizitasunak eskatzen duen beste zerbait. Ez da luzeegi ez gehiegitan ere ariketa mota bera egin behar. Puntu bat menderatua dagoela ikusi orduko, bestelako ariketetara, komunikazio saioetara, irakurgaietara, kontakizunetara eta abarretara pasa dehar da, puntu horretara, hurrengo egunetan berrikusteko edo ez bada behintzat, berriro jo gabe.

Ez ahaztu hau trebatze lan soila baizik ez dela.

**Denbora laburra.** Ariketa hauei denbora laburra eta neurtua eman behar zaie, kontua ez bait da klaseko ekintza guztia horretara edo ia horretara bakarrik mugatzea. Ariketa gramatikal hauetako bakoitzean hamar-hamabi perpaus osatzea aski da. Eta ariketa batzuk egiten zenbait minutu eman ondoan, hobe da beste zerbaitetara pasatzea.

Hurrengo klaseetan berriro proposa daitezke, nahi izanez gero, antzeko ariketak, errepikatzean bait dago ariketa hauen funtsa, baina klase-ordu berean ez da komeni horrelako zama astuna erastea ikasleei.

**Ikasleei eskuhartze zabalena eskaini.** Erne egoten ez bada, irakaslea bera bilaka daiteke ariketa hauen protagonista nagusi: ordenak berak ematen ditu, ereduak ere berak eskaintzen ditu eta hitz-akuiluak ere berak. Honek zera dakar: ikasgelan 30 ikasle badaude, ikasle bakoitzak perpaus bat esan orduko, irakasleak 30 edo gehiago esan dituela.

Zaila da hau konpontzen, baina ahal den neurrian behintzat, irakaslearen protagonismo handiegia mugatzen saiatzea komeni da. Ariketen agitura, gehienetan, hau da:

IRAKASLEAK: eredu 1

Ikasleak/ek: » errepikatu

IRAKASLEAK: eredu 2

Ikasleak/ek: » errepikatu

IRAKASLEAK: eredu 3

Ikasleak/ek: » errepikatu

IRAKASLEAK: perpausa + akuilua

Ikasleak/ek: perpaus berria

IRAKASLEAK: perpaus berria + akuilua

Ikasleak/ek: perpaus berria

Eta horrela 10-12 perpaus osatu arte.

Sistemak, ordea, diferenteak izan daitezke; ikasleei praktika ugariena emateko egokiena zein den, hura aukeratu behar du irakasleak. Hona ariketak burutze-ko beste molde posible batzuk:

a) IRAKASLEA --- TALDE OSOA

b) IRAKASLEA --- TALDE OSOA (hasieran)

IRAKASLEA --- BAKARKA (gero)

- c) IRAKASLEA --- IKASLE A  
   IKASLE B  
   IKASLE C  
   IKASLE D

akuilu bakoitzari ikasle batek baino gehiagok segidan eta arin erantzuten diotelarik

- d) IRAKASLEA --- IKASLEA (hasieran)  
   IKASLEA --- IKASLEA (gero)

Ikasle batek hartzen du irakaslearen papera. Hau bi eratara egin daiteke:

- IKASLE A --- IKASLE B
  - IKASLE A --- IKASLE C
  - IKASLE A --- IKASLE D
- eta abar.

Edota batak besteari, kate eginaz:

- IKASLE A --- IKASLE B
  - IKASLE B --- IKASLE C
  - IKASLE C --- IKASLE D
- eta abar.

e) TALDETAN banatu eta bakoitzean arduradun bat ipini.

f) TALDETAN banatu eta ariketa «kate» gisa burutu.

g) BINAKA banatu.

Ondoko ataletan, ariketa mota bakoitza deskribitzerakoan, gauzak errazteko, irakasle-ikasle egitura baizik ez dugu aipatuko. Garbi gera bedi, ordea, bestela ere egin daitezkeela ariketa horiek eta sarri askotan gainera bestela egitea komeni dela.

Taldeka errepikatzeak, adibidez, oso errazten ditu hasierako urratsak. Atzertuenak eta lotsatienak ere lasaiago murgilduko dira beren lanean. Bakarkako lana ere noraezekoa da, ordea, bai bakoitzaren aurrerapenak eta okerrak neurtzeko eta baita lan pertsonala eragiteko ere.

**Ordenak, ereduak eta hitz akuiluak garbi eman behar dira.** Edozein ariketaren abiapuntuan berean zer egin nahi den garbi adierazi behar da, ahal bada xede-hizkuntzan, eta era formalizatuan («Eman pluralean», «Eman iragan burutuan», «Lotu perpausak», «Eman ezetz», «Erantzun baietz») edo ez horren formalizatuan («Nik gauza gutxi, zuek asko», «Nik gaur, zuek atzo», «Nik perpausa bi puskatan, zuek batean»..

Ordena eman ondoan beti ere eredu pare bat edo gehiago eskaini behar ditu irakasleak, ikasleek ariketaren «puntuak» zein den garbi ikus dezaten.

Adibidez:

IRAKASLEAK: «Eman pluralean»

**Egunkaria erosi dut**

**Egunkariak erosi ditut**

IKASLEAK (errepikatuz): **Egunkariak erosi ditut**

IRAKASLEAK: **Atea itxi dut**

**Ateak itxi ditut**

IKASLEAK (errepikatuz): **Ateak itxi ditut**

IRAKASLEAK: **Eskua garbitu dut**  
**Eskuak garbitu ditut**

IKASLEAK (errepikatuz): **Eskuak garbitu ditut**

IRAKASLEAK: **«Eta orain zuek»**  
**Zapata puskatu dut**

IKASLEAK: .....

Zenbait ariketatan –ordezpenetan, esate baterako– ordena eta ereduez aparte irakasleak hitz akuiluren bat ere eman behar du. Hau, jakina, garbi eta leku egokian eman behar da, hots perpausa eman ondoan eta ez aurretik, burua alferrik nekatzea bait litzateke hura gogoan gordetzea, perpausari arreta jartzen zaion bitartean. Ondotik, beraz, eman behar da akuilua:

IRAKASLEAK: **Bihar, behar bada, mendira joango naiz**  
**Zinera**

IKASLEAK: **Bihar, behar bada, zinera joango naiz**

Edota:

IRAKASLEAK: **Zer esan du Mikelek?**  
**Berandu da**

IKASLEAK: **Berandu dela esan du Mikelek**

Edota:

IRAKASLEAK: **Ordua da. Bazkaltzera noa**  
**Klasera**

IKASLEAK: **Ordua da. Klasera noa**

Ahal den neurrian behintzat, eta ariketa motak –itzulpen ariketak, adibidez– besterik eskatzen ez badu, bai ordena eta bai hitz akuiluak xede hizkintzan eman behar dira.

**Ariketen hezurdura eta erabiltze konkretuak.** Ondoko ataletan ariketa mota bakoitza azaltzeari ekiten diogunean ez ditugu inola ere ariketok hezur eta mami azken xehetasun eta ñabarduretan aurkeztuko. Hezurdura baizik ez dugu emango, hau da, ariketa bakoitzaren gramatikarekiko baliagarritasunen aurkezpen zabala baizik ez dugu egingo. Ariketa bera nola gauzatu, ikasleen adinari eta jakintza mailari egokitzuz nola jantzi, haurrei begira joko itxuraz nola hornitu eta abar ez da hemen azalduko.

Galde-erantzun ariketa, esate baterako, asmakilo gisara aplika daiteke, lehia-keta gisa eta abar, baina hori, esan bezala, ez dugu hemen azalduko.

## LABUR BILDUZ

- Ariketak ondo prestaturik eraman behar dira; ereduak, hitz akuiluak eta abar.
- Ariketak bizi eta azkar egin behar dira, tentsioa lasaitzen utzi gabe.
- Ariketa motaz sarri aldatu behar da.
- Klase barnean denbora laburra, bizpahiru ekitaldi labur gehienez ere, eskaini behar zaie ariketa hauei.
- Ahal den neurrian, irakaslearen parte hartze handiegia mugatu egin behar da, ikasleei ahalik eta praktika ugariena emanaz.
- Ordenak, arauak eta hitz akuiluak garbi eman behar dira.
- Ariketen mamitze konkretua, irakaslearen esku dago.



## **2. ATALA: AHOZKO ARIKETAK**





# I. ERREPIKAKETA

## I. 1. ARIKETAREN DESKRIBAPENA

Hau da egitura-ariketa guztien artean elementalena. Gramatika egiturak eta arauak aurkezteko balio dezake: irakasleak ikaspuntuari dagozkion esaldiak esan eta ikasleei dagozkien doinuera, ritmo eta azentuaz errepikarazten die.

Perpausak, noski, banan-banan esan eta errepikarazi behar dira.

Errepikaketa modu askotara egin daiteke: a) taldeka, ikasle guztiei batera errepikaraziz; b) irakasleak esan, ikasle batek errepika, irakasleak berriz perpaus bera esan eta beste ikasle batek errepika...; c) irakasleak perpausa behin esan eta ikasleek batak bestearen ondoan errepika; d) Galde-erantzunak direnean, klasea bi zatitan banatu, batek galdera errepikatuz eta besteak erantzuna... Errepikaketa-  
ren era konkretua irakasleak erabaki beharko du.

Errepikatu behar den eredia ere era diferentetara eman daiteke: irakasleak berak ahoz, magnetofonoz edo arbelean idatzita. Azken era honetara egiten dutenek arbelean perpaus edo dialogotxo osoa idazten dute. Eta gero, poliki-poliki, errepikatu ahala, perpausak edo perpaus zatiak ezabatzen doaz ikasleek irakurri gabe errepika dezaten arte.

Askok honi AURKEZPEN ARIKETA OROKORRA esaten diote, ikaspuntuak aurkezteko balio duelako batetik eta edozein egituratarako, hots, ez bereziki egitura baterako, balio duelako bestetik.

Ariketa mota hau, azkenik, ikaspuntu jakin bat lantzeko lehen ariketa eta abiapuntua baizik ez da: honen ondoan eta ikaspuntu beraren zerbitzuan beste ariketa asko egin beharko dira.

## I. 2. ADIBIDEAK

Bestetarako ere egokia da noski ariketa mota hau, baina zenbait oposaketa nabarmentzeko ez da batere txarra. Horregatik, oposaketaren bat argi dezaketen adibide batzuk emango ditugu:

a) Eman dezagun absolutuaren eta ergatiboaren arteko oposaketa nabarmentu nahi dugula. Orduan elkarren ondoan, hutsean nahiz irudizko apoiaturan, bi motetako perpausak eman ditzakegu, bakoitza errepikaraziz:

- Gela ilun dago
- Koldok argia piztu du
- Gero, Koldok atea ireki du
- Eta ama gelan sartu da

- «Ea, eskolara!», esaten du amak
  - Baina Koldo jantzi gabe dago
  - Koldo presaka hasten da jazten
  - «Ez, mote! –esaten du amak– gaur igandea da»
- Eta abar.

Ariketa hau, ikasleen mailak horrela eskatuko balu, xeheki mailakatuta eman daiteke, ariketa bakoitzean puntu bakarra landuz:

- 1) Lehenbizi izen bereziak:
  - bokalez (Ane – Anek)
  - kontsonantez (Mikel – Mikelek)
- 2) Gero izen arruntak singularrean:
  - kontsonantez (**laguna-lagunak**)
  - bokalez (**semea – semeak**)
  - a bokaleaz (**ama – amak**)
- 3) Gero izenordeak: (**hau – honek, hori – horrek, hura – hark**)
- 4) Gero izen arruntak pluralean: (**mutilak– mutilek**)  
(**hankak – hankek**)

Eta abar.

Denak nahasian ere eman daitezke, batez ere errepasorako aurkezpena denean.

Ariketa honen helburua zera da: ikaslea aditz batzuk sujeto mota bat eta besteak bestea eskatzen dutela ohar dadila eta ondo erabiltzen ohitu.

b) Demagun objeto singularreko eta objeto pluraleko aditzen arteko oposaketa nabarmendu nahi dela. Honako perpausok edo antzekoak errepikaraz daitezke banan-banan.

- **Mikel, hartu duzu jertsea?**
- **Bai, ama, hartu dut**
- **Eta frakak hartu dituzu?**
- **Bai, hartu ditut**
- **Aurpegia garbitu duzu?**
- **Oraintxe garbitu dut**
- **Eta eskuak ere garbitu dituzu?**
- **Baitare!**

Hemen orainaldiko adibideak eman ditugu. Ariketa mota bera egin daiteke beste denboretako aditzak lantzen hasterakoan.

c) Euskal egituren arteko oposaketak azpimarkatzeko ezezik, gaztelaniarekiko kontrasteak nabarmentzeko ere balio dezake aurkezpen ariketa honek:

1) Genitiboaren lekua nabarmentzeko ondoko perpausak edo antzekoak eman daitezke banan-banan ikasleei errepikaraziz:

- **Mikel eta Leire, Olatzen etxera joan dira jolastera**
- **Baina suerte txarra izan dute**
- **Mikelen baloia puskatu egin da**
- **Leireren bizikleta hondatu egin da**
- **Eta Olatzen panpina hautsi egin da**
- **Jostailurik gabe, zer?**
- **Amonaren etxera joan dira!**

Eta abar.

2) Edo gauza bera erlatiboaren ordena (gaztelaniarena ez bezalakoa) azpimarkatzeko:

- **Mikel tabernara joan da, bazkaltzera**
- **Aukeratu duen ardoa ez zen oso ona**

- Baina ekarri dioten zopa ona zegoen
- Eta jan duen haragia samurra
- Eskatu duen postrea, berriz, oso goxoa
- Pozik atera da

Edo:

- Mertxe dendara joan da, jertsea erostera
  - Mahai gainean zeudenak itsusiak ziren
  - Probatu duena txikiegia zuen
  - Dendariak ekarri duena, handiegia
  - Eta gustatu zaiona garestia zen
  - Ez da oso pozik atera
- Eta abar.

### I. 3. ARIKETA HONEN XEDEAK

Ariketa mota honek azalpen gramatikalen lekua hartzen du neurri batean eta indartsuago betetzen. Ikaspuntu gramatikala berezko inguru linguistikoan txertaturik, hau da perpaus modura, aurkezten da. Ikasleek, horrela, belarriz jasotzen dute adibideek argitzen duten egitura edo egituren arteko oposaketa eta, belarriz jaso ondoan, berezko inguruan, perpausuan txertaturik, errepikatzen dute, gauzak hobeto ulertuz eta sakonago bereganatuz.

Eta euskara mintzatuaz ari garenez, ariketa honek alderdi prosodikoak ere lantzeko balio duela esan dezagun.

### I. 4. APLIKAZIO OHARRAK

Gogoan hartu behar da ariketa hau aurkezpen bat baizik ez dela, ikaspuntu bat lantzerakoan hasieran egitekoa edo bereziki nabarmendu nahi den zerbaiten atarian eskaintzekoa.

Oso denbora laburrean burutu behar da!

Artifiziala gerta daiteke, ez bait dago ikasleen egoeran txertatuta. Bestetik erabat mekaniko bilaka daiteke eta ikasleek perpausak zertaz ari diren ere oharzteke errepika ditzakete. Askotan esanahiaz ere arduratu gabe errepika ditzakete eta berdin-berdin izango zaie, nor-zer aditza lantzen ari direla esate baterako, autobusak ardoa idatzi du edo antzeko alrebeskeriak esatea.

Neketsu gerta daiteke, ikaslea erabat pasibo eta berritasunik gabeko ekintzetan ari delako.

Horregatik, beraz, ariketa laburra behar du izan eta oso ritmo azkarrez eramatekoa.

Joko itxuraz ere jantzi daiteke. Ikasleei zera esaten zaie: errepikatuko dituzten perpausen artean bat badela erabat traketsa; ea nor ohartzen den. Gisa horretara, ariketa ez da horren mekaniko eta zer errepikatzen duten ondo gogoan izango dute. Irakasleak, berriz, egokien iruditzen zaion momentuan hankarik gabeko perpausa, gorago eman dugunaren antzekoa, botako du ea nor konturatzten den. Arreta biziagoa gorde daiteke horrela.

Perpausak, noski, bere doinuera normalean eman behar dira eta ikasleei horrela errepika ditzaten eskatu, ariketa hau izan ere, lehentxoago esan dezala, alderdi prosodikoak ere lantzeko erabil bait daiteke.

Errepikatu behar den perpausa luzeegia denean, multzo foniko egokitan zati daiteke eta errepikaketa atzekoz aurrera burutu, azkenean perpaus osoa eman ahal izateko.

Demagun, esate baterako, **zapatak erosi nituen atzo zure dendan** perpausa errepikarazi nahi dugula eta luzeegia iruditzen zaigula. Horrela egingo genuke errepikatzearen prozesua:

	<b>zure dendan --- errepikatu</b>	
	<b>atzo zure dendan ---</b>	<b>»</b>
	<b>erosi nituen atzo zure dendan ---</b>	<b>»</b>
	<b>zapatak erosi nituen atzo zure dendan ---</b>	<b>»</b>

Adinaren arabera, noski, ariketa burutu ondoan azaldu nahi zen ikaspuntua espresuki alzal daiteke. Inportanteena zera baita: ikasleek egitura ulertzea eta erabiltzen abiatzea.

## I. 5. EUSKARARAKO APLIKAZIOAK

**Prosodia** mailan doinuera lantzeko arabil daiteke, esate baterako ondoko lau perpaus moten arteko aldea nabarmentzeko:

**Iritsi da trena**  
**Iritsi da trena?**  
**Iritsi al da trena?**  
**Iritsi da trena!**

**Fonologia** mailan fonema batzuen ebakera lantzeko:

- **hori zaharra da**
- **hori txarra da**
- **hemen hasi da**
- **hemen hazi da**
- **hortza hortxe erori zait**  
**eta abar.**

**Morfosintaxi** mailan

a) Zenbait oposizio nabarmentzeko. Esate baterako, aditzaren aspektu denborak (**orain nator; lehen etorri naiz; beti etortzen naiz; bihar etorriko naiz**); edota baieztoko eta ezeztoko perpausen arteko aldea (**Mikel etxera joan da; Mikel ez da etxera joan**).

b) Gaztelaniak ez dituen oposizioak nabarmentzeko. Esate baterako; ergati-boa/absolutua; objeto singularreko aditza/objeto pluralekoa; zer-nork eta zer-nori-nork aditza eta abar.

c) Gaztelaniarekiko beste zenbait kontraste nabarmentzeko. Esate baterako, izen sintagmaren ordena (I1 + I; gaztelaniaz I + I1); perpausaren ordena (SOV --- SVO); erlatiboarena, konparatiboena...

Ikasketak aurreratu samarrak eduki arren, jostura zailak aurkezteko balio dezake arin eta labur egin behar den ariketa honek: konparazioaren ordena, adibidez, ikasleei nahikoa kostatzen zaienez, ez da gaizki hori landu bitartean egunero bospasei perpaus konparatibo errepikaraztea.

**Nere ama zurea baino gazteagoa da**  
**Aurten igaz baino hobeto ibili gara**  
**eta abar.**

zure dendan --- errepikatu  
atzo zure dendan --- »  
erosi nituen atzo zure dendan --- »  
zapatak erosi nituen atzo zure dendan --- »

Adinaren arabera, noski, ariketa burutu ondoan azaldu nahi zen ikaspuntua espresuki alzal daiteke. Inportanteena zera baita: ikasleek egitura ulertzea eta erabiltzen abiatzea.

## I. 5. EUSKARARAKO APLIKAZIOAK

**Prosodia** mailan doinuera lantzeko arabil daiteke, esate baterako ondoko lau perpaus moten arteko aldea nabarmentzeko:

**Iritsi da tren**

**Iritsi da tren?**

**gustatzen zaizkit...**

Funtzio lanketan perpauson errepikatzea izan daiteke lehen urratsa.

## II. ORDEZPENA

### II.1. ARIKETAREN DESKRIBAPENA

Ordezkatze-ariketa hau era askotara egin badaiteke ere, denak mekanika berberari jarraitzen zaizkio: teoria alde batera utziz eta aplikazioari begira, perpausa segmentu zenbaitez osaturiko katea dela pentsatzen badugu eta segmentu bakoitza gune bati dagokiola gogoan hartzen badugu, ariketaren mekanika erraz ulertuko dugu. Hau, izan ere, gune bakoitzari dagokion segmentua ordezkatzean datza.

Demagun honako perpaus hau:

<b>Mikel</b>	<b>gaur</b>	<b>zinera</b>	<b>joan da</b>
<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>

Gune bakoitzean segmentu mota berezia sar daiteke: 1.ean, esate baterako, Mikel, Lurdes, ama, nere osaba, zure lagun berria... sar daitezke; 3.ean zinera, dantzara, tabernara, eskolara... eta abar<sup>22</sup>.

Ariketak, beraz, horixe baizik ez du eskatzen: gune jakin bat betetzen duten elementuak ordezkatea, perpausaren edukin semantikoa aldatuz, baina egitura gramatikala gordez. Ikasleari segmentu bat edo beste alda dezala eskatzen zaio, segmentu berria eta aldatua klase berekoak direlarik: aditzaren gunean aditza, izenaren lekuan izena eta adjetiboaren ordezkari adjetiboa eta abar...

Zenbaitetan, komunztadura dela medio, gune bateko elementuaren aldaketak beste gune batekoa ere eskatzen du. Goiko adibidean, 2. gunean **gaur** eman beharrean atzo ematen badugu. 4.ean joan da esan beharrean **joan zen** eman beharko litzateke. Eta 1.ean **Mikel eta Arantza** esaten badugu, 4.ekoan **joan dira** eman beharko genuke eta abar.

### II.2. ORDEZPEN BAKUNA: ADIBIDEAK

Ordezpen bakuna elementu bakarra aldatzen duenari esaten zaio. Zer landu nahi duen ondo mugatu ondoren, irakasleak eredu batzuk ematen ditu, ordezkatu beharreko elementua zein den azpimarkatuz. Gero ikasleei ordezpenarekin jarrai daitezkeen eskatzen die.

22. Hemen erosotasunari begira, perpaus horretan **joan** aditzak aldaketa gutxi uzten duenez, **joan da** gune bakartzat hartu dugu. Baina bi direla ere onar daiteke. Honako perpaus honetan esaterako: **Mikelek/gaur/kotxea/erosi/du**. Hor, izan ere, erosi-ren ordezkari **hartu, garbitu, ordaindu, eraman** eta abar eman daitezke.

a) Demagun **x nahi dut** egitura nahi dela. Irakasleak **ogia nahi dut** perpausa ematen du; gero, aldaketa nabarmenduz, honako hauek ematen ditu eredu gisa:

- **ura nahi dut**
- **sagarra nahi dut**

Ondoren, irakasleak hitz akuilua eman eta ikasleek ordezipena egiten dute:

IRAKASLEAK: **dirua**

IKASLEAK: dirua nahi dut

IRAKASLEAK: **baloia**

IKASLEAK: baloia nahi dut

IRAKASLEAK: **jertsea**

IKASLEAK: jertsea nahi dut  
eta abar.

Eta adjetiboak landu nahi badira, ereduak eman ondoan:

IRAKASLEAK: Fraka gorriak jantzi dituzu?

IRAKASLEAK: **zuriak**

IKASLEAK: Fraka zuriak jantzi dituzu?

IRAKASLEAK: **berriak**

IKASLEAK: Fraka berriak jantzi dituzu?  
eta abar.

Edo adizki nagusiak:

IRAKASLEAK: Gaur berandu etorri gara

IRAKASLEAK: **iritsi**

IKASLEAK: Gaur berandu iritsi gara

IRAKASLEAK: **esnatu**

IKASLEAK: Gaur berandu esnatu gara

IRAKASLEAK: **jaiki**

IKASLEAK: Gaur berandu jaiki gara  
eta abar.

### II.3. ARIKETA HONEN XEDEA

Ariketa honen bidez, ikasleek egituren ezagupena eta berauek erabiltzeko trebetasuna lortzen dituzte, edo bederen lortzeko bidean jartzen dira. Gune baten elementuak aldatzeak, gune horretarako balio duen hitz klasea ezagutarazten dio ikasleari batetik, baita perpausa osatzen duten elementuen mugak ere bestetik.

Helburu nagusia, ordea, betikoa da: egitura bat erabiltzen ohitzen joatea, egitura horrek beharrezko dituen elementuak neke handirik gabe hautatu eta lotzeko trebe bilakatzea.

### II.4. APLIKAZIO OHARRAK

Hemen beste inon baino areago behar da ulertzearen araua: erabiltzen den lexikoa ezaguna izan dadila, edo bestela oso argi adierazia.

Ariketa prestatzerakoan ondo jakin behar da zein den helburu zehatza: egituren bat praktikatzea, egiturari dagokion lexikoa lantzea, morfemaren baten erabilera sendotzea, aditz forma baten errepikatze kontestuala... Helburu zehatz

horren arabera prestatu behar dira ereduak, hitz akuiluak, hauek adierazteko moduak eta abar.

Ordeztu beharreko guneari dagokionez, anbiguitasunak baztertu egin behar dira. Honako perpaus honetan, adibidez:

<b>Mikelek</b>	<b>neska</b>	<b>agurtu du</b>
<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>

«mutila» ezartzea eskatzen badugu, non ezarri behar da, 1.gunean ala 2.ean?

Azalpenaren erosotasunari begira, elementu ordezkagarria aski sinplea hautatu dugu goiko adibideetarako, baina hitz bakarreko edo hitza + morfema duen elementua ezezik sintagma beteagoak ere izan daitezke ordezkatzeko aproposak.

Adibidez:

**Ama etorri dela badakit**  
**Ama erori dela badakit**  
**Ama haserretu zela badakit**  
**Koldo joan dela badakit**  
**eta abar.**

Edo:

**korrika dabilena, nere anaia da**  
**hor datorrena, nere anaia da**  
**eserita dagoena, nere anaia da**  
**oraintxe sartu dena, nere anaia da**  
**eta abar.**

Horrelakoak, jakina, kurtsoa(k) aurrera ahala batez ere aplikatu beharko ditugu, hasieran eredu sinpleagoak erabiltzen ditugularik.

Ariketa hau bi eratarata, gutxienez, egin daiteke: a) hitz akuilua emanaz, hau da, sartu beharreko elementua hitzez, idatziz, irudiz edo bestela emanaz; b) hitz akuilurik gabe, hots, ordezkaga-gunean zein hitz edo elementu sartu ikasleen aukeraz utziz.

#### a) **Era gidatua**

Emandako ereduak ikasleek jaso dituztela ikusi ondoren, ariketa taldeka nahiz banaka egin dezatela eskatuko die irakasleak, berak emandako hitza erabiliz.

Hitz akuilua emateko, hau da, zein hitz erabili behar duten adierazteko sistema diferenteak daude:

- hitzez (hitza ezaguna baldin bada)
- irudien bat seinalatu hutsez (hitza ezaguna bada)<sup>23</sup>
- hitzez esanik eta aldi berean irudiren bat (arbelean egina, muralen batekoa, postala...) seinalatuz
- arbelean edo orri batean idatzia emanda

#### b) **Era librea**

Askotan lexiko berririk sartzen ez zaielako, edo ariketa honen bidez zeharka beste zerbait sendotu nahi delako, ikasleei aukera librea uzten zaie.

Demagun ikaskai batean **dezaket** forma ikasi dela eta irakasleak forma hori, beti kontestuan, esan arazi nahi diela ikasleei. Orduan, eredu eman ondoren

23. Taldeka egiten bada, taldearen erdian txartel batzuk utziz egin daiteke. Ikasleak txartel bat jaso eta han irudikatzen den hitza da ordezkaga-gunean sartu behar dena.



–**kotxea ekar dezaket**, adibidez– besterik gabe **kotxe**-ren ordez beste hitz bat eman dezatela eska dakieke ikasleei, hitza beraiek aukera dezatela esanez.

## II.5. EUSKARARAKO APLIKAZIOAK

a) **Lexikoa** ikasteko erabil dezakegu ariketa mota hau.

Hitzak erabiliaren erabiliaz ikasten dira normalean, ez zerrenda batean ikusi hutsez edo behin bakarrik entzunez. Aurrez planifikaturiko ariketetan hitz bat behin eta berriz entzun eta esan arazten badiegu ikasleei, errezago bereganatuko dutela pentsa dezakegu.

Hori dela eta, hitzak ez nolana, eritzi jakinen arabera sailkaturik baizik, eman daitezke.

Eman dezagun, esate baterako, hitzak interesgune batzuen arabera bildu ditugula. Hitz horien inguruan era daitezke ariketak.

Adibidez: janarien munduan hartuz, **ogia, haragia, arraina, tortila, zerra, sagarra, udarea, mahatsa**, eta abar landu nahi ditugu. Egun batean honako ereduaren inguruan eman ditzakegu:

**Gaur ogia jan dut** (eta ogia ordezkatzuz, **haragia, arraina**, eta abar sartu).

Hurrengoan:

**Ogia ekarri duzu?** (eta ogia ordezkatzuz, **haragia, arraina**, eta abar sartu).

Hurrengoan:

**Ogia ez da garestia** (eta ogia ordezkatzuz...)

Horrela lexiko hori bereganatzera eta barneratzera iritsiko da ikaslea.

Eta, beste adibide bat emateko, eguneroko ekintzen aditzak landu nahi ditugu: **zikindu, garbitu, puskatu, konpondu, erosi, saldu, eraman, ekarri**, eta abar.

Egun batean honako eredu hau eman dazakegu:

**Zapatak zikindu ditut** (eta **zikindu** ordezkatzuz, **garbitu, puskatu** eta abar sartu).

Hurrengoan:

**Mikelek baloia zikindu du** (eta **zikindu** ordezkatzuz, **garbitu, puskatu** eta abar sartu).

Eman dezagun adjetibo multzo bat landu nahi dugula: **berri, zahar, handi, txiki, zuri, berde, beltz...** Honako ereduak eman daitezke:

**Fraka berriak jantzi ditut** (eta ordezpenak)

**Kotxe berria gustatzen zaigu** (eta ordezpenak)

**Boligrafo berria galdu zait** (eta ordezpenak)

b) **Morfemak** ondo lantzen ikasteko

Jakina denez, izen sintagamarik ondorekin erosten zaizkio morfemak, ez ordea zuzenean eta bestelako aldaketarik gabe: tartean epentesiak eta antzekoak gertatzen dira. Lotura horiek lantzeko ondo dator ordezen aribidea:

Eman dezagun -k ergatiboaren kasua, gaztelaniatik berezten denez biziki interesgarria izan daitekeena. Perpaus bat eman ondoan, ergatibo singularrari dagokion gunea ordezkari dezakegu lotura mota guztiak erreparatzeko:

**haurr-AK kontatu du ipuin hori** (IA<sup>k</sup> + AK)

**ume-AK kontatu du ipuin hori** (IA<sup>b</sup> + AK)

<b>aita-K</b>	<b>kontatu du ipuin hori</b>	(IA <sup>a</sup> + K)
<b>Lurdes-EK</b>	» » » »	(IB <sup>k</sup> + EK)
<b>Jaime-K</b>	» » » »	(IB <sup>b</sup> + K)
<b>andre honek</b>	» » » »	(IA + erakuslea)
» <b>horrek</b>	» » » »	(IA + erakuslea)
» <b>hark</b>	» » » »	(IA + erakuslea)

Ikasleek nahikoa baldin badakite eta ariketa errepasso soila baldin bada, ordezkatzeari nahasian egin daiteke, lotura mota diferenteak tartekatuz.

Irakasleak, egitura hau polikiago landu nahi balu, zatika ere aplikatu dezake ariketa:

- Lehenbizi, ariketa batean, IA<sup>b</sup> + AK kasukoak landu (**ume, seme, langile, giradi, pilotari, asto...**)
- Ondoren, IA<sup>k</sup> + AK kasukoak landu (**haur, mutil, gizon, lagun, euskaldun, bizardun, bilbotar, azken, txakur...**)
- Ondoren, IB<sup>k</sup> + EK kasukoak landu (**Mikel, Miren, Lurdes, Karlos, Ibon, Ines...**)
- Ondoren, IB<sup>b</sup> + K kasukoak landu (**Ane, Koldo, Amaia, Gorka, Maite, Andoni...**)
- Ondoren IA + erakusleak

Azken zatia kasu guztietako hitzak nahasian emanik egin daiteke, bide batez ariketa guztiaren test-a bilakatzen delarik.

Eman dezagun, beste adibide bat eskainiz, inesibo singularra lantzen ari garela. Lau kasu hauek gerta dakizkiguke: **autobus-EAN, etxe-AN, gela-N, etxe honetan / horretan / hartan.**

Ordezpena kasu guztiak nahasian emanik egin daiteke:

<b>bizikleta autobusEAN</b>	<b>sartu dut</b>
<b>bizikleta sukaldeAN</b>	» »
<b>bizikleta zure gelaN</b>	» »
<b>bizikleta garaje horretan</b>	» »

eta abar.

Edo, kasuak bereziz, zatika egin daiteke, gorago ikusi dugun bezala.

Hau dela eta, hitz akuilua bi eratara eman daiteke: a) morfema baduelarik (**sukaldean, gelan...**); b) morfemarik gabe (**sukaldea, gela...**) azken hau ipintzea ikaslearen esku uzten delarik. Bigarren era hau, ikasle aurreratuekin aplikatu daiteke.

Demagun, azkenik, eskaini ditugunak baino are egitura konplejuagoak eman nahi ditugula. Erlatiboarena, adibidez, gaztelaniarekin erkatuta arras bestelakoa denez, biziki interesgarri gerta daitekeena:

<b>hor datorr-ENA</b>	<b>Mikel da</b>
<b>hor joan d-ENA</b>	» »
<b>etxea erosi du-ENA</b>	» »
<b>presaka doa-NA</b>	» »

eta abar.

Edo baldintzarena:

<b>nahi baduzu joango naiz horra</b>	<b>(– piztuko dut irratia)</b>
» »	<b>piztuko dut irratia (– prestatuko dut afaria)</b>
» »	<b>prestatuko dut afaria</b>

eta abar.

Ez dira, beraz, hitzak edo egiturak soilik lantzen, morfemak eta hauen lotura. posizioak lantzeko ere oso egokia da ordezpena.

## II.6. ORDEZPEN MOTAK

Esaldi-zatien ordezkatzeko hau dela eta, ariketa mota diferenteak burutu ohi dira. Hemen ezagunenak baizik ez ditugu aipatuko.

### a) ORDEZPEN BAKUNA

Pespausaren elementu bakarra ordezkatzeko da. Horrelakoak dira orain arte eman ditugun adibide guztiak.

### b) ORDEZPEN ANITZA

Perpausaren bi elementu ordezkatzeko dira: lehenbizi bat, gero bestea; ondoren berriz lehena, gero bestea eta abar.

Adibidez: Mikel hondartzan ibili da (– **mendi**)

- » **mendian** ibili da (– **bizi**)
- » mendian **bizi** da (– **kale**)
- » **kalean** bizi da (– **geratu**)
- » kalean **geratu** da (– **etxe**)
- » **etxean** geratu da (– **sartu**)
- » etxean **sartu** da (– **parke**)
- » **parkean** sartu da (– **ibili**)
- » parkean **ibili** da (– **hondartza**)
- » **hondartzan** ibili da

Ariketa honetan bi edo hiru gune aldatzen dira, perpausaren egitura gramatikala batere aldatu gabe. Ikasleak, hitz akuilua entzutean, zein guneri dagokion antz eman behar dio, **bizi**, esate baterako, aditzen guneari dagokiola eta, beraz, **ibili**-ren ordezkari erabili behar duela; edota **mendi** izena dela eta beraz **hondartza**-ren ordezkari eman behar duela. Ariketa honek beraz hitz klaseak berezteko eta zein zein klasetakoa den antz emateko ere balio du, hots, izenak izenekin lotzeko, aditza aditzekin, adjetiboak adjetiboekin, aditzondoak aditzondoekin eta abar.

Goiko adibidean bi ordezpenetako ariketa aurkeztu dugu. Hiru ordezpen ere proposa daitezke:

<b>atzo etxe berria ikusi nuen</b>	(– <b>erosi</b> )
» » » <b>erosi</b> »	(– <b>handia</b> )
» » <b>handia</b> » »	(– <b>kotxe</b> )
» <b>kotxe</b> » » »	

eta abar.

Ematen diren hitz akuiluak zalantzarik gabe gune bati bakarrik garbi dagozkionak izan behar dute.

Bestetik, ikasle edo talde bakoitzak perpausa esan ondoan, irakasleak berresatea komeni da, aldaketaren aldaketaz, ikasleek egituraz ahaztu ez daitezen.

Adibidez: Ir.: **Laguna ikusterea joan da** (– **agurtu**)

Ik.: **Laguna agurtzera joan da**

Ir.: **Laguna agurtzera joan da** (– **osaba**)

eta abar.

### c) KOMUNZTADURADUN ORDEZPENA

Ariketa honetan, ordezkari den guneko elementu berriak beste guneren bateko elementua ere aldatzen du.

Adibidez, aditz paradigmak perpausean txertatuta lantzeko:

Aita lanera joan da (– **gurasoak**)

**Gurasoak** lanera joan **dira** (– **gu**)

**Gu** lanera joan **gara**

eta abar.

Edota aditza eta beste elementuren bat (izenordainak, esate baterako):

**Ni** gustora bizi **naiz neure** etxean (– **gu**)

**Gu** gustora bizi **gara geure** etxean (– **Maisua**)

**Maisua** gustora bizi **da bere** etxean

eta abar.

Ariketa mota hau sarri eta ugari erabili ohi da metodo audio-lingualetan, morfologia sintaxiarekin batera lantzeko bidea ematen bait du. Garai bateko paradigmak (aditzak, izenordainak eta abar) perpausaren kontestuan ikasten dira horrela eta horrek paradigmak besterik gabe buruz ikastea baino egokiago dirudi.

Gogoan hartu behar da, ordea, behetik gora egin behar dela aldaketa, hau da, ordezkatzeko den gunea komunztaduraz, aldatu behar direnak baino lehenago gerta daitezela komeni dela.

Aditz paradigmak ariketa mota honen bidez lantzen baditugu, perpaus aski artifiziala egingo ditugu, euskaraz 1. eta 2. pertsonen izenordainak, enfasi berezi baten zerbitzuan edo ez bada, ez bait dira esaten (**pozik nago, ni pozik nago** baino normalagoa da).

Hirugarren pertsonetan, berriz ez dago horrelako problemarik, sujeto eliptikoa arraragoa bait da: **laguna etorri zait, lagunak etorri zaizkit** oso normalak dira, sujetoa isilpean utzi gabe.

Izen sintagma NOR eta NORI aditzarekin batera lantzeko, ordea, balio dezake ariketa honek:

Kotxea erosi dut (– **sagarrak**)

**Sagarrak** erosi **ditut**

Edo

Liburua ahaztu zait (– **betaurrekoak**)

**Betaurrekoak** ahaztu **zaizkit**

Edo

Kartera kendu didate (– **giltzak**)

**Giltzak** kendu **dizkidate**

Etab.

#### d) ORDEZPEN LUZATUA

Ariketa mota honetan ordeztu beharreko gunean sartzen den elementua, hitz akuilua, ordezturikoa baino luzeagoa da, gero eta luzeagoa, Ez da hitz baten ordeztu beste hitza sartzen, elementu baten ordeztu elementu mota bera luzatua baizik.

Adibidez:

**guztiak mendira joan dira gaur** (– **gazte**)

**gazte guztiak mendira joan dira gaur** (– **mutil**)

**mutil gazte guztiak mendira joan dira gaur** (– **herriko**)

**herriko mutil gazte guztiak mendira joan dira gaur** (– **gure**)

**gure herriko mutil gazte guztiak mendira joan dira gaur**

Edo:

<b>mutilak mendira joan dira gaur</b>	<b>1608</b>	<b>(– goizean)</b>
<b>mutilak mendira joan dira gaur</b>	<b>goizean</b>	<b>(– goiz)</b>
<b>mutilak mendira joan dira gaur</b>	<b>goizean</b>	<b>goiz</b>

etab.

Guztiak eta **gaur** bezala, **mendira** ere luza zitekeen

Ariketa honen helburua ikaslea sintagmaren konplexutasunaz jabetuaraztea da: gune bat hitz batez edo gehiagoz bete daitekeela ohartaraztea.

Euskarara aplikaturik ariketa mota hau izen sintagmaren konplexutasunari ondo dagokio: sintagmaren hitz batetik abiatuz (**guztiak**) beste zenbait erasten joan gaitzke (**gazte, mutil, herriko, gure**), funtsean sintagmak zeregin sintaktiko bera betetzen duela ikustaraziz.

Aditzondoak, berriz, joku eskasago ematen du, hau izan ere oso gutxi luza bait daiteke (**gaur, gaur goizean; berandu, oso berandu**).

Ariketa honen xedea oso berezia izanik, gutxitan eta oso neurturik erabili behar dela uste dugu, gisa horretako ariketen «artifizialtasuna» areagotu egiten bait du.

### **ERASKINA**

Funtzio komunikatiboak lantzeko perpaus mota diferenteak landu behar dira. Horietako batzuk zati bat egonkorra izaten dute eta bestea aldakorra. Gogoia adierazteko adibidez:

**bazkal  
pasea  
mendian ibil  
zinera joa  
izozki bat ja  
euskara ikas**

**T(Z)EKO GOGOIA DUT**

Edo:

**bazkaldu/paseatu/mendian ibili**

**NAHI DUT  
NAHI NUKE**

Edo:

**GUSTORA**

**bazkaldu  
paseatu**

**KO NUKE**

Zati aldagarria ordeztuz ikas daitezke horrelako perpausak ere.

## III. TRANSFORMAKETA

### III.1. ARIKETAREN DESKRIBAPENA

Ariketa honetan irakasleak perpaus batzuk eskaintzen dizkie ikasleei eta gramatika arau jakin baten arabera alda ditzatela eskatzen die.

Hots, hemen ez die perpaus bat eman eta gero elementu berriak –hitz akuiluak– eskaintzen perpaus horren gune bat aldatzen joan daitezten. Hemen, perpausa eman ondoan, gramatika aldaketa bat egin dezatela eskatzen zaie. Gero, egitura bereko beste perpaus berri bat ematen zaie eta gramatika aldaketa bera egin dezatela eskatzen.

### III.2. ADIBIDEAK

«Eman objektoa pluralean».

Eta ereduak eskaini:

IRAKASLEAK: (keinua eginaz): **Eskua garbitu dut**  
**Eskuak garbitu ditut**

IRAKASLEAK: (keinua eginaz): **Begia itxi dut**  
**Begiak itxi ditut**

Eta ondoren ikasleei aldarazi:

IRAKASLEAK: **Laguna agurtu dut**

IKASLEAK: **Lagunak agurtu ditut**

IRAKASLEAK: **Argia piztu dut**

IKASLEAK: **Argiak piztu ditut**

IRAKASLEAK: **Mikelek atea itxi dut**

IKASLEAK: **Mikelek ateak itxi ditu**  
eta abar.

Edo: «Eman aditza iraganean»

Eta ereduak eskaini:

IRAKASLEAK: **Gaur zinera joan naiz**  
**Atzo zinera joan nintzen**

IRAKASLEAK: **Laguna ikusi dut**  
**Laguna ikusi nuen**

Eta ondoren ikasleei aldarazi:

IRAKASLEAK: **Gehiegi jan dut**

IKASLEAK: **Gehiegi jan nuen**

IRAKASLEAK: **Zer egin duzu gaur?**  
IKASLEAK: **Zer egin zenuen atzo?**  
IRAKASLEAK: **Pelikula ikusi dugu**  
IKASLEAK: **Pelikula ikusi genuen**  
eta abar.

Edo: «Ken erlatiboaren izena»

Eta ereduak eskaini:

IRAKASLEAK: **Korrika datorren neska Getxon bizi da**  
**Korrika datorrena Getxon bizi da**

IRAKASLEAK: **Zuk jan duzun ogia Mikelena zen**  
**Zuk jan duzuna Mikelena zen**

Eta ondoren ikasleei aldarazi:

IRAKASLEAK: **Nere alboan dagoen neska Miren da**

IKASLEAK: **Nere alboan dagoena Miren da**

IRAKASLEAK: **Nerekin bizi den mutila ikaslea da**

IKASLEAK: **Nerekin bizi dena ikaslea da**

IRAKASLEAK: **Kopa jaso duen korrikalaria da txapelduna**

IKASLEAK: **Kopa jaso duena da txapelduna**  
eta abar.

### III.3. ARIKETA HONEN XEDEAK<sup>24</sup>

Ariketa hau hizkuntzan gertatzen diren oposizioak nabarmentzeko egokia da edo, bestela esanik, egituren artean dauden erlazioak –antzak eta aldeak– agerian ezartzeko.

**Berandu etorri naiz** eta **berandu etorri nintzen**, esate baterako, egitura berekoak dira, -iragana/+iragana ezaugarrian ezik. Egituren arteko erlazioak eta batetik bestera nola pasa ikasten da ariketa honen bitartez eta orobat hizkuntzaren sistema formalaz nola balia.

Oposizio sistematikoan gertatzen diren egitura biak beharrezkoak dira batzutan, bakoitza bere kontestuan, hala nola gorago aipatu ditugun sg/pl. edo oraina/iragana. Beste zenbaitetan beharrezko ez badira ere, baliagarri bederen badira, hala nola goragoko erlatibo -sustantibatua/+sustantibatua.

Ariketa honek balio dezake zenbaitetan hitz eraketa sistematikoak lantzeko, ondoko edo antzeko tranformaketak eginaz:

- **Zure lagunak mendia maite du?**  
**Zure laguna mendizalea da?**
- **Kepari ardoa gustatzen zaio**  
**Kepa ardozalea da**
- **Mirenek dirua maite du**  
**Miren diruzalea da**
- **Dirua dutenak ondo bizi dira**  
**Dirudunak ondo bizi dira**

24. Ondo gogoan hartu «transformaketa» hauek ez dutela gramatika transformatzailearekin zer ikusirik (ikus XIXA, 48).

- **Bizarra duen hori azkarra da**  
**Bizardun hori azkarra da**  
eta abar.

### III.4. APLIKAZIO OHARRAK

Gramatika eta lexiko mailako oposizioak ugariak direnez, ariketa mota hau aplikatuz egin daitezkeen aribide konkretuak ere oso ugariak dira. Beste askoren artean, eta zerrenda osoa emateko inolako asmorik gabe, honako hauek aipa daitezke:

- **numero** aldaketa aditzetan (dut/ditut; da/dira; zait/zaizkit; diot/ diet...) eta, komuntaduraren arabera, izen sintagmetan (laguna/lagunak; lagunak/lagunek; hori/horiek; lagunari/lagunei...).
- **denbora** aldaketa aditzetan (oraina/geroa/iragana).
- **aspekto** aldaketa aditzetan eta dagozkien aditzondoetan (oraintxe etorri naiz/orain nator/ beti etortzen naiz...).
- **forma** aldaketa perpausetan: bai/ez (Mikel azaldu da/Mikel ez da azaldu); bai/galdera (Mikel azaldu da/Mikel azaldu da?/Nor azaldu da?); deklaratio/agintezko (etorri zara/zatoz/etorri); adbertsatibo/kontzesibo (baina/arren); estilo zuzena/zeharkakoa (etorri!/etortzeko esan du) eta abar...
- **elipsia** (hor dabilen neska/hor dabilena).
- **hitz eraketa** (saltzen duena/saltzailea).  
eta abar.
- Garrantzi handikoa da, gorago ere esan dugun bezala, ariketa batean ematen diren perpaus guztiak oposizio berberari dagozkionak izatea. Komeni da hau berriro gogoratzea hemen. Izan ere, ariketa honetan eskaintzen diren perpausen egiturak behar bada diferenteak dira, baina lantzen den ikaspuntuak, oposizio konkretuak, beti bera izan behar du. Dena den, gorago esan dugun bezala eta ikasleen arreta gordetzeko, tartean perpaus desegokiren bat sar daiteke, ea norbait ohartzen den.

Aldaketaren «puntua» bera izateak ez du eskatzen perpaus guztietan, derri- gor, egitura bera erabili behar denik.

Adibidez:

a) **negarrez ari den mutila --- negarrez ari dena**

b) atzo haserre etorri zitzaigun irakaslea --- atzo haserre etorri zitzaiguna

a) eta b) perpausak ez dute egitura bera, baina ariketaren «puntua» bietan berbera da.

Ariketa mota hau bestelakoak (errepikaketa eta ordezipena) burutu ondoan egin behar da noski, edo bederen transformaketaren bi muturrak gutxi edo asko landu ondoren. Hau da, egiturak ezagutu ondoren, ariketa honek batetik bestera pasatzen trebetzeko balio du, edota bien arteko zerikusiaz jabetzeko.

Gorago ere esan dugunez, ariketak ahoz egiteak praktika handiagoari lekua ematen dionez, oposizioak urratsez-urrats landu daitezke. Erlatiboaren kasuan esate baterako, lehenbiziko urratsean nominatiboa landu daiteke:

**hor dabilen mutila... --- hor dabilena...**

**hori esan duen neska... --- hori esan duena...**



Ergatiboa gero:

**hor dabilen mutilak... --- hor dabilenak...**  
**hori esan duen neska... --- hori esan duenak...**

Datiboa ondoren:

**hor dabilen mutilari... --- hor dabilenari...**  
**hori esan duen neskari... --- hori esan duenari...**

Azkenean, berriz, errepasso edo test orokor bezala, kasu denak nahasian eman daitezke.

Oposizio bat zenbat urratsetan eman daitekeen, nolako azkartasunak eta abar ikasleen aurrerapen maila kontutan harturik erabaki beharko da, kasuan kasuko aukera eginaz. Lehen mailan, jakina, oinarrizko egiturak eta oposizioak lantzea aski da.

Gramatika hutsezko eta perpausaz-perpaus buruturiko transformaketak hasieran egoki badira ere, gero ona da testu laburrak aldatzen trebatzea. Sei-zazpi esalditako testu bat orainaldian entzun eta geroaldian kontatu, esate baterako, edota estilo zuzenean ikasi eta zeharkakora pasa (**Ama, non dago pilota? – Pilota non dagoen galdetu dio Mikelek amari** eta abar). Azken hau, gainera, «benetakoa» da, eguneroko elkar hizketan gertatzen bait da.

### III.5. TRANSFORMAKETA BEREZIAK

Transformaketa mota nagusiak aurreko ataletan aurkeztu ditugu. Badira, ordea, sail honetan sar daitezkeen ariketa bereziak ere. Bakar batzuk aipatuko ditugu ondoren:

#### 1. TXERTAKUNTZA

Euskararen ikaste prozesua aurrera ahala perpaus bakunetik konplexura pasatzen ere ohitu beharko du ikasleak. Zenbait txertakuntza (konpletiboa eta erlatiboa, esate baterako) aski azkar ikasi beharko du, beste zenbait (denborazkoak eta kontzesiboak, adibidez) gerorako utziz.

Txertakuntza egiten ikasteko ikasleari bi perpaus ematen zaizkio eta emandako edota adierazitako araua kontutan harturik lotu ditzala eskatzen zaio.

Adibidez: «Lotu perpausok -eLA bidez»

Eta ereduak eskaini:

**IRAKASLEAK: Amak esan du: atea da!**  
**Atea dela esan du amak**

**IRAKASLEA: Maisuak esan du: ordua da!**  
**Ordua dela esan du maisuak**

Eta gero ikasleei txertarazi:

**IRAKASLEAK: Mikelek esan du: berandu da**  
**IKASLEAK: Berandu dela esan du Mikelek**  
**IRAKASLEAK: Nere aitak uste du: bihar euria egingo du**  
**IKASLEAK: Bihar euria egingo duela uste du nere aitak**  
**IRAKASLEAK: Mirenek espero du: lana aurkituko du**  
**IKASLEAK: Lana aurkituko duela espero du Mirenek**  
eta abar.

Ariketa hau eta antzekoak aski errazak dira, baina bi traba posible hartu behar dira kontutan: a) aldaketa morfonologikoak (dut --- du**d**ala; zen --- zela,

eta ez *zene/la* eta abar); b) pertsona aldaketa (Mikelek esan du: berandu **nabil** --- Berandu **dabilela** esan du Mikelek); dena den, aldaketa hau gaztelanian egiten denaren pare-parekoa da eta, beraz, ez luke eragozpen berezirik eskani behar. Hala ere, klaseetako esperientziak erakusten duenez, nahikoa kostatzen zaie ikasle askori horrelako aldaketak egitea.

Horrelako ariketak aho hutsez bezala, ederki egin daitezke irudiz baliatuz. Norbait irudikatu, globoan edo beste nolabait, perpaus bat esaten duela. Ikasleei hori zeharka esan dezatela eskatuko zaie. Edota ikasle batek perpaus bat esan eta beste batek zeharkara pasa. Edo perpaus soilak izan beharrea, testu laburrak...

Beste txertakuntza, erlatiboarena izan daiteke:

Adibidez: «Lotu perpausak erlatiboaren bidez»

Eta ereduak eskaini:

IRAKASLEAK: **Denda hor dago. Nere aitarena da  
Hor dagoen denda nere aitarena da**

IRAKASLEAK: **Liburua erosi duzu. Ez da ona  
Erosi duzun liburua ez da ona**

Eta gero ikasleei txertarazi:

IRAKASLEAK: **Gizona dator. Pozik dago**

IKASLEAK: **Datorren gizona pozik dago**

IRAKASLEAK: **Lorea emango diogu. Polita da**

IKASLEAK: **Emango diogun lorea polita da**

IRAKASLEAK: **Jertsea jantzi dut. Zuloa du**

IKASLEAK: **Jantzi dudan jertseak zuloa du  
eta abar.**

Ariketa hau ez da lehen begiradan dirudien bezain erraza. Gaztelaniako erlatiboaren ordena, izan ere, euskararena ez bezalakoa da, guztiz alderantzikoa eta gainera euskal erlatiboak ez du gaztelaniakoak bezain sostengu garbia (**que**). Garbi utzi behar da, bestetik zein den bietatik erlatibizatu behar den perpausa: Gizona dator- (gizona) pozik dago-- datorren gizona pozik dago/pozik dagoen gizona dator. Komeni da beraz honelako zerbait esatea: «Txertatu lehen perpausa erlatiboaren bitartez».

Beste txertakuntza posibleak perpaus zinkunstantzialei dagozkienak dira. Esate baterako, ereduak eman ondoren:

IRAKASLEAK: **Bazkaria bukatu dugu eta lanera joan gara**

IKASLEAK: **Bazkaria bukatu dugunean, lanera joan gara**

IRAKASLEAK: **Esnatu naiz eta irratia piztu dut**

IKASLEAK: **Esnatu naizenen, irratia piztu dut**

IRAKASLEAK: **Txirrinak jo du eta esnatu egin naiz**

IKASLEAK: **Txirrinak jo duenean, esnatu egin naiz  
eta abar.**

Edo kontzesiboa:

IRAKASLEAK: **Korrika etorri naiz, baina ez naiz garaiz iritsi**

IKASLEAK: **Korrika etorri naizen arren, ez naiz garaitz iritsi**

IRAKASLEAK: **Berria da, baina ez dabil ondo**

IKASLEAK: **Berria den arren, ez dabil ondo**

IRAKASLEAK: **Azkarra da, baina ez da harroa**

IKASLEAK: **Azkarra den arren, ez da harroa  
eta abar.**

Garbi adierazi behar zaio ikasleari, beraz, zein den morfema txertatzailea eta zein perpausi erantsi behar zaion.

Ariketa hau baliagarria izan daiteke oso, egitura konplexuak lantzeko eta hizkuntzen elementuek dituzten loturak nabarmentzeko. Era berean euskararen txertakuntza sistemak ama-hizkuntzarenak traba ez direla ikasten dira.

## 2. BIRFORMULAKUNTZA

Aldaketa mota honetan era batera formulatua zegoena beste era batera eman dezala eskatzen zaio ikasleari.

Birformulatze hori ere mota askotakoa izan daiteke:

### a) Elkar hizketa gidatua:

Hemen irakasleak, zehar estiloa erabiliz, zerbait adierazi, galdetu edo agindu dezala eskatzen dio ikasleari eta honek hori estilo zuzenean bete beharko du:

Zerbait adierazi:

IRAKASLEAK: **Esaiozu Mikeli Bilbok irabazi egin duela**

IKASLEAK: **Mikel, Bilbok irabazi egin du**

IRAKASLEAK: **Esaiozu Aneri atea zabalik utzi duela**

IKASLEAK: **Ane, zabalik utzi duzu atea (pertsona aldaketa)**

IRAKASLEAK: **Esaiozu Mireni lagunak zai ditugula**

IKASLEAK: **Miren, lagunak zai dituzue (pertsona aldaketa)<sup>25</sup>  
eta abar.**

Zerbait galdetu:

IRAKASLEAK: **Galdetu Aneri non bizi den**

IKASLEAK: **Adizu, Ane, non bizi zara? (p. a.)**

IRAKASLEAK: **Galdetu mutilei dantzara joan behar duten**

IKASLEAK: **Adizu, dantzara joan behar duzue? (p. a.)**

IRAKASLEAK: **Galdetu atezainari sarrerarik ba al duen?**

IKASLEAK: **Adizu, ba al duzu sarrerarik? (p. a.)  
eta abar.**

Zerbait agindu:

IRAKASLEAK: **Esaiozu Mikel etxera joateko**

IKASLEAK: **Mikel, joan zaitez etxera**

IRAKASLEAK: **Esan hurrei isiltzeko**

IKASLEAK: **Haurrak, isildu zaitezte**

IRAKASLEAK: **Esaiozu Iboni gezurrik ez esateko**

IKASLEAK: **Adizu, Ibon, ez esan gezurrik  
eta abar.**

### b) Komentario jarraitua

Ariketa honetan ikasle batek zehar estiloz komentatzen du beste batek edo irakasleak kontatzen diona.

IRAKASLEAK: **Gaur autobusa galdu dut**

IKASLEAK: **Gaur autobusa galdu duela esan du irakasleak (p. a.)**

IRAKASLEAK: **Horregatik iritsi naiz berandu**

IKASLEAK: **Horregatik iritsi dela berandu**

IRAKASLEAK: **Hurrengo autobusa leporaino beteta etorri da**

IKASLEAK: **Hurrengo autobusa, berriz, laporaino beteta etorri dela**

25. Galdera-eratzunetan, transformaketetan eta entzekoetan «gu» agertzen denean, egoera zailantza da: gu (+ni, -zu) edo gu (+ni, +zu). Hori dela eta, keinuz edo bestela garbi adierazi behar zaio ikasleari nor sartzen den «gu» horren barruan.

### c) Perpaus bilketa

Ariketa honetan gauza bera espresio laburragoaz esan dezala eskatzen zaio ikasleari.

IRAKASLEAK: **Badakit zer egingo dudan karneta ateratzeko**

IKASLEAK: **Badakit zer egin karneta ateratzeko**

IRAKASLEAK: **Ez dakit nola konponduko naizen zinean sartzeko**

IKASLEAK: **Ez dakit nola konpondu zinean sartzeko**

IRAKASLEAK: **Pentsatu dugu nora joango garen hobeto bizitzeko**

IKASLEAK: **Pentsatu dugu nora joan hobeto bizitzeko**

eta abar.

Ariketa hau egokia da adibidez, besteak beste, inperatibo luzetik laburrera pasatzeko, hura era pasiboan («ulertuz») eta hau aktiboan («erabiliz») lantzeko:

IRAKASLEAK: **Etorri zaitzete lehenbailehen**

IKASLEAK: **Etorri lehenbailehen!**

IRAKASLEAK: **Emazkiozu karta hauek Lurdesi**

IKASLEAK: **Eman karta hauek Lurdesi!**

IRAKASLEAK: **Esaiguzu egia**

IKASLEAK: **Esan egia!**

eta abar.

## III.6. EUSKARARAKO APLIKAZIOAK

Gramatika arauetan finkaturiko tranformaketak baliagarri dira noski edozein oposizio lantzeko (numeroarena, aldiarena, aspektuarena, eta abar). Dena den, gaztelaniarekiko kontrastea suposatzen duten oposizioak bereziki lantzeak merezi du, hots, euskaraz bai baina erdaraz ematen ez diren (edo erdaraz bestela ematen diren) oposizioak lantzeak.

Baliagarri gerta daitezke honelako ariketak zenbait hitz erakarriren sortarauak lantzeko ere. Esate baterako:

–**dun** (dirua duena --- diruduna; bizarduna, euskalduna...)

–**ti** (lotsa duena --- lotsatia; beldurtia, negartia...)

–**zale** (mendia maite duena --- mendizalea; ardozalea, euskaltzalea...)

–**ari** (dendan ari dena --- dendaria; pilotaria, zapataria...)

–**tzaile** (itzultzen duena --- itzultzailea; saltzailea, biltzailea...)

–**le** (irakurtzen duena --- irakurlea; idazlea, entzulea...)

eta abar.

Bada euskara klaseetan inoiz erabili izan den eta bi hitz merezi dituen tranformaketa bat: baiezko perpausetik galderazkora pasatzea eskatzen duena, alegia. Ariketa honetan, argi utzi behar da hasieratik beretik nolako galdera mota atera nahi dugun: osoa edo bai/ez galdera.

Demagun irakasleak honako zerbait eskatzen duela: «Egin ondoko perpaus hauen galderak». Eta perpaus hau ematen du: **Bihar zurekin joango naiz zinera**. Erantzun posibleak bi dira: **Norekin joango zara bihar zinera?** eta **Bihar nerekin etorriko zara zinera?**. Horregatik garbi adierazi beharko litzateke, zenbait eredu-  
ren bidez, zein aldaketa nahi den.

Dena den, zati galdera atera nahi badugu, gogoan hartu behar da galdegaiaren arazoa. Goiko perpausaren kasuan, adibidez, ezin dira aldaketa hauek egin:

### Noiz joango zara...?

edo

### Nora joango zara...?

Galdegaia izan ere, aditz aurrekoa da. Zati galdera bakarra, beraz, hau da:

### Norekin joango zara...?

Hori aski zaila gerta daiteke ahozko ariketan bapatean burutzeko. Arego oraindik, noski, abiapuntuko perpausa ezezko bada.

Horregatik deklaratio-galderazkoen arteko transformaketak egokiagoak dira idatziz egiteko, ahoz burutzeko baino.

Transformaketa bereziei dagokienez, emandako adibideek berek aski argi adierazten dute zein puntutan diren baliagarri. Bat azpimarratzekotan erlatiboarena azpimarratuko genuke; hauen eraketa hain zuzen ere izugarri kostatzen zaio euskaldunberri askori. Eta -eN morfemaz egindako erlatiboaz esandakoak berdin balio du -TAKO, edo -rIKO morfemaz egiten direnentzat (**esandako, salduriko...**)

Zehar galderei dagokionez bada gaztelaniarekiko alde aipagarri bat. Gaztelaniaz, izan ere, zeharka emaniko galdera osoa bada, SI juntagailuz markatzen da (**¿Pedro vendrá? – Ha preguntado si Pedro vendrá**). Baina zati galdera denean ez da marka berezirik ipintzen (**¿Dónde vives? – Me ha preguntado dónde vivo**). Euskaraz, berriz, zehar galderetan beti, galdera osoa izan nahiz zati-galdera izan, eN morfema beharrezkoa da: (**Kepa etorriko da? – Ez dakit Kepa etorriko den; Non bizi zara? – Non bizi naizen galdetu dit**). Gaztelaniaren interferentzia dela medio, askotan entzuten zaizkie euskara ikasleei **\*Ez dakit non bizi da; \*Ez du esan nora joango dira...** Komeni da, beraz, puntu hau bereziki lantzea.

Zehar aginteari dagokionez, forma errazena erabili dugu goiko adibidez, hau da, aditz izenkiaren bidez egiten dena (**etortzeko esan dio**) eta ez subjuntiboz ematen dena (**etor dadin/la esan dio**). Hobe da, balio bereko formak direnean errazenetik abiatzea eta ikaste prozesuaren lehen urratsetan hortik ez pasatzea. Prozesua aurrera ahala besteak ere sar daitezke eta, hain zuzen, batetik bestera aldatuz ariketak egin:

### Etortzeko esan diot --- etor dadila esan diot

Komeni da, azkenik, eman dugun aplikazioen zerrenda hau ez dela inola ere osoa esatea. Bestelako transformaketak ere egin daitezke: kausala txertatu, kontzesibotik (**nahiz eta...**) kontzesibora (**...eN ARREN**) pasa, konparatiboa txertatu...

### ERASKINA

Funtzio bera edo beretsua betetzen duten forma linguistikoen artean ere egin daiteke transformaketa:

**Zinera joaTEKO GOGOIA DUT – zinera joan NAHI DUT – zinera joanGO NINTZATEKE**

**PaseaTZEKO GOGOIA DUT – paseatu NAHI DUT – paseatuko NUKE**

Edo:

**Etorri! – etor zaitez! – etorriko zara? – etorri nahi duzu?**

**Isilik! – isil zaitez! – isilduko zara? – isildu nahi duzu?**

Eta abar.

## IV. HEDAPEN ARIKETA

Ariketa honek ez du berez eta garbi sail berezia merezi, gorago aurkeztu ditugunetan aise sar bait daiteke. Azalpen laburra egingo dugu halare hemen, alderdirik nagusienak gogoratzeko.

Ariketa honetan irakasleak ematen duen hitz akuilua ez da oinarrizko per-pausean beste hitz baten ordeztuz sartzen, beste baten alboan kokatzen baizik. Gunea, horretara, konplexuagoa bilakatzen da.

Bi eratara egin daiteke hori:

a) Hitz akuiluak bata bestearen ondotik erantsiz (A - AB - ABC - ABCD...) Ikusten denez, ariketa hau gorago ordeztuz hedatuaren izenpean azaldu duguna da.

Adibidez:

IRAKASLEAK: **Liburua hartu dut**

IRAKASLEAK: **handi**

IKASLEAK: **Liburu handia hartu dut**

IRAKASLEAK: **oso**

IKASLEAK: **Oso liburu handia hartu dut**  
eta abar.

b) Hitz akuiluak bata bestearen ordeztuz ezarriz: (A - AB - AC - AD...). Ikusten denez, oinarrizko gune bat luzatu eta ondoren luzapen hori ordezkatu egiten da. Egokia izan daiteke, besteak beste, adjetiboaren graduak lantzeko.

**handia**  
**aski handia**  
**oso handia**  
**handiegia**  
**hori baino handiagoa**  
**-rik handiena**

Adibidez:

IRAKASLEAK: **Liburu handia hartu dut**

IRAKASLEAK: **oso**

IKASLEAK: **Oso liburu handia hartu dut**

IRAKASLEAK: **-egia**

IKASLEAK: **Liburu handiegia hartu dut**

IRAKASLEAK: **hori baino handiagoa**

IKASLEAK: **Hori baino liburu handiagoa hartu dut**

IRAKASLEAK: **-ena**

IKASLEAK: **Libururik handiena hartu dut**  
eta abar.

Bigarren adibide honetan, noski, adjetibo eta adberbioen gradazioan gertatzen diren salbuespenak gogoan hartu behar dira.

**ona** – **aski ona**  
**oso ona**  
**onegia**  
*hobea*  
**onena**

**asko** – *aski*  
 $\emptyset$   
*gehiegi*  
*gehiago*  
*gehien*

**ondo** – **aski ondo**  
**oso ondo**  
**ondoegi**  
*hobeto*  
**ondoan**

## V. BURUTZE ARIKETAK

### V. 1. ARIKETAREN DESKRIBAPENA

Ariketa hau oso erabilia izan da hizkuntza klaseetan. Irakasleak perpaus osoa eman beharrean, bukatu gabe eskaintzen dio ikasleari eta buka dezala eskatzen dio. Eskainiriko zatiak eta irakaslearen ordenak aski argi adierazten dute bukaerak nolakoa behar duen.

Era diferentetara egin daiteke ariketa hau: a) beti bukaera bera eskatuz; b) bukaera beretsua, aldaketa gramatikalak barne, eskatuz; c) bukaera ikasleen eskuetan erabat utziz.

### V. 2. ADIBIDEAK

a) Bukaera bera

IRAKASLEAK: «Amaitu perpausak ereduan bezala»

Ikusten badut, emango diot abisua

IKASLEAK: Ikusten badut, emango diot abisua

IRAKASLEAK: «Etortzen bada»

IKASLEAK: Etortzen bada, emango diot abisua

IRAKASLEAK: «Gogoratzen banaiz»

IKASLEAK: Gogoratzen banaiz, emango diot abisua

IRAKASLEAK: «Nahi baduzu»

IKASLEAK: Nahi baduzu, emango diot abisua

IRAKASLEAK: «Telefonoa hartzen badu»

IKASLEAK: Telefonoa hartzen badu, emango diot abisua

eta abar.

Ariketa honen xedea, aski erraz ikus daitekeenez, ez da egitura batetik bestera pasatzen ikastea, arau batez gidaturiko egitura erabiltzen jakitea baizik. Adibidean, esate baterako, horrelako baldintzaz hasitako perpausak ondorioan nahitaz geroaldia eskatzen du (**etortzen bada... esango diot**).

b) Bukaera beretsua

Goiko ariketaren antzekoa da, baina hemen bukaerako zatian komunztadurak eskaturiko aldaketaren bat ezinbestekoa da:

IRAKASLEAK: Etxean sartu zarenean, argia piztu duzu

IKASLEAK: » » » » » » »



**IRAKASLEAK: «Etxean sartu naizenean»**

**IKASLEAK: Etxean sartu naizenean, argia piztu dut eta abar.**

c) Bukaera librea

Honelako ariketetan ikasleek, perpausaren hasiera entzunik eta honek eskatzen duen egitura jarraikiz, perpausaren bukaera asmatu behar dute.

Demagun aurreko adibidean aurkeztutako baldintza-geroaldi egitura: irakasleak baldintza ematen du eta ikasleak bukaera geroaldian asmatu behar du.

Adibidez:

**IRAKASLEAK: Eguraldi ona egiten badu...**

**IKASLEAK: (asmatuz)... mendira joango gara goiz jaikiko naiz ez gara etxean geratuko paseatzera joango gara eta abar.**

**IRAKASLEAK: Loteria tokatzen bazait,...**

**IKASLEAK: (asmatuz)... ez naiz berriz lanera etorriko txalupa bat erosiko dut Ameriketara joango naiz eta abar.**

Egitura barnean jokatu behar du ikasleak –aurreko adibidean esate baterako ezin da iraganera pasa–, baina aukera semantikoa berak egin behar du.

### V. 3. APLIKAZIO OHARRAK

Honako ariketotan etena berez dagokion lekuan egitea komeni da, ez sintagmaren erdian adibidez («nere etxeko...»); edo «egunero etortzen...»); egokiena normalean etena perpausaren erdi-gunean egitea da, bakuna bada, edo perpausen arteko gunean konposatuak badira.

Bakunaren kasuan absoluto eta ergatiboaren arteko bereztea lantzeko balio dezake:

**nere herriko alkatea...** (aditz iragangaitzez amaitu beharra)

**nere herriko alkateak...** (aditz iragankorrez amaitu beharra)

Konposatuen kasuan egiturak eskatzen dituen legeak betetzen ohitzeko balio dezake:

**etortzen bazara,...** (ikusiko gaituzu)  
(poztuko gara)  
eta abar.

**etorriko bazina,...** (zinera joango ginатеke)  
(afaria berezia egingo genuke)  
eta abar.

**etorri bazina,...** (ederki ibiliko zinen)  
(poztuko ginen)  
eta abar.

**korrika etorri arren,...** (berandu iritsi zen)

**etxetik atera orduko,...** (euria hasi zuen)

**nahi duzunean,...** (joango gara)

eta abar.

Etena berezko lekuan egitea garrantzi handikoa da ahozko ariketetan, beste-  
la mintzatuan noraezko diren azentua, ritmua, doinuera eta abar erabat desitxu-  
ratuak eman daitezke. Hori dela eta, «hutsuneak bete» ariketa idatzirako egokia  
izan daitekeen heinean izan daiteke desegokia ahozko ariketan: kate mintzatua  
desitxuratu eta apurtu egiten duelako. Idatzian, perpausaren erdian hutsune bat  
ematea (*testua... testua*) bide ona izan daiteke bai ariketa gisa bai test bezala. Ez,  
ordea, ahozkoan.

Bukaera bera eskatzen duen ariketa hasieran egokia izan badaiteke ere, ahal  
den lasterren bukaera libre eskatzen duenera igarotzea beharrezkoa da. Hauek,  
mekanikoak izanik ere, haiek baino kreatiboagoak bait dira eta ariketa arrunt  
libreetara daraman zubia gerta daitezke.

#### V. 4. EUSKARARAKO APLIKAZIOAK

Gorago ikusi dugun bezala, ez da komeni perpaus bakuna artifizialki moztea.  
Halere perpausaren erdigunea zainduz egiten bada, balio dezake zenbait ko-  
muntadura jokatzeke; ergatiboarena, adibidez (**Bilboko jendea.../Bilboko jen-  
deak**), edo aldiena (**atzo lagun guztiak.../bihar lagun guztiak...**).

Bakunean baino erabilgarriago da, ordea, perpaus konposatuan, subordina-  
zioz edo koordinazioz loturiko bi zatien arteko lotura landu behar denean alegia.  
Horrelakoak dira, adibidez:

- **baldintzak**

- *etortzen bazara, (...-ko)*
- *etorri bazina, (...-ko ...-en)*
- *etorriko bazina, (...-ko ...-ke)*
- *etorriko gero, (...-ko ...-ke)*
- *etorriko bada, (...behar...)*

- **kontzesiboak**

- *nahiz eta hori esan, (...)*
- *hori esan arren, (...)*
- *hori esanagatik, (...)*
- *hori esan badu ere, (...)*
- *hori esan duen arren, (...)*

- **denborazkoak**

- *etorri zenean (... joan ginen)*
- *etortzen zenean (... joaten ginen)*
- *etorri denean (... joan gara)*
- *etortzen denean (... joaten gara)*
- *etorri orduko (...)*

eta abar.

#### V. 5. BURUTZE ARIKETA BEREZIAK

Gramatikarekin zerikusia duten arren, testuinguruari eta egokitasun semanti-  
koari ere begira dauden ariketa batzuk aipatuko ditugu, arin eta labur, ondoko  
lerroetan.

a) **Egoera baten aurrean galderak egin**

Irakasleak bizpahiru perpausetan egoera bereziren bat, nonbaitetik deigarri dena behintzat, aurkezten du eta ikasleei horren aurrean galdera bana egin dezatela eskatzen die. Asmamena askatzearekin batera, euskarari bere baitako galderak egiten ikasteko ere balio du.

Irakasleak ematen dituen egoerak, esate baterako, horrelakoak izan daitezke:

«*Gela batean sartu zara eta gizon bat lurrian ikusi duzu, ohe ondoan lo. Sartu zarenean esnatu egin da*». Egin galderak gizon horri.

«*Kalean paseatzen ari zara eta halako batean denda batetik dendaria ateratzen da korrika eta oihuka ero moduan. Zurekin txoke egiten du*».

Egin galderak dendariari.

«*Treanean zoaz eta aurrean neska/mutil gazte bat duzu. Harekin hizketan hasi nahi duzu*». Galdegiozu zerbait.

«*Haurtxo bat aurkitzen duzu kale erdian negarrez*». Galdegiozu zerbait.

Eta abar.

b) **Egoera baten aurrean hizketa egin** (galdera, agintea, harridura, adierazpena...). Ikasle bakoitzak perpaus bana edo bina egin dezala.

«*Koldok eta Inesek ederki bazkaldu dute jatetxe batean. Ordaintzeko garaian dirurik ez dutela ohartzen dira*». Zu zara zerbitzaria.

«*Etxetik jaitsi zara eta gizon bat zure kotxea pintatzen ikusi duzu*». Zer esango zenioke?

Ines gela erdian dago. Zerbait esaten hasi da: «*Gela hau euliz betea dago eta...*». Amaitu zuk perpausa.

c) **Narrazio labur bat burutu**

• *Gizon bat etxetik korrika atera da, eskuan balde bat ur duela. Segi kontaktzen.*

• *Hegazkin batean berrogei pertsona doaz. Halako batean motorra gelditu egin da. Segi kontaktzen.*

• *Ane eta lagunak paseatzen ari dira Lekeitioko kaian. Halako batean Ane uretara erori da. Segi kontaktzen.*

Hemen, ikusten denez, ez zaio perpausen **gramatikaltasun** hutsari begiratzen, kontestuekiko egokitasuna ere arretaz landu behar bait da.

# VI. GALDE-ERANTZUN ARIKETA

## VI. 1. ARIKETAREN DESKRIBAPENA

Zentzu zabal batean, ahoz egiten diren egitura-ariketa guztiek eskatzen diote ikasleari «erantzun» bat. Hemen, ordea, irakasleak «galdegin» eta ikasleek «erantzun» osatzen direnak aztertuko ditugu.

Zerbait galdegitea komunikazio mota bat denez eta gizarte harremanetan betetzen diren funtzioetako bat osatzen duenez (adibidez, ordua ebo bidea galdegitea; informazioren bat eskatzea, mesede bat zeharbidez eskatzea...), galde-erantzun ariketa komunikazio ariketa ere izan daiteke.

Hemen, ordea, ez dugu maila horretan aztertuko, ez ditugu gizartean galdetzen ikasteko ariketak deskribituko. Hemen gramatika ariketa gisa duen erabilgarritasunari begiratuko diogu. Hau da, ikaspuntu gramatikalak lantzeko balio duen heinean aztertuko dugu.

Gramatika arau edo forma jakin bat landu nahi dugunean, hori jasotzen duen galdera batez balia gaitzke, ikasleak bere erantzunean puntu berbera eman dezan, artifizialtasun neurria handiagoa edo txikiagoa egiten zaigularik. Aditz forma bat landu nahi izanez gero, adibidez, egiazko elkar hizketetan ez bezala, erantzun «osoak» eska diezazkiokegu ikasleari.

Demagun **nauzu/zaitut** adizkiak landu nahi ditugula. Bai/ez galdera mota erabil dezakegu:

Galdera: **Kotxez eramango nauzu?**

Erantzuna: **Bai, kotxez eramango zaitut**

Edo zati-galdera:

Galdera: **Nola eramango nauzu?**

Erantzuna: **Kotxez eramango zaitut**

Egiatzko elkarrizketa batean, ordea, erantzunak bestelakoak izango lirateke:

- |                     |     |                             |
|---------------------|-----|-----------------------------|
| – <b>Bai, noski</b> | edo | – <b>Ez, ezin dut</b>       |
| – <b>Nola ez!</b>   |     | – <b>Bai zera!</b>          |
| – <b>Pozik!</b>     |     | – <b>Ezta pentsatu ere!</b> |
| – <b>Kotxez!</b>    |     | – <b>Inola ere ez!</b>      |

Galde erantzun ariketa, beraz, puntu zehatz baten zerbitzuan «erantzun osoa» eskatuz, edota hortik urrunduz, erantzun libreei bide emanez burutu daiteke.

## VI. 2. APLIKAZIO OHARRAK

Ariketa honek maila arruntenean errepikaketaren funtzioa bete dezake. Inesiboa landu nahi badugu, inesiboa daraman galdera sail bat egin dezakegu:

- **Mikel etxean dago?**
  - **Mikel kalean dago?**
  - **Mikel eskolan dago?**
- eta abar.

Baiezka («Bai Mikel etxean dago» eta abar) nahiz ezezka («Ez, Mikel ez dago etxean» eta abar) perpausa errepikatuz ikaslea inesiboa erabiltzen abiatuko da. Horrelako galdera sail bat egin ondoren, zati-galdera egin dakioko:

- **Mikel non dago?**

Eta ordurako ikasia du inesiboaren gunea betetzen.

Era horretara landu daitezke gramatika forma gehienak: izenaren morfologia, aditza, galdegaia... eta lexikoa.

Gorago aipatu dugun artifizialtasunari dagokionez hiru maila berezi ditza-kegu:

a) «Erantzun osoa» eskatzea, benetako elkar hizketatik gehien urruntzen dena (**-Mikel etxean dago? -Bai, Mikel etxean dago**). Hau, erabiltzekotan, oso denbora laburrean erabili behar da, ikaslea irakatsi nahi zaion puntuaz nolabait jabe dadin arte.

b) «Erantzun osoa» lortzeko zeharkako bidea, horren artifizialtasun kutsu nabarmenik ez duena. Demagun **nauzu/zaitut** landu nahi dela. **Kalean ikusi nauzu?** galdetuz gero, **Bai** edo **Ez** lirateke erantzun normalenak; **Non ikusi nauzu?** galdetuz gero, berriz, **kalean** edo **dendean** edo... izango litzateke erantzun normala. **Zaitut** adizkia, beraz, ez da erabiliko. Eta guk horixe nahi genuen, adizki hori erabiltzea eta, ahal izanez gero, erantzun normal batean erabiltzea...

Horretarako bestelako galderak asmatu behar dira. Eredua emanik, honako ariketa hau egin daiteke, adibidez:

IRAKASLEAK: **Zinean ikusi nauzu, ezta?**

IKASLEAK: **Ez, zinean ez, tabernan ikusi zaitut**

IRAKASLEAK: **Trenez eramango nauzu, ezta?**

IKASLEAK: **Ez, tren ez; kotxez eramango zaitut**

Edota **zait/zaizu/zaio** landu nahi badira:

IRAKASLEAK: **Telebista asko gustatzen omen zaizu. Egia da?**

IKASLEAK: **Bai zera! Ez zait batere gustatzen**

IRAKASLEAK: **Anderri futbola asko gustatzen omen zaio. Egia da?**

IKASLEAK: **Bai zera! Ez zaio batere gustatzen**  
eta abar

c) Elkarrizketa librea. Ikasleari ez zaio egitura baten barnean aritzeko agin-  
durik ematen. Irudiren bat, irakurgairen bat edo antzeko zerbait oinarri harturik,  
elkarrizketa labur bati ematen zaio bide. Ikasleari ez zaio ezer adierazten, baina  
irakasleak galdera guztiak gogoan duen puntura biltzen ditu.

Demagun **-burutua/+burutua/etorkizuna** aspektuak landu nahi direla. Ira-  
kurgai labur bat irakurri ondoan, irakaslea galdezka hasten da hiru aspektuak  
txandatuz eta horretarako prestaturik zegoen irakurgaiaren haria jarraituz:

IRAKASLEAK: **Gaur Mikel berandu iritsi da eskolara. Zer pasa zaio?**

IKASLEAK: **Autobusa galdu du**

IRAKASLEAK: **A bai? Askotan pasatzen zaio hori?**

IKASLEAK: **Ez, gehienetan garaiz iristen da**

IRAKASLEAK: **Bihar kontuz ibiliko da, ezta?**

IKASLEAK: **Bai, bihar goiz jaikiko da**  
eta abar.

Erantzunak, noski, irakurgaiak berak sugeritzen ditu.

### VI. 3. ARIKETAREN XEDEA

Ariketa honen xedea bikoitza da. Batetik edozein puntu lantzeko balio du lehenbizi bai/ez galdera osoak eginaz eta gero zati-galderaren bidez perpausaren gunea betetzen trebetuz. Horrela aplikaturik egitura-ariketa huts-hutsa da; ahoz landua, hori bai. Bestetik komunikazio-trebetasunaren zerbitzuan ere erabil daiteke, galderak azkar samar eta eragozpen berezirik gabe jasotzeko trebetasuna eta orobat ahalik eta egokien erantzutekoa komunikazioaren oinarri-oinarria bait dira. Horregatik da horren erabilia ariketa hau hizkuntzen irakaskuntzan.

Praktika honen helburua, metodologia lingualak proposaturiko iritzien arabera, ikaslea «hizketan» jartzea da, dakien gramatikaz eta hiztegiez baliatuz elkar hizketan parte hartzeko gai egin. Horregatik komeni da galde-erantzun oso gidatuetatik abiatuz hain gidatuak ez diren alaitz lasterren pasatzea, ikasleak «bere erantzun propioa» ematen ohitu daitezen. Aukera libreko espresio ahalmenarako zubi egokia da, beraz, galde-erantzun ariketa hau.

### VI. 4. MOTA BEREZIAK

Puntu jakin bat landu nahi denean irakasleak gidatu behar du, noski, galde-erantzunen ariketa. Baina era libreagoan aplikatu nahi denean, badira gauzak naturalago eta biziago egiteko sistemak, hau da, benetako hizketatik hurbilago daudenak.

#### a) Egoerak itxuratu

Horrelakoa da, esate baterako, telefonoko deia itxuratuz egin daitekeena:

A ikasleak paper bat beteko du, medikuarena adibidez, eta B ikasleari telefonoz hots egingo dio. Honek, galderak eginaz, haren nortasuna eta ogibidea zein den asmatu behar du. B ikasleak A ikasleari galderak egiten dizkio informazio bila eta A ikasleak erantzuten dio jokutzen ari den paperaren arabera. B ikasleak A-ren ogibidea zein den asmatzen duenean amaitu da ariketa.

Hori adibide bat baizik ez zen. Besterik ere asma daiteke:

A, adibidez, turismo etxe bateko enplegatua da eta B-k halako eskualdeari buruzko berriak eskatzen dizkio, edo jaialdiren batenak...

Horrelako ariketetan eta antzera asma daitezkeen bestelako asmakizunetan ikaslea galderak egiten ere ohitzen da, bestela irakaslea galdegile eta ikaslea erantzule hutsa bilakatzeko arriskua dago.

#### b) Asmakilo gisakoak

Era asko dago ariketa hau burutzeko. Honako hau, esate baterako, besteren artean: ikasle batek irudi bat hartzen du eskuetan eta besteak galdezka hasten zaizkio zer agertzen den asmatu artean.

Honelako ariketak orainaldia, koloreak, neurriak eta antzekoak lantzeko balio dezake.

### c) Erantzun eginak

Hizkuntza guztiek dute galderei erantzuteko zenbait esaera egin, erantzun gramatikal hutsak baino adierazkorragoak eta ekonomikoagoak. Formula gisa edo finkatuak daudelarik, funtzio desberdinak betetzen dituzte: baiezkatzea, ukatzea, poza, harridura, sorpresa eta abar adieraztea...

Erantzun egin hauek ilatiboen papera betetzen dute berbaldian. Garrantzizkoak dira eta askotan ez dira behar adina lantzen. Haatik halako freskura kutsua ematen diote hizketari.

Honako hauek dira:

Bai zera!  
Jakina!  
Noski!  
Ezta pentsatu ere!  
Ba ote!  
Ez da egia izango!  
Neregatik bai  
Alde hortik  
Ederki  
Faborez  
Baietz  
Ezetz  
Baietz bada  
Ezetz bada

Honelako erantzun eginen bilduma egin ondoan, ariketa sistematikoetan landu daitezke.

d) Transformaketaz ari ginenean, **erantzuna eman eta galdera ateratzeak** euskaraz zer-nolako eragozpenak dituen azaldu dugu. Ariketa hori bera egin daiteke, ordea, eta egin ere horrela egin behar da, ez gramatika hutsari begiratu, kontestu osoari kasu eginaz baizik.

Irakasleak, adibidez, honela dio:

– **Beltza!**

Ikasleak berehala kontestu batean pentsatuko du. Tabernan, esate baterako. Eta tabernariaren galdera zein zen asma dezake:

– **Zer nahi duzu?**

Beste kontesturen batean ere pentsa daiteke. Galde-erantzunek, noski, kontestu horretan egoki kokatzen direnak behar dute. Ez hori bakarrik, ordea. Gramatikalak ere izan behar dute. Goiko adibidean, esate baterako, **beltza** galdegaia da; galdera beraz **Zer** nahi duzu? izango da, edota **Zuria a la beltza?** edo antzekoren bat. Ez, ordea, **beltza nahi duzu?**

Beste adibide bat. Irakasleak honela dio:

– **Zazpi**

Ikasleak zer kontestutan pentsa dezake? Urteen gorabeheran, esate baterako:

– **Zenbat urte dituzu?**

Edota, noten kontestuan:

– **Zer nota atera duzu?**

Irakasleak, noski, kontestu jakinetara loturik dauden erantzunak eman behar ditu, ariketa honek joko emango badu.

## VII. ITZULPEN ARIKETA

### VII. 1. ARIKETAREN DESKRIBAPENA

Itzulpen ariketa –ez dago esan behar– baliogabekotzat edo bederen balio eskasekotzat hartu ohi da azken hamarkadotan. Hizkuntzen irakaskuntzatik desagertu egin zen ia-ia. Itzultzaile eskoletara mugatzen zen ariketa honen erabilpena.

Joera hori aski erraz uler daiteke: irakasle askok, izan ere, ariketa hau **helburu** gisa hartzen bait zuten eta ez beste zerbaitetarako bide bezala. Hori dela eta, itzulpen ariketak gero eta konplejuagoak egiten ziren; parrafo luzeak korapiloz beteak eskaintzen zitzaizkion ikasleari eta honek analisi lan zaila egin behar zuen zati osoa itzuli ahal izateko. Horrela eginda, noski, urrun gelditzen zer ariketa hau hizkuntza mintzatutik. Itzulpen ariketa, beraz, itzultzaileen zerbitzuan egiten zen zerbait zen, hiztunen helburuetatik aski urrun gelditzen zelarik.

Batzutan, ordea, zenbait puntu zail finkatzeko eta erdararekiko kontrasteaz jabetzeko egokia izan daiteke itzulpen ariketa llabur eta estuki mugatuak egitea.

Gehienetan, hori bai, idatziz egingo dira.

Itzulpen saio bat egin daiteke, adibidez, denbora-aspektuak lantzeko (**vengo ahora/ siempre vengo/ he venido/ vendré – oraintxe nator/ beti etortzen naiz/ etorri naiz/ etorriko naiz**).

Berez idatziz burutzeko den ariketa honek, inoiz ahoz egiten bada, baldintza batzuk bete beharko ditu:

- perpaus laburrak izan behar dute eta helburu jakinetara mugatuak.
- ematen eta eskatzen diren perpausak elkar hizketa batean entzun daitezkeenak izan behar dute eta ez idatziari legozkiokeenak.
- ez da analisi lana eskatu behar, perpausaren puntu bakoitza hitzez hitz itzularaziz, perpaus osoaren itzulpen globala baizik.
- laburrak izan arren, perpaus osoak izan behar dute, ez perpausen zatiak: **voy a casa bai, esate baterako, baina ez a la casa de mi...**
- Itzulpen saioek ez dute luzeegiak izan behar ; sei-zazpi perpaus labur gehienez ere, denak ikaspuntu berera bilduak.
- baliagarri izan daiteke ariketa hau, behar bada, ikaspuntu bat landu ondoko errepasso gisa eta fijazio lan bezala. Baita, noski, test gisa ere.

Dena den, erabilkera oso mugatua behar du izan ariketa honek eta erdararekiko kontrasteetan oinarritua.



## VII. 2. ADIBIDEAK

Itzulpen labur-azkar hau puntu zehatzei begira burutu behar dela esan dugu gorago. Puntu hori gramatikal soila izan daiteke edota kontestuari ere begiratzen diona.

### a) Ikaspuntu gramatikalak lantzeko itzulpen laburrak

Demagun, esate baterako, kausazko galde-erantzunak landu nahi direla (**zergatik...? ...-eLAKO**). Testu labur batean oinarrituz edo bestela, honako itzulpenak proposa daitezke, galderak ikasle bati eta erantzunak beste bati itzularaziz:

IRAKASLEA: **¿Por qué vienes andando?**

Ikasle A: .....

IRAKASLEA: **Porque he perdido el autobús**

Ikasle B: .....

IRAKASLEA: **¿Y por qué has perdido el autobús?**

Ikasle A: .....

IRAKASLEA: **Porque me he levantado tarde**

Ikasle B: .....

Edota **zintudan, zintuen, zintugun, zintuzten** adizkiak landu nahi direla. Honako itzulpen azkarrak egin daitezke:

IRAKASLEA: **Ayer te vimos en la calle**

Ikaslea: .....

IRAKASLEA: **Mikel te conoció**

Ikaslea: .....

IRAKASLEA: **Yo te saludé**

Ikaslea: .....  
eta abar.

Edota deklinabidea labur-labur lantzeko:

IRAKASLEA: **He ido al cine**

Ikaslea: .....

IRAKASLEA: **Vamos al baile!**

Ikaslea: .....

IRAKASLEA: **Hoy no vamos a la playa**

Ikaslea: .....  
eta abar.

### b) Egoerari loturiko itzulpen laburrak

Egoera arrunt batean entzun eta esan daitezkeen esaldi laburrak itzularadi daitezke, egoera bera eta ez gramatika puntuaren bat ardatz delarik.

IRAKASLEA: **¿Qué hay?**

Ikaslea: **Zer dugu?** (Edo antzeko zerbait)

IRAKASLEA: **Ya ves**

Ikaslea: **Hementxe** (Edo antzeko zerbait)

IRAKASLEA: **¿No vas a la escuela?**

Ikaslea: **Ez al zoaz eskolara?**

IRAKASLEA: **Hoy tenemos fiesta**

Ikaslea: **Gaur jai dugu**  
eta abar.

Ariketa hauen baldintza nagusia perpausen neurria da. Berehala jaso eta itzul daitezkeenak behar dute izan. Hobe da, bestela idatzira pasatzea.



## **3. ATALA:**

# **ELKARRIZKETA LABURRA**



## ELKARRIZKETA LABURRA

Aurreko atalean azaldu ditugun ariketetan perpausa zen batez ere aribidearen gaia eta markoa: perpausak errepikatzen ziren, edo ordezkutzen, aldatzen, itzultzen eta abar. Orain azalduko dugun ariketan, berriz, solas labur labur bat da ardatza. Bi solaskideren artean gerta daitekeen hizketatxo bat hartzen da oinarri eta errepikatu egiten da bizpahiru elementu aldatuz. «Elkarrizketa laburra» edo «mikro-hizketa» esaten zaio ariketa horri.

Eman dezagun, adibidez, honako hizketa hau:

- Hemen bizi zara?
- Ez, orain Gernikan bizi naiz
- Gernikan?
- Bai. Ezagutzen duzu?
- Noski, oso polita da

Irakasleak akuilu bezala *Bilbo* eta *handia* hitzak emanik, ikasleek honela errepikatu behar dute hizketa:

- Hemen bizi zara?
- Ez, orain **Bilbon** bizi naiz
- Bilbon?
- Bai. Ezagutzen duzu?
- Noski, oso **handia** da

Eta *Donostia* eta *txukuna* hitzekin, berriz:

- Hemen bizi zara?
- Ez. Orain **Donostian** bizi naiz
- Donostian?
- Bai. Ezagutzen duzu?
- Noski, oso **txukuna** da

Ariketa honek buruz ikasitako dialogoak antzeko kontestuetara pasatzeko balio dezake, bide batez han ikasitako puntuak egoera posible batean txertaturik lantzeko.

Demagun ikaskai batean nora edo -eLAKO morfema ikasi direla eta ondoko dialogoa edo antzekoren bat izan dela horretarako abiapuntua:

- Nora zoaz, Jone?
- Afarira
- A bai?
- Bai. Etorri nahi duzu?
- Ez. Ni etxera noa
- Etxera? Zer bada?
- Nekatuta nagoelako

*Zinera* eta *berandu delako* akuiluak emanda ikasle bik honela emango dute hizketa bera:

- Nora zoaz, Koldo?
- **Zinera**
- A bai?
- Bai. Etorri nahi duzu?
- Ez. Ni etxera noa
- Etxera? Zer bada?
- **Berandu delako**

Eta *dantzara* eta *logale naizelako* akuiluekin:

- Nora zoaz, Miren?
- **Dantzara**
- A bai?
- Bai. Etorri nahi duzu?
- Ez. Ni etxera noa
- Etxera? Zer bada?
- **Logale naizelako**

Eta *paseatzera* eta *lana dudalako*:

- Nora zoaz, Gorka?
- **Paseatzera**
- A bai?
- Bai. Etorri nahi duzu?
- Ez. Ni etxera noa
- Etxera? Zer bada?
- **Lana dudalako**

Berdin egin daiteke ondoko ahuilu hauekin:

- Hondartzara – Buruko mina dudalako*
- Futbolera – Dirurik gabe nagoelako*
- Jaialdira – Hotzak nagoelako*
- Pilotalekura – Bisita dudalako*

eta abar.

Ikasitakoa beste kontestutan erabiltzeaz landa, ariketa hau hizketa librerako zubi egoki gerta daiteke. Metodo askori egozten zaion akatsa horixe da, hain zuzen: ikaslea, onenean ere, ulermen maila egokira eramaten dutela; ereduak aski egoki errepikatzeko gai egiten dutela... baina berez, hizketa libre batean, esku hartu behar duenean ikaslea ez dela hizkuntza berrian ezer adierazteko gai izaten. Orain azaltzen ari garen ariketa hau komunikazio libreago honetarako zubi izan daiteke. Bide batez, gainera, hizketarako hain beharrezko diren esaerak, kliseak eta partikulak ikasi daitezke. Ondoko honetan, esaterako, futuroaz eta –TEKO morfemaz landa **seguruena bai, zertarako?** eta **Ui...** espresioak ikasi daitezke:

- Mikel, mendira joango zara bihar?
- Seguruena bai.
- Eta zer eramango duzu?
- Bokadilloak.
- Bokadilloak? Zertarako?
- Ui... jateko!

*Ui...* hori erantzun argiegiaren seinale da. Hori bera are nabarmenago ikus daiteke *eskolara, liburuak* eta *ikasteko* akuiluak sartuta:

- Arantxa, **eskolara** joango zara bihar?
- Seguruena bai.
- Eta zer eramango duzu?
- **Liburuak.**
- Liburuak? Zertarako?
- Ui... **ikasteko!**

Edota *Hondartzara, baloia* eta *jolasteko* akuiluekin:

- Fermin, **hondartzara** joango zara bihar?
- Seguruena bai.
- Eta zer eramango duzu?
- **Baloia.**
- Baloia? Zertarako?
- Ui... **jolasteko!**

Eta gauza bera ondoko akuiluekin:

- *afaria, diskoak* eta *entzuteko*
- *klasera, kuadernoa* eta *apunteak hartzeko*
- *futbolera, purua* eta *erretzeko*
- *Donostiara, kamara* eta *argazkiak egiteko*
- *dendara, dirua* eta *gauzak erosteko* eta abar.

Gisa honetara arituz ikaslea hizketaren doinuera eta esaera adierazkorrak erabiltzen ohitzen joango da eta gramatika puntuak ez ditu kontesturik gabeko ariketa hotzetan bakarrik landuko.

Metodoek, askotan, ez dute horrelako hizketeterako eredurik eskaintzen. Dena den, irakasleak berak asma ditzake erraz eta behar den guztietan aplikatu. Horretarako, ordea, honako puntu hauek hartu behar dira gogoan, besteak beste:

1. Kontestu edo egoera batean pentsatu behar da. Bi lagun adibidez, kafetegian edo kafetegi ondoan topo egiten dutelarik:

- Kaisu, Xanti, zer zabilta?
- Hementxe!
- Kafea nahi duzu?
- Ez, zerbeza nahiago dut
- Zerbeza?
- Bai, egarri naiz...

Akuiluak: *pastela, bokadilloa, gose naiz*

- Kaisu, Lurdes, zer zabilta?
- Hementxe!
- **Pastela** nahi duzu?
- Ez, **bokadilloa** nahiago dut
- Bokadilloa?
- Bai, **gose naiz...**

Edota: *zigarroa, aspirina, buruko mina dut*

- Kaisu, Felipe, zer zabilta?
- Hementxe!
- **Zigarroa** nahi duzu?
- Ez, **aspirina** nahiago dut
- Aspirina?
- Bai, **buruko mina dut...**

Edota:

- *ardoa, esne beroa, hotzak nago*
- *karameloa, txokolatea, goxoagoa da*
- *kopa, tea, hobe da*
- *zina joan, paseatu, nekatuta nago*
- *egunkaria, tebeoa, politagoa da*

*Metodo batzuk ikaskai bakoitzari dialogo batez ematen diote hasera. Dialogo horretako zati bat har daiteke mikrohizketarako gai bezala. Goikoa, adibidez, horrela egina dago* <sup>27</sup>. Metodoan dialogo egokirik ez balego, irakasleak berak asma dezake egoera aski mugatu bati dagokion hizketa.

2. Asmatutako elkarrizketak emankorra izan behar du, hau da, elementu bat edo beste aldatzeko bidea ematen duena. Helburua ez bait da, hemen, dialogoa buruz ikastea besterik gabe, ikasi ondoren antzekoak sortzen ikastea baizik.

Asmatutako hizketak ez badu aldatzeko biderik ematen, bestetarako izango da egokia, baina ez honetarako. Demagun honako hau:

- Nork du zigarro bat?
- Nik ez dut, baina honek badu
- Tori
- Eskerrik asko! <sup>28</sup>

Hizketa hau alda daitekeen arren, ez nuke esango horretarako oso aproposa denik. Izatekoan ere *zigarroren* ordez, *karamelo*, *tebeo* edo antzekoak eman daitezke, hots, akuilu bakarra. Horrek ez du balio handiegirik.

Hizketa asmatu ondoan, beraz, akuiluak pentsatu behar dira. Gero ahoz eman daitezke, edo arbelean idatzita, ikasleek arinago burutu dezaten ariketa.

3. Ez da komeni hizketa luzeegia egitea ez eta perpaus konplejuegiak erabilteza. Buruz ikasteak eskatzen duen lana ahal den neurrian arindu egin behar da, aldaketa-jokoaren zerbitzuan, ikaslearen arreta azken honetara bil dadin. Honako honetan, esate baterako, elkarrizketaren markoa erraza da:

- Ikusi duzu nere **boligrafoa**?
- Ez, zer bada?
- Galdu egin zait
- Hartu **koldorena**...
- Hori ere galdu egin zait, ordea...

Bi hitz-akuiluetatik errazena zalantzarik gabe lehena da (nominatiboa bait da): *jertsea, egunkaria, baloia, pilota*... Bigarrena zailagoa da, birdeklinazioa bait darama: *Anerena, Mikelena, Inesena, aitarena, nagusiarena*... Markoa erraza izanik zuzenago bilduko da aldaketetara ikasleen arreta.

4. Akuilua osorik eman daiteke: *Anerena, aitarena*...; edota jokatu gabe, morfema ipintzea ikaslearen esku utziz: *Ane, aita*... Ariketaren aplikazio libreago batean, ikaslearen esku utzi daiteke, baitare, aldagarrien aukera.

5. Aldaketei ekin aurretik oinarrizko elkarrizketa ondo ikasi behar da buruz. Horretarako, esan bezala, laburra eta erraz gogora daitekeena izatea komeni da eta ikaskaietan ikasitakoetatik ahalik hurbilena.

Buruz ikasazteko bideak eta teknikak edozein entzun-mintzatuzko metodotan aurki daitezke. Dialogo labur hauekin ere bide bera erabil daiteke. Oinarrizko dialogoaren bospasei perpausak ondo ikasi arte ez da komeni aldaketekin hastea.

27. Hondarraitz, 8. ikaskaia

28. Hondarraitz, 5. ikaskaia



6. Hasierako urratsetan, eta batez ere ikasleek ariketaren mekanika mendera dezaten arte, egoki izan daiteke dialogoan parte hartzen duen solaskidetako bat irakaslea bera izatea. Honek, beraz, batetik hitz akuiluak eskainiko ditu eta bestetik dialogoan esku hartuko:

IR --- IK

IR --- IK

IR --- IK

Gero, ordea, hitz akuiluak ematera muga daiteke irakaslea eta elkarrizketa ikasleen artean eman dadila utzi:

IK --- IK

IR IK --- IK

IK --- IK

Eta azkenean, behar bada, akuiluak ere ez ditu eman behar izango.

Aurreko atalean aurkezturiko gramatika ariketei buruz esandakoa errepikatu behar da mikro-hizketari dagokionean ere. Hots, hau ez da irakasteko metodo osoa, ez eta ardatz nagusia ere. Klaseko ariketa batzuk burutzeko bide eta teknika bat baizik ez da. Zer neurri eta zenbat denbora eskaini behar zaion ez da erraz esaten. Hori, klaseko baldintzak ikusita irakasleak berak erabaki beharko du.

Egitura hutsei begira egindako ariketen ondoan, abantail bat du: komunikazio ariketetatik zerbait hurbiltxeago dagoela eta hizketa libreterako zubi izan daitekeela.



## **4. ATALA: ARIKETA IDATZIAK**



# I. IDATZIZKO ARIKETA MOTAK

Goiko ataletan ahoz burutzeko aurkeztu diren ariketak idatziz ere egin daitezke. Erraz gertatuko zaio edozein irakasleri horrelako ariketak sortzea, aldian aldikoak eta metodoek dakartzatzenen osagarri.

Idatzizkoek, halere, ahozkoen ordezkagarri izatez gain badituzte berezitasun propioak:

a) Idatziak patxadatsuago burutzekoak direnez, pentsatzeko asti zabalagoa eskaintzen dute; hori dela eta, trebetasunaz landa, ezagupenak ere bai finkatzeko bai neurtzeko balio dute. Gramatika puntu bat ikasleek ezagutu dezaten –eta ez zuzenean erabiltzen treba daitezen– balio dezakete idatzizko ariketa lasaiago hauek<sup>29</sup>.

b) Hizkuntza idatziak baditu ahozkoak ez dituen berezitasunak: perpaus luzeagoak, konplejuagoak, bestelako ilatiboak... Hori dela eta, ariketa idatziek ikaslea berezitasun horietan ere abiarazteko balio dezakete. Hau da, idazten ikasteko abiapuntu izan daitezke.

Ondoko lerroetan ez ditugu, noski, ahozko ariketei buruz esandakoak errepi-katuko. Idatzizko bi berezitasun nagusi horiek gogoan harturik, bakoitzaren inguruan burutu daitezkeen ariketak azalduko ditugu, hau da, gramatikaren ezagupe-na helburu dutenak batetik –**ezagupen ariketak**– eta idatzizko hizkuntzaren zer-bitzuan egin daitezkeenak bestetik –**adierazpen ariketak**–.

29. Zenbaitek dioenez, hizkuntzak ikasterakoan bi faktorek hartzen dute parte: a) eskuratzeko prozesua; b) formalki ikasitakoez osaturiko «monitore» gisako zerbait. Lehena da, noski, komunikaziorako inportanteena eta bigarrenak hura zuzentzen du lanik behinena. Ahozkoan monitoreak ez du eragin zuzen nabarmendik –bere burua beti zuzentzen ari diren hiztun toteletan ez bada–; idatzian, ordea, oinarrizko eraginaz landa, zuzena ere badute. Ezagupen formalez bilduriko «monitore» horren zerbitzuan burutu daitezke idatzizko ariketa hauek.

## II. EZAGUPEN ARIKETAK

Gramatika era batera edo bestera ikasia izan, halako batean ikasleak ikasitakoa kontestu berritan erabiltzen eta esanahi berriak adierazten ba ote dakien frogatu egin beharko da. Bere ezagupen hori zalantza eta anbiguotasun guztien artean finkatzeko eta neurtzeko balio dute idatziz eta patxadaz burutu daitezkeen ezagupen ariketak.

Hemen ez dira nagusi praktika ugaria, ritmo azkarra eta, nolabait esan, aribide trinkoa. Hemen ez zaio kontestuan lasai eta arin erabiltzeko trebetasunari begiratzen. Hemen, esan bezala, puntu gramatikalen ezagutzeari begiratzen zaio.

Egokiak izan daitezke ariketa hauek aurretik landutako ikaspuntu gramatikalak zenbateraino ikasi diren neurtzeko eta ahozko ariketek nolako emaitza utzi duten neurtzeko, egoki ikasitakoa finkatzeko eta hutsuneak edo zalantzak bete eta zuzentzeko.

Hizkuntza klaseetan hainbatetan eta hainbatetan erabili izan diren ariketa asko **ezagupen ariketen** sail honetan sar ditzakegu, gramatika arauak jakinaren gainean ezagutzea eskatzen bait dute.

Honexegatik ariketa horiek oso zabaldurik dauden test mota batzuen antz handia dute.

Ariketok ondo burutzeak arauak eta sistema ezagutzen direla adierazten du; ez noski, eta hau garbi esan beharra dago, hizketan hasitakoan ikaslea arau egokia hautatzen eta zuzen erabiltzen trebe egin denik. Honetarako urrats bat emana dagoela esan nahi du; ez besterik.

Honako hauek, besteak beste, sar ditzakegu ezagupen ariketen artean:

- **aukera anitzeko ariketak**
- **hutsuneak bete**
- **atal jokoa**
- **esaldiak eta irudiak lotu**

### II.1. AUKERA ANITZEKO ARIKETAK

Besteenak baino ere nabarmenagoak dira ariketa honen mugak: honek ez bait du erabilpena ez neurtzen ez eta zuzenean bultzatzen ere.

Ikaspuntu bat aislatu egiten du, haren ezagupena finkatu eta neurtzeko.

Hona adibide bat:

Marka ezazu perpaus bakoitzaren ondoan dagokion letra.

A = du                      C = ditu  
B = da                      D = zen

- |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|
| 1. Mikelek gaur ez --- asko jan                     | A | B | C | D |
| 2. Nork hartu --- nere jostailuak?                  | A | B | C | D |
| 3. Aitona oso posik bizi --- gaztetan               | A | B | C | D |
| 4. Joan den urtean jende gutxi atera --- oporretara | A | B | C | D |
| 5. Trena gaur berandu iritsi ---                    | A | B | C | D |
| 6. Nork ireki --- leiho hori?                       | A | B | C | D |
| 7. Jonek zapata berriak jantzi ---                  | A | B | C | D |
| 8. Nor ibili --- nere gauzekin?                     | A | B | C | D |

Ariketa honetan ikasleak transitibo/intransitibo, objeto singularra/plurala eta orain/iragana berezketak menderatu behar ditu. Perpausa ulertu ondoan nolako aditz laguntzailea eskatzen duen antzeman behar du. Kasualidadez ere asma daitezke zenbait perpaus, baina ez noski denak eta zori hutsari erantsi dakioken hainbatekoa ez da oso handia.

Ariketa horrela aurkezturik, test gisa aise erabil daiteke, baita mekanikoki kontatu ere.

Erraza da, azkeniz, sistema hau erabiliz mila eredu desberdin asmatzea eta gramatika puntu bakoitzari dagozkion modeloak sortzea.

Hona, adibide gisa, beste zenbait eredu:

A = ak                      C = ek  
B = a                      D = Ø

- |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|
| Nere lagun ---- ederki bizi da          | A | B | C | D |
| Horren guraso ---- Bilbokoak dira       | A | B | C | D |
| Gaurko gazte ---- oso maite dute kirola | A | B | C | D |
| Koldo ---- ohean geratu da              | A | B | C | D |

A = (e)ra                      C = (e)an  
B = (e)tik                      D = (e)ko

- |                                       |   |   |   |   |
|---------------------------------------|---|---|---|---|
| Ni ez naiz zine ---- joango           | A | B | C | D |
| Ura mendi ---- dator                  | A | B | C | D |
| Pello lantegi ---- lagunekin dabil    | A | B | C | D |
| Gure herri ---- jende gehiegi bizi da | A | B | C | D |

A = ten                      C = ko  
B = tzen                      D = Ø

- |  |   |   |   |   |
|--|---|---|---|---|
| Egunero ikus ---- duzu telebista?        | A | B | C | D |
| Zergatik ibil ---- ote da horren arlote? | A | B | C | D |
| Ahal nuena ekarri ---- dut               | A | B | C | D |
| Noiz ikasi ---- duzu ondo ibiltzen       | A | B | C | D |

A = dena                      C = den  
B = dela                      D = da

- |                                  |   |   |   |   |
|----------------------------------|---|---|---|---|
| Nere ustez, Leire ondo bizi ---  | A | B | C | D |
| Mikel ere ondo bizi --- uste dut | A | B | C | D |
| Badakizu hemen nor bizi ---      | A | B | C | D |
| Hor bizi --- nere laguna da      | A | B | C | D |

Honako ariketetan anbiguotasuna, ahal den neurrian behintzat, saihestu egin behar da, neurketa indarra ahaldu egiten bait da bestela.

Goian adibide batzuk eman ditugu. Bestelako ikaspuntu asko ere neurtu daiteke bide honetatik: lexikoari buruzkoak, esaerei dagozkienak...

Hona hemen, bukatzeko, gramatika puntu bereziei begira asmatuiko beste zenbait eredu:

A = *baino*            C = *horren*  
B = *bezain*           D = *bezala*

Zu --- gizenik ez dago klasean	A	B	C	D
Ez, bada. Mikel ni --- gizenagoa da	A	B	C	D
Horixe! Hura ere lodia da, ni ---	A	B	C	D
Lehen ez zen --- gizona	A	B	C	D

Edo proposizioak:

A = *ondoan*            C = *buruz*  
B = *gainean*          D = *arte*

Zortziak --- aritu gara lanean	A	B	C	D
Platerak mahai --- utzi ditut	A	B	C	D
Etxe --- aurkitu dut arreba	A	B	C	D
Asko daki honek kirolari ---	A	B	C	D

Horrelako ariketak erraz asma ditzake edozein irakaslek. Dena den, oharkabean anbiguotasun batzuk sartu daitezkeenez, ariketa bat egin ondoan arretaz aztertu behar da dagokion puntua behar bezain egoki eta zehatz jasotzen duen<sup>30</sup>.

Demagun **da/zen** (oraina/iragana) berezketa finkatu eta neurtu nahi dela:

**Nor sartu --- etxean?**  
**Trena garaiz iritsi ---**

eta antzeko perpausak ez dute balio, bietan biak sartu bait daitezke.

Behin eta berriko esan dugun bezala, hau ezagupen ariketa hutsa denez, beraren erabilerak ere oso mugatua behar du izan. Ikaspuntu bat ondo landu ondoan azken froga gisa aplika daiteke, etxeko lan bezala edo klasean, denbora laburrez, ekintza aldaketen zerbitzuan.

## II.2. HUTSUNEAK BETE

Ariketa, hau, batez ere doinuera eta ritmoa trakesten dituenean, desegokia da ahoz burutzeko, gorago ere esan dugunez. Idatzizko **ezagupen ariketa** bezala balio dezake, halere.

Kontuz ibili behar da, ordea, perpausak ulertu gabe ere erabat mekanikoki burutu bait daiteke eta horrek, bistakoa denez, deus gutxirako balio du. Hutsuneak, beraz, ahal den neurrian, perpausak ulertu ondoan betetzekoak izan daitezela komeni da.

### II.2.1. PERPAUSAK

Ariketa, hutsuneak betetzeko akuilua emanda nahiz eman gabe burutu daiteke.

<sup>30</sup>. Ona izaten da, horrelako ariketak prestatu ondoan, beste irakasleren bati pasatzea, ea hark inolako anbiguotasunik ikusten duen.



Adibidez: *Hutsuneak bete*

**Badakigu lehen nor etorri ---?**  
**Bilbok partidua irabazi --- esan du**  
**Adizu Mikel, ikusi al --- nere giltzak?**  
**Atzo jan --- kalte egin dizu**

Ariketa horretan ez da alboan akuilurik eskaintzen. Hutsuneak, bestetik, ez dira puntu bakarrera mugatzen; hor, errepasso gisa, denetarik aurki daiteke (*den, duela, dituzu, zenuenak*; zehar galdera, konpletiboa, objeto plurala, iragana, erlatiboa... denatik dago hor). Mugatuago ere egin daiteke. Aditzaren aldiari bereziki begiratu, esate baterako:

**Joan den urtean jende asko etorri --- Donostiara**  
**Aurten, berriz, ez --- honenbeste etorriko**  
**laz, izan ere, oso eguraldi ona egin ---**  
**Eta aurten nolakoa egingo ---?**

Egin daiteke, orobat, ariketaren alboan hitz akuilua, jokatu gabe, eskainiz:

<i>(iritsi)</i>	<b>Mutil horiek egunero --- dira berandu</b>
<i>(geratu)</i>	<b>Bihar etxean --- gara</b>
<i>(etorri)</i>	<b>Gaur trena beteta --- da</b>
<i>(abiatu)</i>	<b>Martxa honetan, berandu --- zarete</b>

eta abar.

Ariketa honetan ikasleak lehenbizi perpaus osoa begiztatu behar du eta bertan ikusten dituen elementuen arabera hutsunea beteko duen hitza eta hitza-ren forma aukeratu behar ditu.

Ezagupenak finkatzeko erabiltzen bada, perpaus osoa idatz dezatela eska dakieke ikasleei. Test gisa erabiltzen bada, berriz, batez ere denbora mugatu batean burutu behar badute, aski izan daiteke hutsuneko hitza baizik ez idaztea.

Deklinabidearen zerbitzuan, egoki gerta daiteke akuilua duen ariketa proposatzea:

<i>(lagun)</i>	<b>nere --- asko dakite</b>
<i>(adiskide)</i>	<b>zure --- etorri da</b>
<i>(langile)</i>	<b>--- horrek konpondu dit kotxea</b>
<i>(azoka)</i>	<b>--- izan al zara</b>
<i>(leiho)</i>	<b>--- erori zait baloia</b>

eta abar.

Aditz laguntzailearen kasuan ez da akuilurik behar:

**Ni, behintzat, ez --- zinera joango**  
**Zuk zer ekarri ---?**  
eta abar.

## II.2.2. TESTU JARRAITUA

Aditzaren aldi-aspektuen ezagupena finkatu eta neurtzeko prosa testu jarraitu bat eman daiteke, testuaren denborazko adberbio guztiak egoki jartzen direlarik:

Adibidez: *Eman iraganean:*

**Erresuma pobre bateko agintaria atzerrira joan --- beste agintari handi bati bisita egitera. Honen etxea guztiz ederra ---.**

Agintaria oso harritu --- haren etxea ikusita. Nola egin esateko eskatu --- lagunari.

Lagunak leihora joateko esan ---:

– Ikusten duzu horko zubia? Hogei miloetan egin behar omen ---, baina nik horretan hamar baizik ez --- gastatu. Ulertzen duzu?

Lagunak, irribarrez, baietz erantzun ---.

Handik urtebetera laguna bisitara joan --- herri pobreko agintariari. laguna bai harritu --- agintariaren etxea ikusiz: hango aberastasunak eta lujoak!

Sekulan ez --- horrelako etxe dotorerik ikusi –esan zion agintariari– Nola lortu duzu?

Besteak leihora joateko esan zion serio:

– Ikusten duzu zubi hori?

Laguna harrituta geratu --- Han ez --- zubirik. Berak behintzat ez --- zubirik ikusten.

– Baina –esan --- totalka– hor ez dago zubirik.

– Horixe, bada, ez duzu ulertzen? –erantzun --- algaraz agintariak<sup>31</sup>.

Horrelako ariketak egokiak izan daitezke, halaber, atzizki deklinatiboen ezagupena neurtzeko ere. Esate baterako:

**Mikel behin Erroma-- joan zen lagun batzuk ikuste--. Tren-- sartu zenean, leku egoki-- aurkitzen hasi zen. Bagoi asko pasa zituen eta azken-- bat aurkitu zuen huts-huts-- Han eseri zen lasai. «Bagoi hon-- joango naiz lasai», pentsatu zuen. Ordu-- iritsi zenean, ordea, bagoi hura ez zen mogitu. Tren-- joan zen eta hura geltoki-- geratu zen: azken bagoi-- zen eta ez zegoen beste-- lotuta.**

Honelako ariketa, aise ikus daitekeenez, ezin da mekanikoki burutu. Testua- ren ulermena eskatzen du eta arauen ezagupena.

Horretan gelditzen da dena, ordea. Esan bezala, espresio gaitasuna (ez zuzena ez eta egokia ere) neurtzeko ez bait du balio.

### II.2.3. BURUTZE ARIKETA

Aurreko ariketaren testu hustuketa puntu zehatz eta bakar bati begira egina zegoen. Orain proposatzen dugun honetan, hustuketa zabalagoa da. Ikasleak hutsunea nola bete kontestutik atera beharko du. Ariketak beraz irakurketa kontestualari begira areago balio du, gramatika hutsaren zerbitzuan baino.

Era diferentetara aplikatu daiteke:

a) n. posizioan dagoen hitza, dena delarik, kenduz: bosgarren gunekoak, seigarrenekoak... Hona bosgarren guneko hitzez husturiko testu bat:

**Fernando Amezketarra oso gizon --- zen. Lanerako ez zuen --- handi- girik izaten. Beti ibiltzen --- bazkaria nori kenduko zion --- Egun batean apaizaren etxera --- zen. Atea jo eta --- geratu zen. Eta abar<sup>32</sup>.**

Horrelako testuetan, noski hutsuneak etorri bezala gertatzen direnez, asko- tan posibilitate bat baino gehiago izango ditu ikasleak zuloak betetzeko. Eta denak aski onak.

31. Hondarraitz, II-tik egokitua.

32. Hustu beharreko gunean izen bereziren bat, zenbakiren bat edo antzeko hitzen bat tokatzen denean, hurrengo gunea hustutzen da.

Horrelakoak, bestetik, egokiagoak dira jaiotzatikako hiztunen ezagupenak neurtzeko. Hauek perpausa hasi ahala jarraipena nolakoa izango den antzeman bait diezaiketete.

b) Bigarren hizkuntzaren ikasleekin hobe da n. hitza hustu beharrak dakarren muga estutik askatzea eta ikasi nahi diren puntu gramatikalen arabera testua hustutzen joan, nahi den hitza hustuz eta nahi dena utziz.

**Fernando Amezketarra oso gizon xelebrea --- Lanerako ez --- gogo handirik izaten. Beti ibiltzen --- bazkaria nori kenduko --- asmatzen. Egun batean apaizaren etxera --- zen. Atea jo eta zai --- zen. Eta abar.**

Ariketa honek testuaren alderdi guztiak ondo aztertzeraz behartzen du ikaslea eta zentzu honetan arretaz eginiko irakurketarako urrats egokia izan daiteke.

c) Ariketak zailtasun handiegiak baldin baditu, lexikalak zein gramatikalak, laguntza eskaini dakioke ikasleari, testutik ateratako hitzak testuaren ondoan nahasirik emanda:

**Fernando Amezketarra --- gizon --- zen. Lanerako ez zuen gogo --- izaten. Beti --- zen bazkaria nori kenduko --- asmatzen. Egun batean --- etxera joan zen. Atea --- eta zai geratu zen. Eta abar.**

*(xelebrea - ibiltzen - apaizaren - jo - zion - handirik - oso)*

Azken ariketa honetarako eta antzekoak burutzeko oso egokia gerta daiteke testu laburren bilduma egokiak egitea puntu konkretuen inguruan; esate baterako, baldintzaren erabilpena argitzeko, ezezko perpausak, subjuntiboa eta aditz izenkiak...

Horrela puntu horien erabilpen konkretuez ohartzen joan daiteke ikaslea, bestela ezagupen jenerikoez geratuko litzatekeena<sup>33</sup>.

### II.3. ATAL JOKOA

Testuaren koherentzia, bai gramatikaren eta bai esanahiaren aldetik, lantzeko eta neurtzeko balio dezake ariketa honek. Testu baten perpausak bere lekutik atera eta nahasian eskaintzen zaizkio ikasleari. Honek testuaren atalak nahasian jaso eta dagokien segidan ipini behar ditu.

Demagun honako narrazioa (ohiturazkotik orainaldi burututa pasatzen dena):

- **Egunero Mikel zazpitan jaikitzen da**
- **Arin gosaltzen du**
- **Gero trena hartzen du lantokira joateko**
- **Trena zortziak laurden gutxiagotan irteten da**
- **Oraintxe zazpi t'erdia dira eta ez dago prest**
- **Baina Mikel ez da kezkatzen**
- **Astiro gosaltzen ari da**
- **Hondartzara joateko asmotan da**
- **Gaur igandea da.**

Perpaus hauek nahasian, edo txarteltxo banatan idatziak, ematen zaizkio ikasleari eta honek perpaus bakoitza ulertzeaz aparte, testuaren barruan bakoitza non kokatzen den jakin behar du.

Esanahiak, ilatiboak eta abar laguntzen dute horretan, baina bai gramatikak ere:

33. Mota honetako ariketek testgintzan duten aplikazioaz, ikus sail honetan argitara emango den 4. alea.

**Igaz Erromara joan nintzen oporretan  
Hura ezagutzeko gogoia bait nuen  
Eta diru piska bat lapurtu bazidaten ere,  
ez nintzen damututa etorri.**

Lau perpaus hauek ez dute beste segidarik onartzen: bigarrenaren **hura** izenordainak **Erroma** behar du erreferentzia gisa eta **bait nuen** egitura aurrekoaren azalpena da. Hirugarrenaren kontzesiboak, nagusiaren aurretik joan behar du nahita ez.

Horrelako ariketak, sinpleak badira, hasieratik aplika daitezke.

#### **II.4. IRUDIAK ETA PERPAUSAK LOTU**

Ariketa honetan gramatika soila atzerago geratzen da eta berriro ere esanahi osoak hartzen du indarra. Ikasleari irudi multzoa eta horren ondoan perpaus multzoa ematen zaizkio; zein zeini dagokion asmatu behar du. Eta perpaus solteak izan beharreak, testu jarraitu batenak badira, perpausaren ordena ere asmatu behar du.

Ariketa honen berezitasunak aurrekoaren antzekoak dira.

### III. ADIERAZPEN ARIKETAK

Gorago azalduko ariketak ikaspuntu gramatikalak argitzeko, finkatzeko eta are neurtzeko onak badira ere, ez dute ikaslea perpausak sortu beharreko egoeran jartzen; ez dizkiote perpausak egin arazten eta are gutxiago testu egokiak idaz arazten.

Ondoren aurkeztuko ditugun ariketak, berriz, praktikara –idaz praktikara– begira egin daitezkeenak dira. Hasteko zera esan behar da, ikasleen kopuruak edo klasearen dinamika bereziak horrela eskatuko balute, ahozko sailean aurkeztu ditugun ariketak idatziz ere egin daitezkeela. Baina haiek ezezik, hau da, gramatikaren zerbitzuan egin daitezkeenak ezezik badira idatzizko trebetasunari begira ere burutu daitezkeenak, idaz praktikako bidea eskaintzen dutenak. Honako hauek, adibidez:

1. Perpausak osatu
2. Elkar hizketak osatu
3. Transformaketa
4. Esakuneen aldaketa

#### III.1. PERPAUSAK OSATU

Ariketa hau aski erabilia izan da hizkuntza klaseetan. Irakasleak hitzak ematen dizkio ikasleari eta honek perpaus zuzenak eta egokiak egin behar ditu.

Adibidez: *Pello - zine - joan - pelikula - ikusi*

Ikasleak honako zerbait emango du:

**Pello zinera doa pelikula ikustera**

Irakasleak hitz soilak eskaintzen dituzenez, ikasleak hornitu behar ditu dagozkien morfemak. Horra alderdi gramatikala. Baina hitzen segida ere gogoan hartu behar du, komak, pausak eta antzekoak bezala. Zer puntu lantzen ari den, hartara daramaten hitzak –perpausak– eskainiko ditu irakasleak. Demagun konparatiboa lantzen ari dela; honako hitzak eskain ditzake:

*ni- baino - gazte - izan - ezta? - zu*

Ikasleak honako perpausak eman ditzake:

**Ni zu baino gazteagoa naiz, ezta?**

**Zu ni baino gazteagoa zara, ezta?**

**Ni baino gazteagoa zara zu, ezta?**

eta abar.

### III.2. ELKARRIZKETAK OSATU

Ariketa honetan ere gramatika hutsa baino areago testu osoaren koherentzia lantzen da. Elkar hizketa batean lagun baten hitzak ematen dira; bestearenak, kontestutik, ikasleak asmatu behar ditu.

Adibidez:

- .....
- **Ni ondo. Eta zu?**
- .....
- **Zer bada? Gaisorik al zaude?**
- .....
- **Lana? Nik emango dizut, nahi baduzu.**

Irakurritakoaz atera behar da, gutxi gorabehera, isilpean geratu den lagunak esan duena. Gehienetan ondokoak, mintzalagunaren erantzuk, adierazten digu aurrekoak zer esan duen.

### III.3. TRANSFORMAKETA

a) Gorago, ahozko ariketez ari ginela, mintzatu gara transformaketez. Han esandakoak hemen ere balio du. Idatzian, ordea, eta idatzizko trebetasunari begira, perpaus luzeagoak eta konplejuagoak –bai eta parrafo osoak– eskaini daitezke.

Adibidez: *Eman pluralean*

**Lagun horrek, nahi duenean, badaki gauzak poliki eta goxo esaten. Batez ere zerbait lortu nahi duenean.**

(Erantzuna: **Lagun horiek, nahi dutenean, badakite gauzak poliki eta goxo esaten. Batez ere zerbait lortu nahi dutenean**)

Edo: *Atera axalera erlatiboaren ondoko izena*

**Maite zaituenak komeni zaizuna emango dizu.**

(Erantzun posiblea: **Maite zaituen pertsonak komeni zaizun oparia emango dizu**)

b) Horrelako transformaketak edo antzekoak egin ondoren asma daitezke egoera bati loturiko ariketa zabalagoak.

Honakoak, adibidez: ikasleari egoera bat estilo **narratiboz** aurkezten zaio eta gero han gertaturikoa **hizketa** moduan eman dezala eskatzen zaio.

**Zure lagunak erloju bat erosi dizu, zure eguna delako. Zuk pozik, eskerrak eman dizkiozu eta oso polita dela esan diozu. Eskumuturrean jartzen hasi zara eta lurrera erori zaizu. Erabat hondatu egin da eta lagunak, haserre, ez dizula gehiago erregalorik egingo esan dizu.**

*Kontatu bion artean izan duzuen hizketa:*

Honelako zerbait emango luke:

- **Zorionak, Mikel. Zenbat urte?**
- **Hogei**
- **Begira, erregalo bat ekarri dizut**
- **Oi... bai polita. Eskerrik asko... Egon, egon... jarri egingo dut... Ai erori-egin zait**
- **Bai baldarra... begira, puskatu egin da! Ez dizut gehiago erregalorik egingo.**

Edo beste bat:

Atzo laguna eta biok zinera joan zineten. Orain beste lagun batzuei pelikula oso polita izan zela esaten die lagunak. Zuk berriz, ezetz diozu, aspergarria izan zela. Lagunak, haserre, isiltzeko esaten dizu, lo egon zinela eta ez dakizula ezer.

*Kontatu ezazu hango hizketa:*

Honelako zerbait emango luke:

Lagunak: **Atzo zinera joan ginen Kepa eta biok**

Beste batek: **A bai? Zer pelikula ikusi zenuten?**

Lagunak: **Marlon Brando-rena... oso polita**

Kepak: **Polita? Alde hortik... horri esaten diozu polita?**

Lagunak: **Isilik egon zaitez. Zer ari zara zu? denbora osoan lo egon zinen eta...**

Gogoan eduki tranformazio hau egin ahal izateko narrazioak azpian hizketa bat eraman behar duela, hau da, hizketara erraz pasa daitekeena izan behar duela. Tranformaketa, gainera, alderantziz ere egin daiteke, hots dialogo bat narrazioa pasa, zehar estiloa eta gutzi.

c) Ikusten denez, aldaketa mota honi ahozko ariketez ari ginela birformula-kuntza izena eman diogu. Berau gauzatzeko bide posibleak asko dira, batzuk idazketa libretik oso urrun ez daudenak gainera.

Hau, esate baterako:

**Mattin baserritarra da. Egun osoa lanean pasatzen du eta ez du sekula oporrik egin. Oso diru gutxi du. Halere semea ikastera bidali du Bilbora, han ofizio bat ikas dezan, nonbait kolokatu eta gero bera baino lasaiago bizi dadin.**

*Pentsa ezazu zu Mattin zarela eta idatzi gutun bat semeari sentimentu hauek adieraziz.*

Eta ikasleak aurkezpenean ematen zaizkion ideiak jasoz gutun bat idatzi beharko du.

Edota, ideia horiek hartuz, asma dezala aita-semeen arteko hizketa.

Edota, gai beraren inguruan, aita-amen arteko hizketa...

Azken ariketa honek gauza bera era diferentetaz adierazten ikastea du helburu. Idatzizko trebetasuna aberastea, beraz.

#### III.4. ESAKUNEEN ALDAKETA

a) Idazten trebe izateak gauzak era diferentetara esateko gaitasuna eskatzen du: noiz lehor, noiz bizi, noiz ironiaz, noiz serio...

*Etorri hona* angindua emateko, esate baterako, modu asko daude:

**Etorri**

**Etorri zaitez, bada**

**Etorriko al zara?**

**Ea, mugitu**

**Ez zaitut jango gizona**

**Ez geratu atean, faborez**

**Begira zer dudan!**

**Hona aguro!**

**Zer? Ez duzu etorri nahi?**

**Mugitu alfer hori!  
Etorriko zara ezta?  
Noiz arte egon behar dut zure zai?  
Ez zaitetz hor gelditu!  
Aurrera, gizon!**

Interesgarria da ikasleak ideia bat, edo bederen ideia beretsua, era desberdinetara esaten ikastea eta hori idatzizko ariketen patxadan errazago egin daiteke<sup>32</sup>.

b) Hizkuntza berriko ikasleek bere gisa idazteari ekiten diotenean, perpaus bakunetan eta koordinazioan (**eta, baina...**) geratzeko joera handia dute. Zaila egiten zaie hortik aurreragoko perpaus baliatzea. Aberatsago idazten ikasteko ahozko ariketetan ikusi dugun birformulakuntzara jotzea egoki izan daiteke.

- bi perpaus eman eta bat erlatibo gisa txertatu
- bi perpaus eman eta bat kausal gisa txertatu
- bi perpaus eman eta bat denborazko gisa txertatu

Hori, ordea, aski mekaniko gerta daitekeenez, idatziz aberatsago ere egin daiteke. Perpaus bakun batzuk eman –edota beraiek asma dezatela esan– eta horiekin parrafo konplejua, bakunik gabe eta edo **baina** juntagailuak oso bakan erabilia, osa dezatela eskatu.

Honako perpaus hauek eman daitezke, adibidez:

**Euria hasi zuen  
Autobusa beteta etorri zen  
Nere lagunak zai zeuden  
Haserretu ziren  
Dendara sartu ziren  
Euritakoa erosi zuten  
Geltokira itzuli ziren  
Eguzkia atera zen**

Eta hori parrafo konplejuan, subordinazio eta guzti, eman dezatela eskatu. Honelako zerbait emango lukete:

**Nere lagunak autobusaren zai zeudela euria gogor hasi zuen. Piska batean zai egon ondoren, azkenean autobusa azaldu zen; baina, zoritxarrez, beteta zegoen. Hori ikusita, nere lagunak oso haserretu ziren eta atertzen ez zuenez, dendara joan eta euritakoa erosi zuten. Berriz geltokira iritsi zirenean, ordea, eguzkia atera zen.**

32. Besterik da, eta hau ariketa komunikatiboen sailean sartzen da erabat, egoera baten aurrean, pertsona desberdinen jarrerak jokatzeko. Hor ez da gauza bera era diferentetara esaten, gauza diferenteak baizik. Hona adibide bat:

Kalean pasatzen ari garela mozkor bat ikusten dugu ziraldoka datorrela. Dendetako kristalak joz eta jende guztiari zerbait esanaz dator.

Asma ezazu zer ezango lukeen honen aurrean honako jendeak:

- Polizia batek (galdera eta agindua)
- Dendari batek (haserrea)
- Kuadrillan datozen gazte batzuk (adarra jo)
- Bakarrik datorren neska batek (bildurra edo ironia)
- Hurrekin datorren ama batek (haurrari oharren bat)
- Mozkorraren emazteak (lotsa eta agindua)

Bakoitzeko perpaus bat edo pare bat eskatu.

Poliziak: Zer ari zara? Segi etxera hemendik, gartzelara joan nahi ez baduzu.

Dendariak: Bai, puskatu kristala. Ikusiko dugu zer gertatzen den, eta abar.



# **BIBLIOGRAFIA**



## BIBLIOGRAFIA

Ugari izan da, batez ere 60-70 hamarkadan, honako ariketen inguruko bibliografia. Metodologiei buruzko jeneraletan ere ez dira falta horrelako ariketen aipamenak. Denak ezingo ditugu, beraz, inola ere jaso. Eskuragarrienak eta lagungarri izan ditugunak baizik ez ditugu aipatuko.

ALI BOUACHA, A. (arduraduna). *La pédagogie du français langue étrangère* (Hachette, 1978).

ALLEN, E.D. & VALETTE, R.M. *Classroom Techniques: Foreign Languages and English as a Second Language* (Harcourt Brace Jovanich, 1977).

BENNETT, W.A. *Las lenguas y su enseñanza* (Cátedra, 1975).

DELATTRE, P. (arduraduna). *Les exercices structuraux pour quoi faire?* (Hachette, 1971).

DIXSON, R.J. *Practical Guide to the Teaching of English as a Foreign Language* (Regents Publishing Company, 1975).

FINOCCHIARO, M. & BONOMO, M. *The Foreign Language Learner: A Guide for Teachers* (Regents Publishing Company, 1973).

HUOT, H. *Enseignement du français et linguistique* (Armand Colin, 1981).

LADO, R. *Language Teaching: A Scientific Approach* (Mc Graw-Hill, 1964).

PARKINSON DE SAZ, S.M. *La lingüística y la enseñanza de las lenguas: Teoría y Práctica* (Empeño 14, 1980).

PASSEL, F. Van. *Enseñanza de idiomas a los adultos* (Fragua, 1973).

REQUEDAT, F. *Les exercices structuraux* (Hachette/Larousse, 1973).

RIVERS, W.M. & TEMPERLEY, M.S. *A practical Guide to the Teaching of English* (Oxford University Press, 1978).

Euskarazko lanei buruz, ikus XIXA, *Topikoak eta metodologiak* (Hezkuntza Saila, 1981), 95. orrialdeko BIBLIOGRAFIA.



## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### EUSKARA ZERBITZUAREN ARGITALPENAK

#### GLOTODIKATIKA-LANAK:

1. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: TOPIKOAK ETA METODOLOGIAK. *N. Gardner.*
2. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: GRAMATIKA ARIKETAK. *J.A. Mujika.*
3. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: MAILAKETA GRAMATIKALA. *I. Olaziregi.*
4. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: NEURPIDEAK (argitaratu gabea).
5. HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA: ZENBAIT ARTIKULU.
6. HAURRAK EUSKALDUTZEN GIÑOLAREN BIDEZ. *I.M. de Lezea-Kukubiltxo.*
7. EUSKARAREN GAITASUN AGIRIA: PROGRAMA.
8. EUSKALZAINDIK BATASUNERAKO ESKAINI DITUEN ERABAKIAK.
9. HAURRAK EUSKALDUNTZEN GIÑOLAREN BIDEZ II. *M. de Lezea.*
10. IPUIN ZAHAR ETA BERRIAK. *L. Iriondo.*
11. JOLASEAN. *I. Urbieta.*
12. AMONAREN IPUINAK. *E. Genua.*
13. IPUIN GEHIAGO. *A. Lertxundi - J. Lucas - Keinu - Maskarada.*
14. ESKOLARAKO IPUINAK ETA TXOTXONGILOAK. *I. M. de Lezea.*
15. HIZKUNTZ JOLASAK. *M. Sainz - I. Olaziregi.*
16. EABHEM: EUSKARA MAILA NEURTZEKO TESTA. *G. Ajuria - J. Ibarra - J. Sierra.*
17. EGA. 1983KO AZTERKETAK.
18. BAKARKA 1. EUSKERA A DISTANCIA. *J. A. Letamendia.*
19. EUSKALKIZ EUSKALKI. *R. M. Pagola.*
20. KONTU KONTARI. *L. Iriondo.*
21. MUSIKA HEZKUNTZA ESKOLAURREAN. *I. Urbieta.*
22. BAKARKA 2. EUSKERA A DISTANCIA. *J. A. Letamendia.*

#### HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA:

1. BIZKAIERAREN IDATZIZKO ARAUAK.

#### ZABALKUNDE-LANAK:

1. EUSKAL IKASMATERIALEN BILDUMA 1984. *R. Berriozabal.*
2. EIMA PROGRAMA: EUSKAL IKASMATERIALGINTZA. 1984eko ekitaldiaren azalpen bateratua.







Higuntzen irakaskuntza EK15030381